


EUSKAL HERRIRAKO BESTELAKO BIZITZA-EREDUAK LORTZEKO BURUJABETZA EREITEN



**Elikadura-burujabetza abiapuntu,
tokiko politika publikoak eraikitzeko
zenbait proposamen**

Lan hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babes ekonomikoari esker argitaratu da, Construyendo estrategias de desarrollo local y equidad de género desde la soberanía alimentaria (2014ERAL18) eta Soberanía alimentaria: una alternativa real frente a la crisis y una herramienta para la transformación social (PRO-2012K3/0021) izeneko ikerketa proiektuen barruan.



Egileak: Bizilur eta Etxalde
Koordinazioa: Silvia Piris Lekuona
2015ko Ekaina
Itzulpena: Di-Da <http://www.di-da.com/>
Inprimaketa: Gertu Inprimategia
<http://www.gertu.net/>
Ilustrazioak: <http://riniart.org/?s=4>

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Baimenduta dago obra hau kopiatzea, banatzea eta jendaurrean hedatzea, betiere, baldin eta haren egiletza aitortzen bada eta xede komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ez dago obra hau aldatzerik, eraldatzerik edo hartatik eratorritako beste obra bat sortzerik.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>



AURKEZPENA

SARRERA

I. ELIKADURA BURUJABETZA: IKUSPUNTU INTEGRALA, IREKIA ETA ALTERNATIBOA

- 1.1. Elikadura burujabetzaren definizioa
- 1.2. Elikadura burujabetzaren ikuspuntua ulertzeko gakoak
- 1.3. Elikadura burujabetza: ikuspuntu integrala, irekia eta alternatiboa

II. ELIKADURA BURUJABETZA: IKUSPUNTU INTEGRALA, IREKIA ETA ALTERNATIBOA LURRALDEA ETA TOKIAN-TOKIKOA. ELIKADURA BURUJABETZARAKO EREMU ESTRATEGIKOAK

- 2.1. Zergatik da lurraldea elikadura burujabetzarako eremu estrategikoa?
- 2.2. Elikadura burujabetza proiektu kolektibo eraldatzaile izateko bestelako politika publikoak

III. ELIKADURA BURUJABETZA: EUSKAL HERRIAN BESTELAKO BIZIMODU-EREDUAK LORTZEKO BURUJABETZEN ELKARGUNEA

- 3.1. Ondasun naturalen burujabetza
- 3.2. Energia-burujabetza
- 3.3. Tokiko elikadura-sistemen gaineko burujabetza
- 3.4. Emakumeen burujabetza eta autonomia
- 3.5. Komuna denaren antolamenduaren eta ezagupen askearen gaineko burujabetza

IV. LABORANTZA-ESKULIBURUA

- 4.1. Gure printzipioak
- 4.2. Gure tresnak
- 4.3. Prozesuen eta baliabideen garrantzia
- 4.4. Laborantza-fitxak

V. UDALERRIZ UDALERRI: ELIKADURA BURUJABETZARAKO BIDEAK LANTZEN. EUSKAL HERRIAN ERREFERENTE DIREN SEI ESPERIENTZIA

- 5.1. **Aramaio**. Aramaixo Baserri Berri, burujabetza elkarri loturiko hiru eremutan lantzen: elikadura, energia eta aisialdia eta turismoa
- 5.2. **Orduña**. Garapen-proiektu baten hamar urte, agroekologia eta elikadura-burujabetza ardatz
- 5.3. **Zeberio**. Nekazalgunea, bizimodu jasangarria, elikadura osasungarria eta inguru bizia sustatzeko nekazal garapenerako proiektu integrala
- 5.4. **Zerain**. Paisaia naturala eta kulturala
- 5.5. **Urola Garaia**. Bertatik Bertara. Merkaturatzetik ikuspegi estrategikoa duen planaren definizio kolektibora
- 5.6. **Sakana**. Tokiko garapen kolektiboko proiekturako oinarriak eraikitzen

AURKEZPENA

Nekazaritza iraunkorra elikadura burujabetzaren ardatza da, berreskuratze eta eraikuntza politiko, ekonomiko eta sozialaren oinarri ideologikoa delako. Elikadura burujabetzaren printzipioaren garapena, gure ustez, baserritarrak ardatz hartuko dituen da, desberdintasunetik berdintasunean (emakumeak eta gizonak), gizartean txertatuak, elikagai osasungarri, nutritibo eta kulturalki egokiak ekoizten, ekonomikoki ordainduak eta jende guztiaren eskura. Nekazaritza Iraunkorraren barruan txertatu dugu Agroekologiaren kontzeptua, eraldaketa prozesu gisa ulertua; eraldaketa pertsonal eta kolektiboa, teknika edo jardun ekologikoak erabiltzea baino urrunago doana.

Elikadura Burujabetza Euskal Herrian, herrialdea nekazaritzatik abiatuta eraikitze gure proposamen politikoa da. Mundu mailako erabaki eta akordioen ondorioak aurrez aurre jartzen dituen proposamena. Ukaezina da Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) eremuan hartutako erabakiek nekazaritza-politika guztietan eragin dutela eta eragiten ari direla zuzenean: tokikoetan, nazionaletan eta nazioartekoetan. Elikagaiak munduaren alde batetik bestera doaz, “dumpinga” erabiliz (ekoizpen-kostuetatik beherako prezioak) eta tokiko ekoizpenerako eragin suntsitzaileekin.

Merkataritza Libreko Itun gehiagoren negoziazio-prozesuen (TTIP, TAFTA, CETA...) aurka agertzeaz gain, aurkezten dugun dokumentuaren xedea da gakoak bilatzea eta ordenatzea Euskal Herriko udalerrietan tokiko politika publikoen eremuan Elikadura Burujabetza bultzatzeko eta garatzeko gaitasunak sendotzeko. Beraz, alderdien programa politiko bat baino urrunago doan gogoetarako eta ekintza politikorako tresna bat izan nahi du.

Ezin dugu sarrera hau amaitu BIZILUR eta EHNE BIZKAIA-rekin izandako lankidetzaz azpimarratu eta nabarmendu gabe. Helburu komunak lortzeko aliantza-politikei buruzko teorizazioek ere ereduak eta emaitza praktikoak behar izaten dituzte, eta ETXALDErentzat garrantzitsua da dokumentu hau parametro horietan balioestea.

ETXALDE Nekazaritza Iraunkorra.

Zertarako egin dugu gida hau?

Agiri hau Bizilurren, Etxalderen eta EHNE Bizkaiaren arteko lankidetzaren eta aliantzaren ondorioa da, eta Euskal Herriko udalerriei tokiko politika publikoen eremuan elikaduraburujabetza sustatzeko gakoak eskaintzeko eta gaitasuna indartzeko sortu da.

Hortaz, gogoeta eta ekintza politikorako tresna bihurtzea du xede proposamen honek; indarrean dauden ereduak buzurko eztabaidetan kritikoki parte hartzen duen tresna teoriko eta praktikoa bihurtzea alegia, eta hiru aldeko apustua egiten du ildo horretan: elikaduraburujabetzaren aldeko apustua, errealitatearen abiapuntu eta ikuspuntu izateko aukera gisa; politika publikoen aldeko apustua, espazioak eta proposamenak eztabaidatzeko tresna estrategiko gisa; eta ikaskuntza partekatuen aldeko apustua, definituriko helburuak elkarrekin lan eginez lortzeko formula gisa.

Hain zuzen ere, sakoneko krisialdian gaude, eta zer nolako gizartea, zer erakunde eta zer politika publiko nahi eta behar ditugun eztabaidatzen da gero eta sarriago; beraz, justizia, ongizatea eta jasangarritasuna ardatz izango dituzten aukeren ezarpena azpimarratzea gero eta beharrezkoagoa da. Horren ildotik, gaur egungo egoera krisialdi sistematiko gisa definitzera ausartzen gara; hots, gizartearen oinarri izan diren balioak (hazkunde kapitalista eta demokrazia formala) kolokan daude, eta nabarmena da, hainbat eragile eta espazioetan, sistema hau ez dela gai ez gizartearen gehiengoaren ongizatea sortzeko ez planetaren jasangarritasuna sortzeko. Izan ere, indarrean dagoen sistemak desberdintasun eta zapalkuntza ugari eragiteaz gain, sistema menderatzaileak behar ditu bizirauteko: patriarkatua eta kolonialismoa, kasu.

Horren ildotik, La Vía Campesina-ren inguruan antolatutako dagoen nazioarteko nekazarien mugimenduak makina bat urte daramatza sistema honen hutsak salatzen (elikagaien krisia, krisi klimatikoa, krisi soziala), eta huts horiek gainditzeko aukerak proposatzen. Eta hortxe, hain zuzen, kokatu behar dugu dokumentu hau: errealitate globalaren analisi kritiko batetik, indarrean dagoen ereduaren ordezkotako proposamenen konfrontaziotik eta ordezkotako prozesu eta ekimenak abian jartzetik abiatuta. Horrela bada, krisialdiaren aurrean desarrollismoa, pribatizazioa eta metaketa sakontzea proposatzen dutenen aurrean, gure iritziz, egungo egoera aukera bat da gure lurraldean proposamen eraldatzaileak, bideragarriak eta errealak egiteko.

Horrela, testu honen arrazoiak honako hauek dira: lehenik eta behin, bistan da elikadura burujabetzaren ikuspegia, aukera gisa agertzen dela gaur eguneko krisialdi eta eredu so-

ziaz, ekonomiko eta politikoa berraztertu beharreko egoera honetan, eta ez esparru analitiko eta teorikoan soilik, bereziki praktikan baizik. Beraz, ondo bizitzeko bestelako ereduak definitzeko ezinbesteko politika integraleko ikuspegia da.

Bigarren, lurraldeak eta tokian tokikoa jarduteko eremu estrategikoa dira gure ustez, aukera horiek elkarrekin eraikitzeko. Krisi egoera hau, gure aburuz, aukera ere bada publikoa esatean zer ulertzen dugun eta hortik hasita zer politika mota bultzatu nahi dugun birdefinitzeko. Beste erakunde batzuek –horietako batzuk testu honetan aipatuak– hasitako lanean eta garatutako proposamenetan aurrera egin behar dela uste dugu, eta horri, elikadura burujabetza tokiko politika publikoen eremuan txertatzeko bestelako ideiak gehitu behar zaizkio. Euskal Herrian badira erreferente diren esperientziak hainbat udalerriri eta eskualdetan, eta, sarritan, beste askok ez dute horren berri izaten. Ezagupen hori zabaltzea beharrezkoa zela irudituz gure zitzagun, eta hainbat udalekin dugun harremanaren ondorioz, gai honekiko interesa eta eskaera zegoela ikusi genuen.

Hirugarren eta azkenik, ez genuen agiri hau xede gisa sortu, aukera horiek elkarrekin lantzen jarraitzea ahalbidetuko zigun prozesu eta tresna gisa baizik. Hortaz, ez elikadura burujabetzaren ikuspegia ez testu honetan jasotzen diren proposamenak ez dira gauza itxi edo amaitutzat hartu behar. Dokumentu praktikoa egin nahi genuen, eztabaidatzeko eta sakontzeko aukera emango zuena, proposamen itxiak ez baizik eta aurrean ager litezkeen bideetako batzuk jasoko dituen tresna. Gure iritziz, elikadura burujabetzaren agenda garatzen inplikaturik dauden eragileen artean hasita dagoen eta jarraitu nahi dugun eztabaida eta lanerako prozesuaren oinarria izan nahi du dokumentu honek.

Orri hauetan jasotako ideia askoren inspirazio izan zireten pertsona eta erakunde guztiei eskerrona agertu nahi dizuegu, erakusten baitiguzue elikadura burujabetza herri eta hirietan aurrera doan zerbait dela, erronka eta eragozpenak gaindituz, baina batez ere, gero eta pertsona gehiagoren ilusioa piztuz eta bideari jarraitzea animatuz.

SARRERA

Nor gara?



Bizilur: Lankidetzarako eta herrien garapenerako erakunde:

Bizilur irabaz asmorik gabeko erakunde demokratiko bat da, eta Bizilurentzat sistema neoliberal eta patriarkala da Iparraldeko nahiz Hegoaldeko herrialdeetako pobreziaren eta ezberdintasunen arrazoia. Hortaz, erakunde honen helburua da dominazio-sistema horiei eta sortzen dituzten ondorio gaiztoei aurre egitea, sektore herritarrei –batez ere landa-guneetan ari direnei– garapen alternatiboko estrategiak sortzen lagunduz.



Etxalde: Etxalde-Nekazaritza Iraunkorra

mugimendua baseritarrek osatzen dute, eta nekazaritzari loturiko pertsonentzat zabalik dago. Xede nagusia nekazaritza-jardueraren bidez elikadura-burujabetza Euskal Herrian inplementatzea du. Elikadura-burujabetza garatzeko mugimendu sozial eta sindikalekin aliantza estrategikoak sustatu nahi ditu, bai tokian bertan bai nazioartean.



EHNE-Bizkaia: EHNE-Bizkaia (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)

neka-zarien sindikatua da, eta elikadura-burujabetza Euskal Herrian sustatzea du xede nagusi. Horretarako, hainbat arlo eta lan-eremu ditu; besteak beste, aholkularitza, formazioa, sektorean instalatzeko prozesuetan laguntzea eta Nekasarea kontsumo-taldeak sustatzea. La Vía Campesina-ko kide da.

Nola egin dugu gida hau?

Lehen aipatu dugun bezala, agiri honen xedea da elikadura-burujabetza tokiko politika publikoen eremuan txertatu nahi duten Euskal Herriko udalerriei gakoak ematea eta haien gaitasunak sendotzea. Beraz, udalerriek euren testuinguru eta errealitateetan inplementatu eta garatu ahal izateko tresna praktikoa izan nahi du.

Agiri honen erreferentziako marko teorikoa eta alderdirik aplikatuena sortzeko, honako hauek izan ditugu oinarri:

- a) Dokumentazioaren berrikuspena eta analisisa zentzu zabalean (liburuak, gidak/eskuliburuak, webguneak, bideoak...).
- b) Proposamen hau sortzen joateko, proiektuaren sustatzailleen (Bizilur, EHNE-Bizkaia eta Etxalde) arteko bilerak, alde batetik, eta funtsezkoak diren beste eragile batzuekin, bestetik: udalak eta Euskal Herriko elikadura-burujabetzaren aldeko mugimenduko beste erakunde eta pertsona batzuk.
- c) Bitariko helburua duen fitxa baten bidez, udal horietako



- a) batzuei buruzko informazio-bilketa: egiten ari diren ekimenak alde batetik, eta hautematen diren eskaerak eta beharrianak, bestetik.
- d) Tokiko ekimenak martxan jartzeko eta/edo politika publikoen eremuan gogoeta egiten eta lanean ari diren erreferente diren pertsonekin eta erakundeekin lan-saioak (administrazio publikoa, nekazarien mugimendua, GGKE, unibertsitatea, beste erakunde batzuk...).



Norentzat da gida hau?

Batik bat tokiko eremuko politika publikoen inguruan eragiteko eta erabakitze gaitasuna duten eragile publiko eta sozial guztientzat. Horren ildotik, eta politikoa zer den eta erkidegoa zer den ikuspuntu zabal horretatik, udaletako politikari eta teknikarientzat da, baina, ezinbestean, bai eta nekazarien eta elikadura-burujabetzaren aldeko mugimenduarentzat, administrazio publikoko beste maila batzuentzat eta gizarteko erakunde eta kolektibo guztientzat ere.

Erakunde eta pertsona horiek guztiak izan daitezke eta dira elikadura-burujabetzaren eta politika publikoen parte, eta espero dugu guztiek aurkitzea gida honetan ikuspegi alternatibo hori eraikitzeke egiten denari edo egin daitekeenari buruzko erreferentziarik.

Zer aurkituko dugu datozen orrialdeetan?

Laburbilduz, esan daiteke agiri honek bi atal nagusi dituela. Lehenengo atalak, I, II eta III puntuak hartzen dituenak, gure erreferentziako marko teorikoa garatzen du, hau da, errealtatea nola ikusten dugun, ordezeko politika publiko horiek garatzeko zer abiapuntu proposatzen dugun. Agiri honen edukia definitzean, garrantzitsua iruditu zitzaigun elikadura-burujabetzaren ikuspegiaren elementu nagusiak eta proposamen honetan lurraldeak duen garrantzia ulertzen lagunduko duten gako batzuk jasotzea. Elikadura-burujabetza marko integraltzat hartzea, tokitik bertatik hasita, bestelako bizimodu ereduak eraikitzeke, gure ustez burujabetzen elkargunea izenekoan zehazten da; hau da, burujabetza gutxienez bost eremu estrategikotan bultzatuko duten aukerak proposatu beharra: ondasun naturalak, energia, tokiko elikadura-sistemak, emakumeen autonomia eta eskubideak eta komuna denaren antolamendua eta ezagupena askea.

Bigarren atalean, IV. eta V. puntuak, agiriaren alderdirik praktikoa jasotzen da: identifikaturiko bost burujabetza eremuetako bakoitzerako proposamen zehatzak aurkeztuko ditugu. Horrela, Laborantza Eskuliburuak, elikadura-burujabetzaren ikuspegitik politikak ezartzeko edozein udalerrik kontuan hartu beharreko printzipio eta tresnak identifikatzeaz gain, honako alderdi hauei ere erantzuten die: identifikaturiko burujabetza-eremu bakoitzean lortu nahi ditugun helburuak zein diren; horretarako zer ekintza edo proposamen gauzatu behar ditugun, eta abian direnetatik zer ekimen har dezakegun erreferentziatzat. Udalerriz udalerriz esperientziak eta ezagupena sustatzeko asmo horrekin ixten dugu atala, eta gure ustez erreferente diren sei esperientzia (lau udalerriz eta bi eskualde) laburbilduko ditugu: Aramaio, Urduña, Zeberio, Zerain, Sakana eta Urola-Garaia.

Amaitzeko, jorratutako gaiei buruzko hainbat erreferentzia bibliografiko eta bideo grafiko, webguneetarako estekak eta Interneten eskura daitekeen dokumentazioa etab. txertatu ditugu dokumentuan zehar, informazio gehiago nahi duenarentzat.

I. I. ELIKADURA BURUJABETZA: IKUSPUNTU INTEGRALA, IREKIA ETA ALTERNATIBOIA

1.1. Elikadura burujabetzaren definizioa

Elikadura burujabetza ikuspegi politikoa da, herriak euren elikadura-sistema definitzeko duten eskubidea du oinarri, eta merkatuaren zentralitatea, bizitzaren pribatizazio eta desberdintasunen orokortzea oinarri dituen eredu bakarrari egiten dio aurre; ikuspegi horrek bizitza eta elikadura gune-gunean ipintzea, eta denon artean apustu horri erantzungo dioten eredu sozial eta ekonomikoak eraikitzea proposatzen du.

Elikadura burujabetza elikadura eskubide gisa –eta ez salgai gisa– defenditzen duen proposamen politikoa da, eta eredu agroindustrialari aurre egin eta haren ordezkoi aukerak proposatzen ditu. “Irautza Berdea”¹ izendaturikotik abiatutako eredu horrek nekazaritza eta elikagaiak negozio bihurtu nahi izan ditu, eta horretarako, ekoizpenerako eta elikagaien banaketarako kate handiak sortu ditu, guztiak enpresa transnazional handien eskura; ekoizpen intentsiboa eta monolaborantza bultzatu dira eta, ondorioz, enpresa horiek horretarako bereganatu dituzte ia lur guztiak; ekoizpenaren intentsifikazioarekin batera teknifikazioa etorri da, energia-erabilpen handiagoa eta hondakin gehiagoren sorrera, klima-aldaketari beraz lagunduz; genetikoki eraldatuak izan diren organismoak sartu dira, eta horrek, besteak beste, hainbat haziren eta dibertsitatearen galera ekarri ditu, bai eta osasunerako kalteak ere, nahiz eta oraindik denak ez diren eza gutzen; erkidego asko euren lurretatik mugiarazi dituzte enpresa horien interesen arabera, eta haien oinarritzko eskubideetako asko urratu dizkiete, ipar eta hego globalaren arteko desberdintasunak eta emakumeen eta gizonen artekoak areagotu egin dira, eta hemen eta han, nekazari txikiak eta familiako nekazaritza desagerraraztea bultzatu dute. Eta hala eta guztiz ere edo, hobe esanda, horregatik guztiagatik, FAOren azkeneko txostenaren arabera, 805 milioi lagunek gose kronikoa pairatzen dute, eta egoera horrek bereziki eragiten die emakume eta haurrei², eta landa-guneetako biztanleei³. Beraz, eredu agroindustrial elikagaietara heltzea bermatzen ez duen eta ekologian, kliman, elikaduran, gizartean eta ekonomian urrakortasuna eragiten duen eredu da⁴.

Horren aurrean, eta elikadura burujabetza zer den definitzeko, La Vía Campesina-k, Nyeleniko Deklarazioan esandakoa (2007) jasotzea erabaki dugu:

“Elikadura burujabetza herriek elikagai nutritiboak eta kulturalki egokiak izateko duten eskubidea da; edonorentzat eskuragarriak, eredu iraunkorrean eta ekologikoki ekoiztuak diren elikagaiak, **herriak berak elikapen zein ekoizpen-eredua erabakitzekeo eskubidea bermatzen duena**. Horrek, **elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituztenak elikadura-politiken eta sistemen erdigunean jartzen** ditu, merkatuaren eta enpresen eskakizunen gainetik. **Etorkizuneko belaunaldien interesak** defenditzen ditu, eta haiek hartzen ditu kontuan. Egungo

1. “FAOren asmo batek bultzatuta, 60.eko hamarkadan eta 70.eko hamarkadaren hasieran, Hirugarren Munduko hainbat herrialdeetan gertatu zen ekoizpen handiko hazien nekazaritza-tekniken garapen eta hedatze-prozesua. Mugimendu hori 1963an hasi zen; urte hartan, Elikadurari buruzko Munduko Kongresu baten ondorioz, mundu mailako nekazaritza-garapenerako plan bat bultzatzea erabaki zuen FAOk (World Plan for Agricultural Development). Munduko biztanleen kopurua hazteak eragindako elikagaien behar gero eta handiagoa izan zen nekazaritzako ekoizpena handitzea bilatzeko justifikazioa, eta, besteak beste, Ford eta Rockefeller fundazioen laguntza jaso zuen. Hori lortzeko, “errendimendu handiko barietateetako” haziak garatzen hasi ziren (HYV, ingeleseko siglengatik), batez ere garia, artoa eta arzoa (...). Hegoa hiztegia, <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrat/192>.

2. El Estado de la Inseguridad Alimentaria en el Mundo 2014, FAO, Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea, hemen eskuragarri: <http://www.fao.org/publications/sofi/2014/es/>

3. “Landa-eremuetako pobreetako asko, iraupeneko ekoizleak, familia-nekazariak edo lurrik gabeko nekazariak. Horiei gehitu behar zaizkie arrantzaleak, artzainak eta basoan bizi diren biztanleak, ekoizpen-bitartekoetarako irispide mugatuarekin”, (informazioaren iturria, <http://www.fao.org/about/what-we-do/so3/es/>).

4. “Soberanía alimentaria”, Fernández, Gonzalo, en Diccionario crítico de empresas transnacionales, Hernández, González y Ramiro (2012).



merkataritza libre eta korporatiboari eta elikadura-araubideari aurre ekiteko eta hura desagiteko estrategia eskaintzen digu; bai eta elikagaien, nekazaritzaren, artzaintzaren eta arrantzaren sistemak bideratzeko eta tokian tokiko ekoizleek kudeatu ahal izateko ere. Ekonomia-burujabetzak **tokiko ekonomiak** eta **tokiko merkatuak eta nazionalak** lehenesten ditu, eta **nekazariei eta nekazaritza familiarrari**, ohiko arrantzari eta betiko artzaintzari **ematen die boterea**; elikagaien ekoizpena, banaketa eta kontsumoa ingurumen jasangarritasunaren, jasangarritasun sozial eta ekonomikoaren oinarrian jartzen du. Elikadura burujabetzak merkataritza gardena bultzatzen du, herri guztientzat diru-sarrera duinak eta kontsumitzaileek euren elikadura eta nutrizioa kontrolatzeko duten eskubidea bermatzen dituen merkataritza, alegia. Gure lurak, gure lurraldea, gure ura, gure haziak, gure abereak eta bioaniztasuna **kudeatzeko eta horietara iristeko eskubidea** elikagaiak ekoizten ditugunon eskura egon dadin bermatzen du. Elikadura burujabetzak harreman sozial berriak ekartzen ditu, **zabalkuntzarik gabeko harremanak** eta gizonen eta emakumeen, herrien, jatorri desberdinen, klase sozialen eta belaunaldien arteko **desberdintasunik gabeko harreman berriak**”.

1.2. Elikadura burujabetzaren ikuspegia ulertzeko gakoak

Definizio zabal eta aberats horri esker ikus dezakegu elikadura burujabetzaren ikuspuntutik elikadura funtsezko eskubide gisa defenditzen dela, eta ez salgai huts gisa. Ondasun guztien merkantilizazio eta pribatizazioa; bioaniztasunaren suntsiketa eta naturaren espoliazioa; mugarik gabeko hazkunde eta kontsumismo eredu ezartzea; pertsonen eta herrien arteko desberdintasunean oinarrituriko gizarte-eredua eraikitzea ezaugarri dituen eredu hegemonikoaren aurrean, elikadura eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomiak erdigunean jarriko dituzten eta jasangarritasun ekologikoa, ekonomikoa eta soziala bermatuko duten ordezkari aukerak erabaki eta eraikitzeko herriek duten eskubidea errebendikatzen du elikadura burujabetzak.

Horrela, ikuspuntu hori ulertzeko funtsezkoak diren hiru gako identifika ditzakegu:

- **1. gakoa.** Elikadura burujabetzaren oinarria **erabakitze eskubidea** da, herriek euren elikadura-sistema definitzeko eta euren iritziz egokiak diren politikak garatzeko gaitasuna, zer eta *nola* ekoiztu, zer eta *nola* banatu, zer eta *nola* kontsumitu zehazteko... Beraz, herriak subjektu burujabe definitzen ditu, aukera horiek eraikitzeko ahalmena duten subjektu gisa. Merkatuei, enpresa handiei, nazioarteko erakundeei edo estatuei eta euren interes geopolitikoari ematen dieten zentralitatearen aurrean, herriek eta pertsonak euren testuinguru eta errealitateari egokiturik dauden eta xede nagusi gisa ongizatea eta ez ahalik eta etekin handiena lortzea duten ordezkari aukera sozialak, ekonomikoak eta politikoak eraikitzeko duten autonomia errebendikatzen du elikadura burujabetzak. Horrela, definizio horretan **Burujabetza** kontzeptuak duen zentralitatea berreskuratzen dugu.
- **2. gakoa.** Elikadura burujabetza nazioarteko **nekazarien mugimendutik** datorren ikuspegia da. Ez da eremu akademikotik ez erakunde instituzionaletatik edo administratibotatik garatzen. Nekazariengandik euren gaitasunak sortu eta eraikitzen da. Horrek esan nahi du ekintzarako eta praktikarako proposamen politikoa dela; ahalduz eta ezagupen kritikoaren sorkuntza-prozesuen sustapenean oinarritzen dela, eta aukera horien eraikuntza kolektibo eta herritarraren alde egiten duela.
- **3. gakoa.** Elikadura burujabetza eredu alternatiboaren eraikuntza bi pilaretan oinarritzen du: **nekazaritzan oinarrituriko ekonomien** eta haiei atxikirik ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistemen defentsa; eta **agroekologia**, aukera horien eraikuntza definitu behar duen ikuspegi gisa, bai alderdi teknikoenetik bai alderdi sozioekonomiko eta politikotik.



Bigarren alderdiari dagokionez, agroekologiak "nekazaritza-prozesua ingurumeneko alderdiek, alderdi ekonomiko, sozial eta kulturelek osaturiko sistema gisa ikusten du; eta haren xedea osagaietako baten produktibitatea handitzea ez ezik, sistema bere osotasunean optimizatzea eta sostengagarritasunari denboran eta espazioan eustea da" (Alteri, et al, 2000). Hortaz, elikagaien ekoizpena aztertzeaz gain, begirada zabaldu behar da, eta horiek sortzen diren errealitatearen elementu nagusiak txertatzen dira, jasangarritasuna ardatz. Agroekologia honela defini daiteke: "baliabide naturalen maneiu ekologikoa, baliabide horien maneiu industrialaren egungo ereduaren aurrean aukerak aurkezten dituzten ekintza sozialen bidez, potentzial endogenotik sortutako proposamenak abiapuntu hartuta eta ekoizpenaren eta produktuen aukerako zirkulazioaren eremuetatik bestelako garapena lortu nahi dutenak. Guztia, krisialdi ekologiko eta sozialari aurre egiten lagunduko duten ekoizpen eta kontsumo erak ezarri ahal izateko, eta horrela, neoliberalismoari eta globalizazio ekonomikoari aurre egin ahal izateko." (Sevilla Guzmán, 2006).

Hortaz, diziplina anitzeko ikuspegia da, jasangarritasunaren hiru dimentsio erakusten dizkiguna: ekologikoa (ezagupen tradizionalak, sistema integratu eta anitzak, ekoizpen estentsiboa, teknika ekologikoak, ondasun naturalen maneiu sostengagarria, energia eraginkortasuna eta kontsumo baxua, etab.); sozioekonomikoa ("nekazaritza eta elikagaigintzako tokiko sistemak", banaketa-sistema bidezkoak, tokikoak sustatuta, ekoizle eta kontsumitzaileak atxikita, etab.); eta dimentsio sozio-politikoa

(ekoizpen hori gertatzen deneko botere-harremanak aldatzeko premia eta desberdintasunei –generoa, adina, ipar-hegoa, klasea,– aurre egitea azpimarratzen dituen, aukera horien erakuntza kolektiboa bultzatuz)⁵.

La Vía Campesinak⁶ argi eta garbi zehazten du agroekologiaren eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomien arteko lotura, erabil daitezkeen termino desberdinak eta saritan teorikoagoak diren eztabaidak alde batera utzita. Horrela, "nekazaritza jasangarria nekazaritzako metodo tradizionalen aurkikuntzaren eta birbalorizazioaren eta praktika ekologiko berrien berrikuntzaren arteko konbinazioa da ... (...) Printzipio horiek nekazaritzaren errealitate desberdinetara aplikatzeak nekazariak bereak dituen ekoizpen-sistemez aktiboki jabetzea eskatzen du, eta tokiko eza-gupenera, asmamenera eta berritzeko gaitasunera egokitzea. Finka txiki xamarrez ari gara, nekazari-familiek edo erkidegoek gobernatzen dituztenak. Finka txikiak bioaniztasun funtzionala garatzea ahalbidetzen dute, ekoizpen dibertsifikatuak maneiatuz, eta laboreak, zuhaitzak eta animaliak txertatuz. Nekazaritza mota horretan ez da behar kanpoko sargairik, edo gutxiago behar dira; gehiena finkan bertan ekoiztu daitekeelako."

Etxalde mugimenduarentzat⁷ nekazaritza iraunkorra da elikadura burujabetzaren oinarria. Nekazaritza iraunkorraren definizioa ondorengo ardatz hauetan oinarrituta dago: baserriarren *autonomia* eta *transmisibilitatea*, hurrengo belaunaldiei baserriaren katean irauteko aukera emanez; *produktzioaren banaketa*, baserriar guztiek ekoizteko duten eskubidea defendatuz, pro-

dukzio banaketa orekatu baten bidez; *naturarekin bat lan eginez*, natura errespetatuz ekoizten duen eredu bat sustatuz; *kalitatezko produktua*, zuzen-zuzen lotuta produzitzeko eta eraldatzeko ereduai, eta kontsumitzaileari ahalik eta gardentasunik handiena bermatuz; *tokiko garapena*, baserriar produkzio eredu bizirik dauden herri eta ingurune mantentzearekin lotuz; eta bertoko *kontsumorako ekoizpena*, bertoko merkaturako ekoiztuz gero (kalitatea eta kopurua zainduta) garapena orekatuagoa lortuko bait da.

Hau da, nekazaritzako ekonomiak, neurri txikiagoko ekoizpen-sistemak dira, tokikoak, anitzak, hurbileko banaketa- eta merkaturatze-sistemetan oinarrituak, eta kooperazioa eta autokudeaketa gisako balioak lehenesten dituztenak; eredu agroekologikoaren dimentsio guztiak garatzeko gaitasun eta potentzialtasun handiena dutenak dira⁸. Beraz, elkarri lotuta ulertu behar diren bi elementu eta elikadura burujabetzaren proposamenerako ezinbestekoak direla esan daiteke.

Gure ustez, hiru gako horiek garrantzitsuak dira agiri honetan jaso dugun tokian tokitik abiatuta proposamen alternatiboen erai-kuntzarako marko gisa; izan ere:

- Burujabetzaren defentsatik eta erabakitze eskubidetik abiapuntu bat eskaintzen digute, *zergatik* bat.
- Nork horrek duen garrantzia agerrarazten digute, eta baserri-tarren, kontsumitzaileen, pertsonen eta herrien parte-hartze ahaldunduari funtsezko garrantzia ematen zaio.
- Eta *zer* eta *nola* horiek bideratzen laguntzen digu, eta garapena mugarik gabeko ekoizpen eta hazkunde ekonomiko gisa ulertu beharrean, ekologiaren, gizartearen, ekonomiaren eta politikaren ikuspuntutik jasagarriak diren ereduaren eraikuntzaren aldeko apustua egiten da.


5. Kontsultaturiko erreferentziak: *Agroecología. Teoría y práctica para una agricultura sustentable*, Miguel Altieri y Clara Nicholls, hemen eskuragarri: <http://www.ambiente.gov.ar/infoteca/descargas/altieri01.pdf>; *Agroecología y soberanía alimentaria*, Cristina Enea, hemen eskuragarri: <http://www.cristinaenea.org/haziera/pagina.php?queidioma=1&pg=117>; *Agroecología y soberanía alimentaria: alternativas a la globalización agroalimentaria*, Sevilla Guzmán, hemen eskuragarri: <http://institucional.us.es/compromiso/libreconf/docs/agroecologia.pdf>; *Atributos agroecológicos de sustentabilidad: manejo comparativo indígena y convencional*, Roger Martínez, hemen eskuragarri: <http://www.cristinaenea.org/haziera/dokumentuak/14%20Manejo%20ind%20C3%ADgena%20e%20industrial.pdf>; *La Vía Campesina y Agroecología*, Peter M. Rosset y María Elena Martínez-Torres, hemen eskuragarri: <http://viacampesina.org/downloads/pdf/openbooks/ES-09.pdf>.

6. *El libro abierto de La Vía Campesina, celebrando 20 años de luchas y esperanza*, hemen eskuragarri: <http://www.viacampesina.org/es/index.php/acciones-y-eventos-mainmenu-26/17-de-abril-dde-la-lucha-campesina-mainmenu-33/49-uncategorized/articles/1732-el-libro-abierto-de-la-via-campesina-celebrando-20-anos-de-luchas-y-esperanza>

7. TTIP-TAFTAren aurrean Nekazaritza iraunkorra eta elikadura burujabetzaren garaia da, hemen eskuragarri: <https://drive.google.com/file/d/0B3nyLyf2hTxiSG56WmZKWGNZc2c/view?pli=1>

8. "Nekazaritza-ekonomia autonomia ekologiko, ekonomiko eta kulturala ezaugarri dituen eredu dela esan daiteke; tokiko baliabideetara iristeko eta horiek aprobetxatzeko berdinkidetasunera jotzen duena; ekoizpen maila altua duena, bertako kideen oinarritzko premiak asetzeko lain; ekonomia ez-moneterarioa da eta ez dago etekinetera bideratuta, ugalketara baizik; eta ez da ekonomia predatzailea eta ez ditu pertsonak ustiatzen". David Gallar, *Revista Soberanía alimentaria, biodiversidad y culturas*, 12. zk, 2013ko otsaila.

ELIKADURA BURUJABETZA



1.3. Elikadura burujabetza: ikuspuntu integrala, irekia eta alternatiboa

Definizio horretatik eta aurkezturiko gakoetatik abiatuta, atalari amaiera emateko, elikadura burujabetzari buruz proposatzen dugun ikuspegia **ikuspegi integral, ireki eta alternatibo** gisa irudikatu nahi genuke.

Integrala, lehen esan dugun bezala, elikagaiak salgai hutsaren ordeztuntze eskubide gisa defenditzetik hasita, gainerako eremu sozial eta ekonomikoetan gertatzen diren harreman eta dinamikei modu kritikoan ekiten dien ikuspegia delako. Kontua ez da “jaten duguna eraldatzea” soilik, horrek dakarren guztiarekin; elikagaien ekoizpen eta kontsumo hori gertatzen den errealtatea bera eraldatzea baizik. Gainera, elikadura-burujabetzak eraldaketa horiek hainbat mailatan gertatzea proposatzen du: gure gizarteak egituratzen diren balio edo printzipioak, antolakuntza moduak eraikitze erak, arlo publikoa eta politika eta araudi zehatzak, eta mikroenean ere aukerako ekimenetarako proposamenak.

Irekia, eraikitzen ari garen ikuspegia delako, bestelako proposamen politiko batzuekin mintzo delako eta haiengandik jasotakoa txertatzen duelako, hala nola, ekonomia feminista,

ekofeminismoa, ekonomia sozial eta solidarioa, ekonomia ekologikoa, desazkundera, ongizate komunaren edo *Ondo Bizitzearen* ekonomia. Elikadura burujabetzaren proposamen politikoak, ikuspegi solidoa den arren, ez da planteatu ikuspegi itxi eta baztertzaila gisa, eta horregatik joan da ikuspegi politiko horietatik ekarpenak jasotzen, bai eduki teorikoei bai eduki praktikoei dagokienez. Ez dago errezeta itxirik, beste batzuekin batera definitzen ari garen bideak bai, ordea.

Eta **alternatiboa**; izan ere, pobrezia, bazterkeria, planetaren mugak gainditzea, desberdintasuna eragiten dituen eredu hegemoniko baten aurrean, ikuspegi honek horren ordeztuntze sozial eta ekonomikoa proposatzen duelako, jasangarritasun ekologiko, ekonomiko eta sozialean oinarritzen den eredu. Elikadura burujabetzak merkatuak eta metaketa deszentratzea eta bestelako ereduak eraikitzea proposatzen du, bizitzaren jasangarritasuna –dimentsio guztiak kontuan hartuta– helburu izango duena. Gainera, egiteko beste modurik ez dagoelako ideiarenean, elikadura burujabetzaren ikuspegiak aukera askatzaileak eraikitzea posible dela defenditzen du.

Elikadura burujabetzari buruz gehiago:

El libro abierto de La Vía Campesina. Celebrando 20 años de luchas y esperanza. Hemen eskuragarri: <http://www.viacampesina.org/es/index.php/acciones-y-eventos-mainmenu-26/17-de-abril-dde-la-lucha-campesina-mainmenu-33/49-uncategorized/articulos/1732-el-libro-abierto-de-la-via-campesina-celebrando-20-anos-de-luchas-y-esperanza>

Documentos políticos de La Vía Campesina, Mozambiqueko 5. Konferentzia, hemen eskuragarri: <http://viacampesina.org/es/index.php/publicaciones-mainmenu-30/943-documentos-politicoslvc>

La Vía Campesinaren Nazioarteko VI. Konferentziaren txostena, Jakarta, hemen eskuragarri: <http://viacampesina.org/es/index.php/publicaciones-mainmenu-30/2077-hidup-petani-hidup-informe-de-la-vi-conferencia-internacional-de-la-via-campesina>

EHNE, La Vía Campesina. Las luchas del campesinado en el mundo, hemen eskuragarri: <http://issuu.com/baserribizia/docs/viacas>

Veterinarios sin Fronteras, Una injusticia llamada PAC, hemen eskuragarri: http://cdr.mprieto.com/index2.php?option=com_docman&task=doc_view&gid=8&Itemid=12

Elikadura burujabetza munduan eta Euskal Herrian, Etxalde, hemen eskuragarri: http://www.baserribizia.info/index.php/multimedia/documentos/doc_details/216-etxalde-elikadura-burujabetza-munduan-eta-euskal-herrian

TTIP-TAFTAren aurrean Nekazaritza iraunkorra eta elikadura burujabetzaren garaia da, hemen eskuragarri: <https://drive.google.com/file/d/0B3nyLyf2hTxISG56WmZKWGNZc2c/view?pli=1>

Baserri Bizia. Elikadura Burujabetza lantzen aldizkaria, hemen eskuragarri: <http://www.baserribizia.info/index.php>

Etxalde. Nekazaritza iraunkorra aldizkaria, hemen eskuragarri: <http://www.elikaherria.eus/portfolio-types/etxalde-2/>

Soberanía alimentaria. Biodiversidad y culturas aldizkaria, hemen eskuragarri: <http://www.soberaniaalimentaria.info/>

(Bideoa) *La lucha de La Vía Campesina,* hemen eskuragarri: <http://tv.viacampesina.org/La-Via-Campesina-en-movimiento?lang=es>



1. OHARRA

BESTELAKO IKUSPEGI POLITIKO ALTERNATIBO- EKIKO TOPAKETEI ETA SINERGIEI BURUZ

Aipatu dugun bezala, elikadura burujabetza bestelako proposamen politiko batzuekin mintzo da eta haiengandik jasotakoa txertatzen du, hala nola, ekonomia feminista, ekofeminismoa, ekonomia sozial eta solidarioa, ekonomia ekologikoa, desazkundera, ongizate komunaren edo Ondo Bizitzearen ekonomia. Gure ustez, lehentasunezkoa eta premiazkoa da une honetan aliantzak eraikitzea eta agendak kutsatzea. Praktikan honela gauzatzen ari da: elikadura burujabetza, edo haren proposamenetako asko, mugimendu edo erakunde sozialen agendari edo errebindikazioei atxikitzen ari zaizkie, bai eta nekazarien mugimendua erakunde feministekin, indigenekin, hirietako erakundeekin, desazkunderaren aldekoekin aspaldidanik erakitzen ari den elkarrizketa eta aliantzarako espazioetan ere.

Ezin gara gelditu paradigma alternatibo horietako bakoitzak zer proposatzen duen zehazten. Bai esan dezakegu, aldiz, egunerokoan, esperientzietan, pertsonen bizimoduan uztarturiko ikuspuntuak partekatzen dituztela denek. Ez dira errealitatek isolaturiko kontzeptu teorikoak, errealitatea aldatzeko asmoz sortuak dira, duintasuna eta justizia soziala xede. Horietako bakoitzak begirada kritikoa ematen dio egungo eredu ekonomiko kapitalista eta patriarkalari, eta azterketa honetako elementuetako batzuek nabarmendu eta horiei buruzko proposamena egiten du. Baina uste dugu, orokortasunera jotzeko arriskuan egon arren, guztien arteko sinergiak eta topaguneak identifika ditzakegula.

- **Alderdi ekonomikoaz jabetu eta beste esan nahi bat eman** behar zaio, ikuspegiak zabalduz, dimentsio berriak txertatuz, merkatu kapitalistak, hazkundera eta etekin ekonomikoa, eta mugarik gabeko kontsumismoak helburu izan behar ote duten kolokan jarri; eta gaiaren gune-gunean **bizitzaren jasangarritasuna** jarri, gizakion bizitza ez ezik naturarena eta gainerako izaki bizidunena ere.
- **Ordezko aukera horien eraikuntza kolektiboari eta parte-hartzeari** emandako garrantzia. Demokrazia liberal ordezkatzailerako oso formatu estu eta mugatua da, egile feminista batzuek proposatzen duten bezala, bizitza merezi duten bizitzak definitzeak dakarren erronkarako.⁹ Beraz, funtsezkoa da pentsatzea nola eraikiko ditugun eredu horiek parte-hartze zabal eta kalitatekoan oinarrituta, aniztasuna bermatuta, eta horretarako eta komuna dena antolatze behar ditugun prozesu eta espazioez homi-

tuta. Zer egin nahi dugun soilik ez, *nola* eta *noren artean* egingo dugun ere oso garrantzitsua da.

- Hirugarrenik, individualismo kapitalistaren defentsaren aurrean, **erkidegoari, harremanen alderdiari**, individualaren eta kolektiboaren arteko beharrezko loturari ematen zaion garrantzia. Bitariko zentzuan, behinik behin: alde batetik, abiapuntutzat "pertsonala politikoa da" hartzen da, hau da, gure bizitzan norbanako gisa hartzen ditugun erabakiek eragin politikoa dutela; beraz, utopiek, proiektu politiko eraldatzaileak ere pertsonen balioen, aldaketan eta portaeren aldaketatik etorriko dira, ezinbestean, eta bestetik, eutsi nahi dugun bizitza hori garatzeko espazioa erkidegoa da, hau





da, harremanetan oinarrituriko bizitza, urrakorra, zaintzea behar duena, eta ondorioz, berdintasuna, justizia, elkartasuna, interdependentzia, elkarrekikotasuna gisako balioetan oinarrituriko harreman sozial berriak eraiki behar diren garrantzia.

Ikuspegi alternatibo horien egituraketa eraikuntza bidean dago, eta hainbat mugimendu sozialen jardunean eta agendetan gertatzen ari da, batik bat. Pentsamendu bakarraren ideien aurrean, badira aukerak, eta gure ustez kontuan hartu ahal eta behar dira eraldatzeko borondatea duten administrazio publikoentzako ikuspegi edo marko gisa.

Hainbat erreferentzia...

Ekonomia solidarioa eta ekonomia feminista: agenda baterako elementuak, Miriam Nobre, hemen eskuragarri: <http://www.economiasolidaria.org/files/Papeles%2004%20eus.pdf>

Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida, Amaia Pérez Orozco, hemen eskuragarri: http://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/map40_subversion_feminista.pdf

Gutxiagorekin ongi bizitzea. Justizia-irizpideekin muga fisikoetara doitzea. Yayo Herrero, Manu Robles-Arangiz Institutua, hemen eskuragarri: <http://www.mrafundazioa.eus/eu/dokumentazio-zentrua/ingurumena/gutxiagorekin-ongi-bizi>

Diálogos sobre Economía Social y Solidaria en Ecuador: Encuentros y desencuentros con las propuestas para otra economía, Yolanda Jubeto et al, Hegoa, hemen eskuragarri: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/318>

Cooperación internacional y movimientos sociales emancipadores: bases para un encuentro necesario, "Capítulo 1, Movimientos sociales como sujetos estratégicos de emancipación", Fernández, Ramiro y Piris, Hegoa, hemen eskuragarri: <http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/registros/19540>

Privatizando Europa. La crisis como tapadera para consolidar el neoliberalismo, TNI, hemen eskuragarri: http://www.tni.org/sites/www.tni.org/files/download/privatising_europe-es.pdf

El procomún y los bienes comunes, Dossier Economistas sin Fronteras 16. zk., hemen eskuragarri: <http://ecosfron.org/ecosfron/wp-content/uploads/DOSSIERES-EsF-16-El-procom%C3%BAn-y-los-bienes-comunes.pdf>

(Bideoa) *Agronautas (nekazaritza, energia eta ekologia, arkitektura eta teknologia, politika eta gizarte)*, hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=0lwK-odnN1k>

9. *De vidas vivibles y producción imposible*, Amaia Pérez Orozco, hemen eskuragarri: <http://www.decrecimiento.info/2012/02/de-vidas-vivibles-y-produccion.html>

II. LURRALDEA ETA TOKIKOA.

ELIKADURA-BURUJABETZARAKO EREMU ESTRATEGIKOAK



2.1. Zergatik da lurraldea elikadura-burujabetzarako eremu estrategikoa?

Hainbat definizio aurki ditzakegu "lurraldea" zer den ulertzeko, eta gainera, ikuspuntu askotatik erabiltzen den hitza ere bada. Hala ere, agiri honetan, lurraldea bizi garen planetaren zati hori dela ulertzen dugu: aldi berean, paisaia, ekosistema eta bertan bizi diren talde sozialak diren espazio hori. Finean, gure proposamenaren ardatza den burujabetza gauzatzeko leku fisikoa.

Beraz, lurraldeari buruz ikuspegi integral batetik hitz egitean honako alderdi hauek hartzen ditu: alderdi ekonomikoa, lurraldea baliabideen iturri gisa; harremanei eta boterearen jardunari dagokien alderdia; ingurumenari dagokiona, gizakion eta naturaren arteko harremana; eta alderdi kultural eta sinbolikoa, lurraldea identitate horren funtsezko erreferente ere badelako¹⁰. Ikuspegi horretatik, lurraldea estrategikoa da elikadura burujabetzak proposatzen duen ordezkari aukera hori praktikan jartzeko eta eraikitzeko, aurreko atalean aurkeztu ditugun dimentsio eta gako guztiak gauzatzeko eta errealitate bihurtzeko.

Hainbat arrazoi ditugu baieztapen hori egiteko. Lehenago aipatu dugun bezala, elikadura burujabetzak gizarte-antolamenduaren eraldaketa integrala proposatzen du, ezinbestean lurraldeari eta pertsonen bizitzari loturiko eraldaketa. Elikadura burujabetzarako lurra, lurraldea, tokikoa funtsezkoa da **bizi-alternatibak** abian jarri eta **eraikuntza kolektiborako** eremu estrategiko gisa.

Elikadura burujabetzaren oinarri diren hiru gakoak gogoratu (erabakitze eskubidea, eraikuntza kolektiboa eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomiak eta agroekologia), honako hau esan daiteke tokiko eremuari buruz:

- Bestelako erabaki-esparru batzuetako lege eta araudien mende egon arren, erkidegoek **autonomiarik handiena** duten eremua da.
- Eta eremu estrategikoa da lurrari, nekazarien bizimoduari, hurbiltasunari loturiko eta ekologikoki, sozialki, politikoki eta ekonomikoki sostengagarriak diren nekazaritza eta elikagaigintza sistema horiek, zeinetan funtsezkoa den ekoizten dutenen eta kontsumitzen dutenen arteko lotura eta erantzukizunikidetzak, **birkokatze** eta garatzeko.
- Ikuspegi politiko hori **proiektu konkretuetan** gauzatzea ahalbidetzen du, zeinak gertatzen diren testuinguru eta errealitateetan *bertan* eta *haietarako* sortzen diren.
- Gure ustez, espazio horretan ulertzen da hoberen pertsonen ongizatea eta zorientasuna ez dagoela zuzenean lotuta makro gisako hazkunde ekonomikoko adierazleei; aitzitik, **zentzu zabaleko ondo bizitze** horrekin du zerikusia, gaitasunekin, askatasunarekin, autonomiarekin, denborarekin... eta oinarritzko alderdi horiei gure proiektuen definizioan txertatzea errazten du.
- Alternatibean **eraikuntza kolektiboa** ahalbidetzen du, parte-hartzeko prozesu hurbilak diseinatzea eta abian jarzea.
- Eta harremanen eremuak eta **erkidegoarenak** proposamen horien eraikuntzan duten garrantzia ikustea ahalbidetzen du.

¹⁰. Iturria : http://www.viacampesina.org/downloads/pdf/sp/Cartilla_Tierra_y_Territorio_CLOC_VC_Paraguay.pdf



Tokiko elikadura burujabetzaren ikuspegitik politikak sustatu nahi dituzten administrazioentzat tresna izan nahi du testu honek. Argitu behar dugu guk tokikoa esatean ez dugula lokalista edo erredukzionista esan nahi, baizik eta **globalarekiko** elkarreragin eta harremanean beti. Ezin ditugu gure hurbileko testuinguru eta errealtateak aztertu egiturazko arrazoi globalek haiei nola eragiten dieten ulertu gabe. Hainbat desberdintasunen eragilea den eredu hegemonikoaren azterketari zein haren aurreko aukerei dagokienez, gure proposamenen abiapuntua elkarrekiko dependentzia horretan dago. La Vía Campesina, berez, adibide bikaina da tokikoa/globala egituraketa-proposamen hori ulertzeko.

2.2. Elikadura burujabetza proiektu kolektibo eraldatzaile izateko bestelako *politika publiko posible* batzuk

Beraz, lurraldea eta tokikoa dira proiektu kolektibo eraldatzaile horiek garatzeko espazioa. Lurraldea liskarrean den eremua ere bada, eta bertan hainbat proposamen eta eragile, interes eta ikuspegi ugari aurki ditzakegu. Eta hor ere aurkituko ditugu eremu publikoaren kudeaketa edo politika publikoak, zeinetara bideratuta dagoen dokumentu hau. Eremu publikoa ulertzeko beste modu baten aldeko apustua, ondasun erkidetik hurbilago eta bizitzaren, eskubideen, ondasun naturalen pribatizazio hazkorretik urrunago dagoena... Eremu publikoa **kolektiboki jabetzan hartzeko espazio gisa**, eta politika publikoak eraldaketa bultzatzen **tresna** gisa; jakina horiek ez direla bizimodua antolatze bide posible bakarrak, baina, gure ustez, pertsoneri eta kolektiboeri nolabaiteko ongizatea bermatzeko zeregin garrantzitsua eduki behar du¹¹.

Elikadura burujabetza moduko ikuspegi bat administrazio pu-

blikoek bere egin eta gara dezaketen edo ez eztabaida irekia da. La Vía Campesina-ren iritziz, beste parametro batzuetatik abiatuta bestelako politika publiko batzuk eraikitzea nekazarien mugimenduaren borroka-eremua zen eta da. Horrela, proposamen zehatzak egiteaz gain, eragiteko ahalegin handia egiten da kanpainen eta mobilizazioen bidez, eta 2013an, Jakartan egin zen LVC-ren VI. Konferentziaren txostenean jasotzen zen bezala, "mugimendu askok lortu dute elikadura burujabetza, nekazaritzako erreforma eta agroekologia tokiko, herrialdeko edo estatuko, nazioko edo eskualdeko politikan txertatzea". Beraz, nekazarien mugimenduko agendako alderdi garrantzitsuetako bat da¹².

Agiri honek ekarpen txiki bat izan nahi du bide horretan. Politika publiko horiek eraikitzen, pentsatzen, diseinatzen eta garatzen direneko egungo eredu horri kritikoki begiratzen diogu, jakina, eta gure ustez, gizarteak eremu publikoa bereganatu behar duen unean gaude. Elikadura burujabetza, beste ikuspegi eraldatzaile batzuk bezala, bestelako proposamen politikoen eraikuntza orientatzeko ikuspegi gisa barnatzeak, parte-har-

11. Gure proposamena politika publikoari begira egindakoa da, baina ahaztu gabe eremu pribatua eta eremu publikoaz gain, "hirugarren figura ere bada (...) eremu komunala edo herri-eremua. Komunala, ondasun erkideak, komunak, prokomuna, hirugarren figura hori izendatzeko moduak dira eta, gure iritziz, etorkizunerako potentzialitate handiak ditu eta historian zehar, ondasun sozial, ekonomiko eta ingurumeneko ondasun asko sortu ditu. (...) ondasun komunalak edo herri-ondasunak erkidego batek partekatzen dituenak dira (ondasunak, baliabideak, prozesuak, gauzak, etab.), eta erkidego hori osatzen duten pertsona guztiek dute horiez gozatzeko, horiek kudeatzeko, erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea (...)" Gure ustez, badira praktika eta esperientzia batzuek esaten digutenak komunala eta landa-eremuari edo nekazarien bizimoduari dagokiona oso hurbileko alderdiak direla. Eremu publikorako gure begirada ondasun erkideak ikusarazteko eta sustatzeko apustu honi loturik dago. Erreferentziak: *Un acercamiento a la gestión de los bienes comunes y las organizaciones colectivas en el primer sector en Euskadi*, Katilu, hemen eskuragarri: <http://www.katilu.net/bienescomunes/ca/contenido.html>; *El procomún y los bienes comunes*, *Economistas sin Fronteras* 16. Dos-sierra, hemen eskuragarri: <http://ecosfron.org/portfolio/el-procomun-y-los-bienes-comunes/>.

12. Paul Nicholson-en hitzetan, "Nyéléni-ko aliantzen egituraketa-rako prozesuan -Malin, 2007an-, mugimenduetako 700 lagunek eskatzen genuena tokian tokitik Elikadura Burujabetzarako proposamenak egituratzea zen, eta hori mundu osoan gertatzen ari da. Elikadura eta energia krisialdiak prozesu hori bultzatu besterik ez du egin mundu osoan, ezaugarri desberdinekin, baina, finean, elikagaiek eta haien inguruko eskubideek eraikuntza sozial demokratiko eta automoa, eta merkatuaren objektu bihurtzen gaituen eredu sozial eta ekonomikoaren aurkako borroka eskatzen dutela ulertuta". Gida. *Elikadura Subiranotasuna Euskadiko baliabideak eta erakundeak*, Emaús, hemen eskuragarri:

<http://emauscursos.com/pdf/GUIA+SA+eusk.pdf>

LURRALDEA ETA TOKIKOA

tzea, erabakiak hartzeko prozesuak, eta eremu publikoaren kudeaketa eta antolamendua orain arte nola ulertu diren berrikus-tea dakar. Pertsonen eta herrien erabakitzeko gaitasuna mugatzeko markoak **zabaltzea** eta **birdefinitzea**. Botere publikoaren ikuspegi teknokratiko eta, ustez, neutroaren aurrean, horiek ere ordezeko agenda eraldatzaileak garatzeko aliatuak, edo oztopo handiak, izan daitezkeela ulertzea dakar.

Beraz, bi kontzeptu nagusitzen dira: **proiektu kolektiboa eta aliantza**. Beste politika horiek, gure ustez, eragile askok osatzen duten (baserritar, kontsumitzaile, administrazio publiko, elkarte, bestelako erakunde sozial, proiektu autonomo, beste eragile batzuk) elikadura burujabetzaren aldeko mugimendu zabalaren eraikuntzatik eta horietako bakoitzak duen zeregina eta proiektu kolektibo horiek lortzeko zer ekarpen egin dezakeen balioestetik etorriko dira. Eta marko horretan, hori guztia ahalbidetzeko tresna gisa ulertu nahi ditugu politika publikoa, bakarra izan gabe, garrantzitsuenetakoa baita.

Planteamendu horrek erronka handiak dakartza; hain zuzen, esan nahi du ezin dugula benetako eraldaketari buruz hitz egin administrazioa bakarrik badoa; oso proposamen tekniko onak egin ditzakegula gure udaletatik baina benetan inplikaturik dauden pertsonen parte-hartzea eta ikuspegia ez izateagatik, ustel aterako direla; aliantza zabal horren barruan, administrazioak zeregin garrantzitsua daukala aldatetak bultzatzeko eta ahalbidetzeko; esperientzia autonomoak badirela, eta hori izaten jarraituko dutela, autonomoak, eta irakaspen asko eman ditzaketela; prozesuak burokratizatzeak arrisku handia dagoela, eta horiei aurre egin behar zaiela; eta elikadura burujabetza proposamen konkretuetara ekartzeak indarrak batzea eta etengabeko eraikuntzan dagoen ataza dela ulertzea dakarrela.

Agiri honetan politika alternatibo horiek garatzeko ideia batzuk aurkeztuko ditugu; eta horretarako, Euskal Herriko udalerrietan, elikadura burujabetza zer itxura hartzen ari den aztertu dugu, bi galderari erantzuteko: **zer ari garen egiten eta zer egin ahal izango litzatekeen**. Badakigu bidea luzea dela, eta gaur eguneko krisi egoerak bestelako erronkak (aukerak) ekartzen dizkigula, horietako batzuk, gainera, bizi izaten ari gara dagoeneko, eta badugu haiei **atxikitze** aukera, haiei **ihardesteko** aukera edo haiengandik **ikasteko** aukera.

Testu honetan ez gara geldituko eskumenen eremua aztertzen. Badakigu udaletan gara daitekeen politikan zuzenean eragiten duen elementua dela, tresnetan eta horretarako dituzten baliabideetan. Tokian bertan ere gaitasunen gaia konplexu samarra eta ez itxia da Euskal Herrian, zenbait eremutan oso definizio maila altuarekin, eta badakigu legeetan gertatzen diren aldateten mende daudela, batzuk orainsukoak izanik, gainera,

zer ondorio edukiko duen balioesteko dagoelarik¹³. Horri gaineratu behar zaio bertako araudi eta ordenantzak, lurralde historiko bakoitzak dituen berezitasunekin, horiek definitzen baitute eskumen maila hori udalaz gaindiko beste erakunde batzuekiko harremana. Azkenik, badira aurreko beste azterketa batzuk EHNE-Bizkaia, Emaus eta VSF-k eginak esaterako, gure ustez informazio garrantzitsua ematen dute arlo horretan, eta testu hau lantzeko erreferentzia izan dira¹⁴.

Horrela, aukera errealei erantzuten ahalegintzeko eta udalaren eskumenak gaintzen dituzten gaiak proposatzea saihesteko, politika publikoei eman diegun begirada ez da hortik abiatu, proiektu kolektibo alternatibo ugari horien eraikuntzatik baizik, eta administrazioak zeregin garrantzitsua izan dezakeen eta izan behar duen hainbat eremutan nola txertatzen diren begiratu dugu. Jakitun gara, hala ere, sarritan **ziurgabetasun** eta **sormeneko** espazio batean mugitzen garela. Proposamen honi *burujabetzen elkargunea* deitu diogu eta ondoko atalean aurkeztuko dugu.

13. Esaterako, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunari buruzko 27/2007 Legea, Madrilen, Partido Popularraren gobernuak emana (<http://www.boe.es/boe/dias/2013/12/30/pdfs/BOE-A-2013-13756.pdf>) eta beste erkidego autonomo batzuetan, EAE kasu, hari erantzuteko ematen ari direnak, zeinetan udalen eskumena, haien finantzaketa eta administrazioaren gainerako mailekiko harremana gisako gaiak lantzen dituzten (Euskadiko Udalen Lege Aurreproiektua, https://www.irekia.euskadi.eus/assets/attachments/704/Anteproyecto_de_Ley_Municipal_de_Euskadi.pdf?1289499082

14. Europa esta Estatu mailako azterketa Elikadura burujabetzarako politika publikoak. Oztopoak eta aukerak Europako, Espainiako Estatuko eta EAeko azterketa. EHNE- Bizkaia, Emaus y Mugarik Gabeko Albaiariak, 2011, hemen eskuragarri: <http://emauscursos.com/pdf/Hitzaurrea+eta+aurkezpena.pdf>; <http://emauscursos.com/pdf/EAeko+Azterketa.pdf>

2. OHARRA

BESTE PROPOSAMEN POLITIKO ALTERNATIBO BATZUK

Atal honetan beste proposamen politiko alternatibo batzuk aipatu nahi ditugu, gure ustez, interesgarriak direlako: esperientzia zehatzak dira, hein batean edo bestean tokitik bertatik udaletik lan egiten dutenak edo behintzat dimentsio hori txertatzen dutenak; iraupen desberdina dute garapen eta ibilbideari dagokienez, baina guztiek ahalegina egiten dute praktikan txertatzeko eta aukera horiek abian jartzeko gakoak emateko; nolabaiteko lotura dute elikadura burujabetzarekin; proposamenen inguruan sare zabalak eraikitzea dute xede, bai gizarte zibil antolatuak bai administrazio publikoek bultzatuak; eta gure ustez, hainbat ikuspuntu eta eremutako esperientziak izanik, gauza asko dago horietatik ikasteko. Gure ustez garrantzitsuenak izan daitezkeenak eta Euskal Herrian presentzia dutenak aukeratu ditugu.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen karta:

“Euskal Herriko Mugimendu Sozial eta Sindikalen Asanbladak” parte-hartze prozesu baten bidez, “Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta” proposatzen du, eta horren helburua da oinarritzko eskubide ekonomiko eta sozialak bermatzea euskal gizartearen osatzen duten pertsonen bizi-baldintza duinetarako irispidea izan dezaten eta euren erabakiak har ditzaten.

<http://www.eskubidesozialenkarta.com/>

Euskal Herriko emakumeen eskubideen karta

Emakumeen Mundu Martxak, nazioarteko sare den aldetik, emakumeen eskubideekin munduan zer gertatzen zen aztertzea jarri zuen helburu, eta azterketa horren emaitza gisa Emakumeen Mundu Karta landu zuten gizateria osoarentzat. Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak lan hori Euskal Herrira ekarri nahi izan zuen, eskubide horien lorpenean aurrera egitea ahalbidetuko zuten tresna eraikitzeko, horiek bete daitezkeen mekanismoak eskatzeko eta borroka feministaren helburuak eta erabili beharreko estrategiak eguneratzeko.

http://www.mundubat.org/archivos/201210/emakeskubideak_es1.pdf

Alternatiba – Bizi!

Mugimendu altermundialista da, larrialdi ekologikoaren, klima aldaketaren eta justizia sozialaren eremuetan agertzen diren erronkei erantzuteko, mundu mailan eta tokian-tokian.

<http://www.bizimugi.eu/eu/nor-gira>

(Bizilren erreminta-kutxa, Desazkundeak egindako gaztelerarako itzulpena)

<https://drive.google.com/file/d/0B3JZMgatFbZ4YIiwUVNyalZWTmM/view?pli=1>

Udalerrietatik abiatutako elikadura burujabetzaren aldeko karta - REAS

Ekonomia Sozial eta Solidarioarako Estatuko Sareak deituta, Zaragozan, 2014ko azaroaren 27, 28 eta 29an egin zen Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko I. Nazioarteko Kongresuaren baitan landutako dokumentua. Lanketa, elikadura burujabetzaren inguruan esperientzia handia duten erakunde, sare eta eragile politiko eta sozialek osatutako lan-mahai batean egin zen.

http://www.economiasolidaria.org/files/CARTA_POR_UNA_SOBBERANIA_ALIMENTARIA_DESDE_NUESTROS_MUNICIPIOS.pdf

Trantsizioan dagoen mugimendua. Energia-burujabetzarantzko trantsizioan dauden udalerrriak

Trantsizioan dagoen mugimenduak, Petrolioaren Goi-muga, Klima Aldaketa eta Krisaldi Ekonomikoaren erronkei sormenez aurre egiteko antolatzea erabaki duten gero eta pertsona gehiagoren ahalegina metatzen du, eta euren erkidegoetan ekimenak abiatzen dituzte (auzo, herri, uharte, auzune, hiri, eta abarreak) bizirauteko eta ongizate gaitasuna handitzeko, materia energetiko fosilen eskuragarritasuna murriztearen eta baliabide naturalen gainbehera orokorraren eta klimaren nahastearen ondorioz datozen urteetan biziko ditugun aldaketa garrantzitsuei begira.

<http://movimientotransicion.pbworks.com/w/page/21695346/Movimiento%20de%20Iniciativas%20de%20Transici%C3%B3n>

Guztion onerako ekonomia - udalerrriak

Sistema ekonomiko alternatiboa proposatzen da, Guztien onerako balioen inguruan eraikia. Guztion onerako ekonomia politikaren, ekonomiaren, eta gizartearen aldaketarako bultzada da, zaharraren eta berriaren arteko zubia. Guztien onerako udalerrien Sarea osatzen ari dira.

<http://economia-del-bien-comun.org/es/content/la-idea>

III. ELIKADURA BURUJABETZA: EUSKAL HERRIAN BESTELAKO BIZIMODU-EREDUAK LORTZEKO BURUJABETZEN ELKARGUNEA

Aurreko atalaren amaieran adierazi dugun bezala, dokumentu hau sortzeko oinarritzat hartu dugu ikuspegia edo **burujabetzen elkargunea** deitu duguna, oraindik eraikitze bidean dagoen proposamena den arren, gure ustez, elikadura burujabetza tokian tokitik eta politika publikoetatik bultzatzeari modu integral eta zabalean ekitea ahalbidetzen digu. Hortaz, orain arte aurkeztu eta hainbat paradigma alternatibotatik defenditu eta garatutako ideia batzuk berreskuratuta, abiapuntutzat hartzen dugu egungo eredu sozial, ekonomiko eta politikoa krisian dagoela; ez da krisialdi partziala ez unean unekoa; sistema kapitalista eta patriarkala bera definitzen duten balioetan sustraituta dago, zenbait egilek *krisialdi sistemikoa* deitzen dutena, alegia; sistema hegemoniko hori ez da gai elikadura-krisialdiari, klimatikoari, zaintzen lanaren krisialdiari, ordezkagarritasun politikoko krisialdiari eta abarri erantzuna emateko... Beraz, inflexio puntu batean gaudela esan daiteke, une historiko batean, eta kritikotzat jo daitekeen arren,aldi berean, gure erkidegoak eta gure bizitza antolatzeko **beste modu batzuk abian jartzeko** aukera ere izan daiteke.

Eta une horretan, desberdintasunak, jasanezintasuna, pobrezia eta urrakortasuna eragiten dituen eta oinarri dituen ereduaren aurrean, elikadura burujabetza **benetako aukera** gisa agertzen da. Elikadura burujabetza, beraz, halako proiektu kolektibo alternatiboak eraikitzen hasteko **ikuspegi teorikoa** izango litzateke. Eta tokikoa, **horiek garatzeko** espazio estrategikoa.

Elikadura burujabetza, proposamen alternatibo (eredu kapitalista hegemonikoaren aurrean), integral (elikadurarako eskubidearen defentsatik eraldaketak proposatzen ditu eremu sozialean, ekonomikoan eta politikoan) eta ireki (eraikitze bidean eta bestelako proposamen eraldatzaileekin etengabe kutsatzen) gisa ulertuta, antolatzeko beste moduak eraikitzeko **markoa** izango litzateke: bizitzak erdigunean jartzeko, elikadura

eskubide gisa bermatzeko, pertsonen ongizatea sustatzeko, natura eta izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko, demokraziaz ulertzen den hori zabaltzeko eta eraldatzeko, harreman sozial berdinkide, solidario eta interdependentzian oinarrituak eraikitzeko, lurra eta aberastasuna birbanatu eta banatzeko, eta datozen belaunaldiei horren guztiaren jasangarritasuna bermatzeko, besteak beste.

Eta zer nolako orientabideak eskaintzen dizkigu elikadura burujabetzak beste proiektu alternatibo horiek eraikitzeko? Nondik, nola eta nortzuen artean trantsita dezakegu? Testu honen lehenengo puntuan esaten genuen bezala, **oinarrizko gakoak hiru direla** uste dugu.

- 1. gakoa. Erabakitze eskubidea:** agintea pertsonengan, herriengan eta lurraldean daudela defenditzen dugu, aginte hori zuzenean erabiltzeko eta, askatasunez eta kolektiboki, sozialki, ekonomikoki eta politikoki antolatzeko beste modu batzuk eraikitzeko eskubidea dutelako. Hortik dator *burujabetza* hitzaren zentralitatea.
- 2. gakoa. Alternatiben eraikuntza kolektiboa eta herritarra.** Prozesuen funtsezko elementua, hots, proiektu alternatibo horiek parte-hartzearen bidez eraikitzeko, *nola eraiki* alegia, eta hori gabe ezin baita burujabetza benetan gauzatu.
- 3. gakoa. Nekazaritzan oinarrituriko ekonomiak eta agroekologia,** proposamena zehazten duten bi kontzeptu.

Elikadura burujabetzak, elikagaien ekoizpena, banaketa eta kontsumoa proiektu alternatibo horien erdigunean ipintzera ermaten gaitu; tokikoaren baliora eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomietara eta haien bizimodura; lurrarekiko eta ondasun naturalekiko batasunera; jasangarritasuna helburu nagusi bihurtzera, zentzu zabalean, ingurumena, gizartea, ekonomia eta kultura barnean hartuta; berdinkidetasunean eta justizian oina-

rrituriko harreman sozial berriak eraiki beharrera; eta hori guztia eraikitzen, ekoizleen eta kontsumitzaileen, landa-eremuaren eta hiriaren, hainbat eragile, mugimendu, erakunde eta administrazio publikoaren arteko lotura eta aliantza bilatuz.

Beraz, eta gako horiei jarraituz, **burujabetzen elkargune** honek honako alderdi hauei erantzun nahi die: tokikotik, elikadura burujabetzatik hasita, identifikaturiko hiru gako horiek garatu nahiko lituzkeen proposamen kolektibo alternatibo bat eraiki nahi izango bagenu, zer eremu hartuko lituzke kontuan? **Zer burujabetza-eremu konkistatu behar ditugu gako eta printzipio horiei erantzungo dien bestelako gizarte-eredu bat, ondo bizitzeko bestelako modu bat zehazteko eta eraikitzeko?** Nola zehaztu ahal izango dugu integralitatearen ideia hori? Zer ardatzen inguruan egitura dezakegu proiektu alternatibo hori?

Galdera horiei erantzuteko, proposamen politikotik eta elikadura burujabetzatik abiatuta eraikitako tokiko garapenerako eta ondo bizitzeko proiektuek, gutxienez, **honako bost eremu** hauetan erabakitze gaitasuna edukitzera eta aukerak proposatzera eramaten gaituzte:

- Ondasun naturalak
- Energia
- Tokiko elikadura-sistemak
- Emakumeen autonomia eta eskubideak
- Komuna denaren antolamendua eta ezagupen askea

Gure ustez honako eremu hauetan kokatzen da elikadura burujabetzaren proposamena, eta bertan sakontzen, eta eremu horietan txertatu behar dira aurretik identifikaturiko hiru gakoak. Bizitzeko tokiko proiektu kolektiboen definizioei **burujabetzen elkargune** horretatik ekiteak proposamenen **beharrezko integralitate** horretan eta eman ditzakegun urratsen egituraketan aurrera egitea ahalbide diezaguke. Errealitateari, desberdintasunei, agendei eta proposamenei modu sektorialean ekiteko joeraren aurrean, espero dugu agiri hau ekarpen bat izatea elikadura burujabetzaren, gure ustez beharrezko, **ikuspegi horlistiko horretarako**. Hori horrela, eta ikuspegi zabala ekartzeko borondate horretatik abiatuta, badakigu izango direla, funtsezkotzat jo arren, txertatu ez ditugun dimentsio edo eremuak. Azpimarratu nahi dugu ikuspegi hau eraikuntza-prozesuan dagoela, irekia dagoela; ez dauzkagu erantzun guztiak, baina, gure ustez, baditugu aurrera egiteko oinarriak.


Alde batetik, eremu horiek ekintzarako alderdi edo sektore gisa izendatu beharrean **Burujabetza** kontzeptua berreskuratu nahi izan dugu, gure proposamenerako zentrala; guztietan era-



bakitzeko eta alternatibak eraikitze eskubidea errebindikatu behar dugula uste dugulako. Horietan guztietan, gainera, potentzialtasunak aurkitzen ditugu elikadura burujabetzaren proposamenean aurrera egiteko erronka handiekin batera. Horrela, **burujabetzak** deitzea erabaki dugu, konkista-eremu gisa, autonomia eta ahalduzkoa abiapuntu hartuta, "kapitalismoari espazioak eta baliabideak kentzeko" eta hegemonikoaren ordezkotza ereduak proposatzeko "bestelako elkartasun eta elkarrekikotasun logika batzuen mende"¹⁵.

15. "(...) Bizitzeko merezi duen bizitza horretarako aukerak sortzeko erantzukizun kolektiboa egituratzeko zer egitura sozioekonomiko gureganatzen ditugun. Berritua ere, egungo sistemak ez digu balio, kapitalaren balorizazio-prozesuaren eta bizitzaren jasagarritasun-prozesuaren arteko egiturazko kontraesan horrengatik (...)

Antonella Picchio-k dioen bezala, kapitalismoa "heriotz ekonomia" bat da, edo Herreroen hitzetan (2010b), sistema "biozida" da. Hari eusteko erantzukizuna pribatizatu, feminizatu eta inbisibilizatu dago. Eta hor eztabaida asko eta, gutxienez, bi egia zabaltzen zaizkigu: proposamena ez da erantzukizuna merkatu kapitalisten esku uztea; horiek ezin dira lehenetsirik egitura sozioekonomikoa izan; aitzitik, desagertzera jo behar dute. Aldi berean, erantzukizun hori demokratizatzen, kolektibizatzen eta des-feminizatzen joan behar da. Baieztape orokorreki eta abstraktuegiak ager badaitezke ere, horietatik ondorioztatzen da funtsezko mugimendu estrategiko bat: kapitalaren logikako baliabideak kentzea, ekonomia-egitura demokratikoetan bestelako logika ekonomiko batzuen (elkarrekikotasuna eta elkartasuna) araberaren abian jartzeko". *De vidas vivibles y producciones imposibles*, Amaia Pérez Orozco.



3.1. Ondasun naturalen burujabetza

Burujabetzaren lehenengo eremu honetan ondasun naturalak aipatuko ditugu: lurra, ura, basoak, haziak... elikadura burujabetzaren proposamenean berebizikoak. Lehenengo apustua **ondasun** deitzea da, eta ez baliabide. Desberdindu egin nahi dugulako natura salgai gisa ikusten duen ikuspuntua, diru-balioa eman ahal zaien baliabideak eraz daitezkeen iturri agortezina balitz bezala. Ekoizpen kapitalistaren eredurako ondasun horiek ustiaketarako, muga gabeko erabilerarako, pribatizatorako eta etekinak ateratzeko espazioak dira. Elikadura burujabetzarako, lurra, ondasun natural guztiak bizi-espazioak dira, aniztasunerako, ingurumenaren, kulturaren eta belaunaldien jasangarritasunerako espazioak. Ondasun erkideak dira, eta **zaindu** eta **babestu** egin behar ditugu.

Lurra funtsezkoa da elikadura burujabetzarako, oinarria, nekazaritzan oinarrituriko ekonomietako **haziekin** batera. Oinarritzakoak dira elikadurarako eskubidea bermatzeko. Eta ondasun urria da, eta gero eta gutxiagoren eskuetan dago, gainera. Eta haren inguruan mugitzen diren interesen aniztasunak eragindako etengabeko gatazkan. Nekazaritzan oinarrituriko ekonomia jasangarrietarako elikagaien ekoizpenerako lurra etengabeko arriskuan dago, eredu agroindustrialak bultzaturiko dinamikei (metaketa, intentsifikazioa, espekulazioa...) eta proiektu desarrollistei (urbanizazioak, azpiegitura handiak, garratio-sistemak, erazketan oinarritukoak...) aurre egin behar

dielako.

Industriako elikagaien eredia, nekazaritzako elikagaien kateak eta Europar garatzen diren politikak, NPB (PAC) esaterako (Nekazaritzako Politika Bateratua) edo TTIPen (EB eta AEBen arteko Merkataritza eta Inbertsioei buruzko Atlantikoaz gaindiko Hitzarmena¹⁶), jasotzen diren proposamen berriek bultzatu egin dute lurra erabilera intentsiborako pilotzea, zorpetzea, jasanezintasuna eta ustiaketa eta finka txiki eta ertainak desagertu izana. Gainera, nekazaritzarako lurra babesik gabe daude espekulazioaren aurrean. EHNE-Bizkaia sindikatuak adierazten duen bezala, "Industria, egoitza, merkataritza eta azpiegiturarako azalaren handitzeak, bereziki bi eragin negatibo izan ditu nekazaritzarako: alde batetik, lurrik gabe uzten ari direlako, eta hori delako edozein nekazaritza jasangarri fisikoki, ingurumena, gizartea eta ekonomia kontuan hartuta gauzatzeko egiturazko elementua; eta beste alde batetik, horrek ahalbidetu duelako lurra hirigintza-espekulazioak har dezan, eta haren truke neurritz kanpoko prezioak eskatzen dira, eta horren ondorioz, nekazaritzan jardun nahi duten pertsonak ezin dute horretara iritsi¹⁷. Lurra lortzea bereziki arazo gertatzen da emakumeen eta pertsona gazteen kasuan, eta horren ondorioz, gaur egun sektorea zaharkituta dago¹⁸.

Hazien kasuan, nazioz gaindiko enpresek haien balioa identifikatu dute nekazaritza, eta ondorioz, munduko elikadura kontrolatzeko. Haziak gauza pribatu bihurtu direla ikusi dugu,

enpresa gutxi batzuen esku daudela, patentatuta, eta ondorioz, kriminalizatu egin da haien erabilera eta ekoizpen askea. Haziak ondasun natural gisa ez babesteari eta irabaziko negozio hori ahalbidetu duten arau eta lege guztiekin batera, barietate eta hazi tradizional asko galdu dira, eta barietate komertzialak eta lurraldera egokitura ez dauden haziekin ordeztzen ari dira. Haziak saltzen dituen enpresak berak saltzen dituzte ongarririk eta izurriak eta gaixotasunak tratatzeko agrokimikoak, ekoizleen eta kontsumitzaileen osasuna kaltetzen duten produktuak. Metaketa eta aniztasun galera hori animalien barietate eta arrazekin ere gertatzen da.

ETCK¹⁹ egindako azken azterketaren arabera, mundu osoan lau markak kontrolatzen dituzte hazien %58,2, agrokimikoen %61,9, ongarririk %24,3 eta animalientzako botiken %53,4. Abeltzaintzan, lau enpresak kontrolatzen dute oilategiko hegaztien ikerketa genetikoaren %97 eta txerriei eta abelburuei buruzko ikerketaren eta garapenaren bi heren.

Horrek guztiak zuzenean eragiten du nekazaritza eta abeltzaintza ez hain erresilientea eta ingurunera egokitu bultzatzean, eta hazien kontserbazioari, ugalketari, ereiteari eta trukeari buruz baserritarrek izan duten ezagupen eta jakinduria tradizionala galtzean²⁰. Hazien gaineko burujabetza galtzeak **zer landu dezakegun eta zer jan dezakegun**²¹ erabakitzeke ahalmena behin betiko nazioz gaindiko enpresen esku uztea dakar.

Horren guztiaren aurrean, gure ustez prozesu kolektibo eta parte hartzeak bultzatu behar ditugu honako alderdi hauek definitzeko: lurraldeak espazio natural, ekologiko, ekonomiko eta politiko gisa ulertzea, **zer premia ditugun, nola ase behar edo nahi ditugun premia horiek eta nola egin dezakegun hori guztia jasangarritasuna ardatz hartuta**. Elikadura burujabetza, gure iritziz, eremu publikoak lurraldearen antolamendua deitzen zaionari begiratzeko modu bat da, tresna hori eduki politiko handikoa eta garrantzitsua izanik halako proiektu kolektiboak definitzeko.

Elikadura burujabetzatik ezinbestekoa da ondasun naturalen burujabetza berreskuratzea, kontrola, erabilera eta kudeaketa erabakitzea, merkatuetatik at eta eremu publiko eta erkidegokotik hasita. Lurra berreskuratzea eta defenditzea; aniztasuna eta jasangarritasuna²² bultzatzea, eta horretarako nekazaritzan oinarrituriko ekonomiek duten balioa eta zentralitatea aintzatestea.

16. Informazio gehiago: No al TTIP, <http://noalttip.blogspot.com.es/p/documentos.html>

17. EHNE-Bizkaia, Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna, <http://www.ehnebizkaia.org/index.php/es>

18. Emakumeen eta lurraren egoera aurrerago landuko dugu bereziki, baina zaharkitzeari dagokionez, Soberanía Alimentaria, Biodiversidad y Culturas aldizkariak egindako azterketa baten arabera (Carles Soler-en artikulua, 18.zk., 2014ko urria), Espainiako estatuan, ustiatuegi jabeen % 61, 55 urtetik gorakoak dira; % 35ek, 65 urte baino gehiago ditu eta nekazaritzarako azaleraren % 25 dauka. Eta jabeen % 61ek, 55 urtetik gora dituzte eta azaleraren % 51 dute.

19. *El carro delante del caballo. Semillas, suelos y campesinos ¿Quién controla los insumos agrícolas?* Informe 2013, ETC Group, hemen eskuragarri: <http://www.etcgroup.org/es/content/el-carro-delante-del-caballo-semillas-suelos-y-campesinos>

20. Horregatik La Via Campesinak bi ardatzen inguruan egituratzen du hazien inguruko kanpaina: 1) Teknikak baserritarren artean trukatzeko, eta taldean antolatzea nekazaritza organikoan erabiliko diren gure hazi propioak sortzeko eta kontserbatzeko; 2) "Monsanto legeak" desagerraraztea, eta tokian tokiko legeetan eta maila globalagoan ere baserritarrek euren haziak kontserbatzeko, erabiltzeko, trukatzeko, saltzeko eta babesteko duten eskubide ukaezina jasotzea (Cuadernos de La Vía Campesina n^o6, *Nuestras semillas, nuestro futuro*, 2013ko ekaina), hemen eskuragarri: <http://viacampesina.org/downloads/pdf/sp/ES-notebook6.pdf>

21. Informazio gehiago: Grain (Kolonbiari buruzko txostena), <http://www.grain.org/es/article/entries/4098-las-leyes-de-semillas-aniquilan-la-soberania-y-autonomia-alimentaria-de-los-pueblos>

22. Lehenago aipatu dugun bezala, lurraren eta ondasun naturalen erabilerari, kudeaketari eta jabetzari dagokienez, hainbat ikuspuntu ager daitezke gaiaren inguruan, bai eta lurra desmerkantilizatu eta haren energia-balioa eta kulturala berreskuratzea bilatzen duten peroposamenen artean gatazka ere sor liteke. Ez elikadura-burujabetzak ez nekazarrien mugimenduak ez dute proposatzen erabilgarri dagoen lur guztia ekoizpena bideratzea, baina bai elikadura esku-bide izateko ideia egia bihurtu nahi badugu behar beste lur egon behar duela; beti ere, aniztasuna printzipio hartuta, eta kolektiboki erabakita, lur horien parte bat ekoizpena bideratzea, eredu agroekologikoa eta nekazaritzan oinarriturikoa dira jasangarritasun hori hoberen bermatzen dutenak. Beraz, ez dira interes edo helburu kontrajarriak, nahiz eta batzuetan horrela helarazi nahi izan den. Gure ustez, helburua da erabakitzeke autonomiatik abiatuta aniztasuna eta lurraldea osatzen duten errealtate eta bizimoduaren interdependentzia printzipio garrantzitsu gisa barneratzea; eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomiak eta jasangarritasuna helburu nagusi gisa, bizi garen espazio horiek nola antolatu nahi ditugun definitzeko.

BURUJABETZEN ELKARGUNEA

3.2. Energia-burujabetza

Elikadura-burujabetzaren proposamenerako funtsezko beste kontu bat **energia-eredu berri** baterantz jotzea da; mendekotasunaren, kontsumo hazkorren, pribatizazioaren eta oligopolioaren, eta planetaren espoliatze eta muga fisikoen gaitzearen aurrean; oinarritat jasangarritasuna, hurbiltasuna eta tokikoa, baliabideen kontrola eta haien kudeaketa publikoa eta herriak eredu posible eta gero eta hurbilagoko horren jabe izatea eta parte-hartzea izango dituen.

Energiaren eremuan egungo egoerak iturri fosilekiko mendekotasun handia du ezaugarri, kanpokoarekiko mendekotasuna, energia berriztagarrien garapenik eza eta kontsumismo energetiko deitu ahal izango genukeena. Datuak izugarriak dira, eta baliabideen (fosilen) ahitzea eta **krisialdi klimatikoa** gero eta hurbilago daude, eta horien ondorioak ikusten hasiak gara dagoeneko²³. Horren aurrean, nazioarteko botere publikoek, enpresa handien interesei lotuta, baliabide berrien bilaketan (frackinga bezalako tekniken bidez, esaterako) eta energia berdea izeneko negozioan zentratutako konponbideak bilatzen dituzte.

Gainera, **eredu agroindustrialarekin**, nekazaritza, energia-sortzaile izan dena, klima aldaketaren erantzule nagusietako bat bihurtzen da: La Vía Campesinaren arabera, berotegi-efektuko gasen isurien %44 eta 57 artean, egungo nekazaritzako elikagaien sistemarekin lotuta daude²⁴. Sistema horrek energia asko behar du mantentzeko: makina gehiago; elikagaiak eta salgaiak munduko hainbat lekutatik garraiatzea²⁵; agrokimiko eta pestizidak erabiltzea, elaborazioan ere kutsagarriak direnak eta petrolioaren eratorriak; ur-kontsumo handia eskatzen duten ekoizpen-hedadura handiak; ekoizpenerako labore bakarra lantzeko eremu handiak sustatzeak eragindako aniztasun galera, esaterako, bioerregaiak eta hegoaldeko herrialdeetan gauzatzen den lur-metaketa dinamikak; etab. Eta La Vía Campesinaren esaten duen bezala, nekazari txikiak, landa-eremuetako erkidegoek, baserriarrek pairatzen dute gordinen klima aldaketa.

Horren aurrean, "elikagaien ekoizpenaren birlokalizazioak potentzial garrantzitsua dauka atmosferara Begen (Berotegi-efektu gasak) isuri globalak murrizteko. Eta potentzial horrez gain, bestelako eragin mesedegarriak ere baditu klimarako tokiko nekazaritza-ereduak, eredu sozial eta maila txikiak, ingurumena errespetatzen duenak eta enpresa multinazional eta espekulatuzaileen eskuetan egon beharrean nekazarien eta kontsumitzaileen esku dagoen ereduak"²⁶.

Horrela, elikadura burujabetza, jasangarritasunean eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomietan ardaztutako ereduak izanik, klima- eta energia-krisialdi honetarako benetako aukera dela uste dugu. Kontua ez da unean uneko neurriak hartzea kontsumoa

handitzen jarraitzeko ordezkotzat energia gehiago kontsumitzea; aitzitik, **eredua aldatzea** benetako premia da, burujabetzaren eta parte-hartze bidezko eraikuntzaren aldeko apustutik abiatuta. Hainbat egile eta gizarte-mugimenduk esaten dutenaren arabera, energia-eredua aldatu egingo da, nahi edo nahi ez; beraz, presta dezagun trantsizioa.

Beste energia-eredu horrek, gure ustez, eremu sozial, politiko eta ekonomikoan ekarriko ditu aldaketak, eta funtsezkoa da herriarrik horretaz jabetzea eta aukera horien eraikuntzan kritikoki eta ahaldunduta parte hartzea, kontsumo-ereduak aldatzea, energia-autonomia eta ordezkotzat iturri berriztagarrietako energiak bultzatzea, eta energiaren ekoizpen, kudeaketa eta banaketarako eredu publiko baterantz jotzea.

23. "Baliabide naturalen -baliabide mineralen, erregai fosilen eta biomasaren- eskaera globala hazi eta hazi ari da. Azken hamarkadetan horrenbeste hazi da ezen eraztutako kopurua biogaitasuna baino handiagoa izan baita; hau da ekosistemek baliabideak (zerealak, arraina, metalak, petrolio, etab.) emateko eta horien erabilerak eragindako hondakin eta isuriak zurgatzeko duten gaitasuna baino handiagoa. Gizateriak gure planeta ekoizteko eta zurgatzeko gai dena baino % 50 gehiago erabiltzen du, eta kontuan hartu behar da, gainera, herrialde guztiek eta pertsona guztiek ez ditugula gauza berak kontsumitzen ez isurtzen. Baliabide naturalen ahitzea eta kutsagarrietarako erabilgarri dagoen espazioa amaitzea elkarri lotuta duden bi gertakaritan islatzen dira: petrolioaren goi-muga eta aldaketa klimatikoa". "Alimentos kilométricos" txostena, Amigos de la Tierra, hemen eskuragarri:

<http://www.tierra.org/spip/spip.php?article1549>.

24. "Etxalde. Elikadura Burujabetza Munduan eta Euskal Herrian" dokumentu politikotik ateratakoa, hemen eskuragarri : <file:///C:/Users/USUARIO/Downloads/Etxalde%20elikadua%20burujabetza%20munduan%20eta%20Euskal%20Herria.pdf>

25. "Gure elikagaiak egiten duten distantzia izugarri handitu da 60.eko urteetako iraultza berdetik hona, petrolioaren prezioari esker, eta azkeneko hamarkadetan Espainiako estatura egindako elikagaien inportazioa haziz joan da. Hazkunde hori, elikagaien merkataritza globalaren hazkundearekin bat, Merkataritzarako Munduko Erakundeak (OMC) eta merkataritzako alde biko itunek bultzatzen duten nekazaritzako merkatuen liberalizazioarekin lotuta dago". *Alimentos kilométricos* Txostena, Amigos de la Tierra, hemen eskuragarri: <http://www.tierra.org/spip/spip.php?article1549>

26. *Alimentos kilométricos* Txostena, de Amigos de la tierra, hemen eskuragarri: <http://www.tierra.org/spip/spip.php?article1549>

3.3. Tokiko elikadura-sistemen gaineko burujabetza

Burujabetzaren hirugarren eremuak elikadura burujabetzaren proposamenaren muina jasotzen du; izan ere, elikagaien **ekoizpen, eraldaketa, banaketa, truke, merkaturatze eta kontsumo ereduei** dagokie. Testuan zehar azaldu dugunez, "Iraultza Berdea" deiturikoaren eta elikagaien nekazaritza eta ekoizpen industrialaren ereduaren baitan, elikagaiak salgai huts bezala tratatzen dira, eta ekoizpen- eta banaketa-katea kontrolatzen duten enpresa gutxi batzuen eskura daude.

Etxalde mugimenduaren aurkezpenarako agirian azaltzen den bezala, "Nekazaritza industrial eta intentsiboa, bai tokiko merkaturako bai mundurako, nekazari gehientzat, naturarentzat, eta elikagaien kalitate eta saniterako kaltegarria da maila berean. Nekazaritza mota horrek dakarren ekoizpenak landa-eremua suntsitzen du, gero eta nekazari gutxiagora murrizten baitu. Ongarriak, pestizidak, energia-gastuak areagotzen dira, eta naturari gero eta ur gehiago, energia fosil gehiago eta kutsadura gehiago eskatzen zaio. Herrialdeak ekoizpen konkretuetan espezializatzen dira, lurrarekiko deskonektaturik dauden labore bakarreko nekazaritza eta abeltzaintza, eta gainerako ekoizpenen mendeko bihurtzen dira".

Beraz, eredu agroindustrial hau **eredu oso mendeko** gisa defini dezakegu: ekoizpen-ereduagatik, intentsiboa, espezializatua, teknifikatua, baserritarrak enpresa handietatik datozen produktu horiek (haziak, ongarriak, ongarritzeko gaiak, makinak...) "behar" dituen sektore bihurtzen dituena, haien "kontrolatik" kanpo egonik prezioa eta haien funtzionamendua; energia-iturriekiko mendekotasun handia eta ondasun naturalen "kontsumo"; eta ekoizpenen espezializazioa eta homogeneizatzea, eta horrek lurraldeen aniztasuna suntsitzen eta kanpokoekiko mendekotasuna handitzen du. Eta mendeko da ekoizpenei ematen zaien orientabideari dagokionez, munduko merkatura bideratzen dira, "nekazariak, hartara, galdu egiten dute prezioen gaineko kontrola, banatzaileen esku geratzen baitira. Baina banaketarako eredu zentralizatua ere eragiten dute, non elikagaiek distantzia handiak betetzen dituzten planeta osoan zehar, ekoitzi diren tokitik prozesatu edo ontziratzen diren tokiraino, eta hortik, kontsumituko den lekuraino. Nekazaritzako elikagaien ekoizpen-eredu eredu horrek, gainera, garraio eta logistikako azpiegitura handiak behar ditu, eta merkaturik aurkitzen ez duten (edo ez behintzat Banaketa Sareek eskatzen duten prezioan) elikagai askoren suntsiketeta".²⁷

Horrela, esan dezakegu egungo nekazaritzako elikagaien sistema kapitalista (nekazaritzako elikagaien sistema elikagaien ekoizpenetik hasi eta haien kontsumoraino doana uler-

tuta) nazioz gaindiko enpresa handien kontrolpean dago, eta katearen faseetan hainbat estrategia erabilia, euren definitzen dute **zer eta nola ekoizten den**, eta, jakina, **zer kontsumituko dugun** ere. Azken elementu hori funtsezkoa da kontsumo-ohituren globalizazio hazkorra gertatu baita, eta modernotasunarekin eta aurrerapenarekin lotzen da ekoizpen-uneetatik disoziatuta dauden elikagai horiek une oro eskura izatea (zenbat fruta edo barazki urte-sasoiz guztietan), edozein tokitakoak izanik (elikagai kilometrikoak edo petroelikagaiak deituek) eta gustuak homogeneizatuta, elikagaiekin loturiko doan kultur aniztasuna balioetsi gabe.

Errealitate horren aurrean, elikadura burujabetzak **elika-katearen gaineko kontrola** berreskuratzea proposatzen du, elikadura salgaia ez eskubidea delako maximan oinarrituta. Korporazio handien eta enpresa interesen aurrean autonomia eta burujabetza-espazioa konkistatzen joatea eta tokiko ekoizleek kudeatutako elikagai, nekazaritza eta artzaintza sistemak eraikitzea, pertsona guztiak euren elikadura propioa kontrolatzeko duten eskubidea ardatz.

Horrela, tokiko elikadura-sistema horien eraikuntza funtsezko bi kontzeptutan oinarritzen da: **nekazaritzara itzultzea** eta **birkokapena**, edo gure marko teorikoari jarraituz, agroekologiaren eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomien aldeko apustua, ordeztu sistema horien funtsezko pilare gisa.

Etxalde-ren iritziz, nekazaritza jasangarriaren eredu edo agroekologikoa, nekazaritzan oinarrituriko ekonomiak ardatz dituena, "lurrari eta lurraldeari lotuta dago; tokian tokiko lurrari eta klimari egokitzen zaio, hango aberastasun, baliabide eta mugekin. Tokian tokiko arraza eta bariatateak ere lehenesten ditu. Horregatik guztiagatik, nekazaritza jasangarria desberdina da toki batetik bestera, aniztasuna du herentzia eta aberastasun handiena. Nekazaritza jasangarriaren balio nagusia **autonomia** da: erabakitzeke, nekazariak agro-industriaren morroi izan ez daitezten; autonomia tekniko eta ekonomikoa, nekazariak ekoizteko sistemarik eraginkorrenak –ekonomoa- aukeratzeko, haien lana behar bezala ordaindua izan dadin. Ekoizpen sistema ekonomoek industrialak ez diren kopuruekin bizitzea ahalbidetzen dute, ekoizpen orokorra eta baserritar anitzak ahalbidetuta". Beraz, ekoizpen-eredu horrek "sargaien eta kredituen autonomia (erositako sargaiak erabili beharrean finkan bertan daudenak erabiltzen dituelako), elikagaien merkaturaren autonomia (hornigaien eta merkaturako produktuen nahasketaren bidez auto-hornikuntza handiagoo), eta produktuek tokiko merkatu ekologiko edo organikoetara bideratzea sustatzen du, non baserritarrek eragin eta kontrol handiagoo izango duten (eta ondorioz, merkatu globalaren autonomia

handiagooa ere bai)²⁸.

Horixe izango litzateke bestelako tokiko elikadura-sistemak eraikitzeo oinarria, Di Masso-ren arabera, ezaugarri hauek dituztenak "ohiko nekazaritzako elikagaien sistema batetik (globalizatua) birkokatutako nekazaritzako elikagaien sistema batera igarotzea". Birkokapen horren funtsezko helburuak birkonexioa (ekoizpenaren eta kontsumoaren artekoa), birdefinizioa (balioena) eta birbanaketa (balio erantsiarena) izango lirateke. Berba horrek, beraz, bere baitan harrapatzen du elikagaiak euren testuinguru natural eta sozialean bersustraitzeko dinamika, eta hurbiltasun eta konektagarritasuneko harremanak sustatzen ditu²⁹. Sistema hauek funtsezkoak dira ere bizirik dagoen landa-eremu bat mantentzeko eta ondare kultural eta paisajistikoaren defentsarako.

Beraz, esan daiteke elikadura-sistema horiek **autonomia** eta **burujabetza** bultzatzen dutela, elikagaiak **non eta nola** ekoizten, eraldatzen eta merkaturatzen diren, lurraldeei, toki-koari, ekoizpen ekologikoari, lankidetzako harremanei eta merkaturatzeko bide laburrei lehenasuna emanez³⁰; eta ordeko sistema horiek **nortzuen artean** definitzen ditugun erabakitzeko, pertsonen eta kolektiboen parte-hartze aktiboarekin (ekoizleak, kontsumitzaileak, kolektibo eta erakunde sozialak, administrazio publikoa), eta kontsumoa eraldaketarako tresna gisa ulertuta, erantzukizunak partekatuta eta ekoizleen eta kontsumitzaileen artean, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren artean, hurbileko harremanak sortuz.

27. *La agroecología: hacia un nuevo modelo agrario. Sistema agroalimentario, producción ecológica y consumo responsable, Ecologistas en Acción*, hemen eskuragarri: http://www.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf_cuaderno_17_agroecologia.pdf

28. *La Vía Campesina y Agroecología*, Peter M. Rosset y María Elena Martínez-Torres, hemen eskuragarri: <http://via-campesina.org/downloads/pdf/openbooks/ES-09.pdf>.

29. Frantziako AMAP erakundearen iritziz, "tokiko elikadura-sistema bat ekoizpena, eraldaketa, banaketa eta kontsumoa integraturik dituen eta helburu komuntzat lurralde bateko ingurumeneko, ekonomiako, gizarteko eta nutrizio baliabideen maila hobetzea duen sistema bat da. Tokiko elikadura sistemak tokiko interesen erkidegoa bilatu nahi du bertako eragileen artean dauden harremanak sendotuz eta areagotuz". *Compra Pública en sistemas alimentarios locales. Impactos sociales, ambientales y económicos*, VSF- Justicia Alimentaria Local, hemen eskuragarri: http://vsf.org.es/sites/default/files/docs/5_compra_publica_en_sistemas_alimentarios_globales_impactos_sociales_ambientales_y_economicos_-_informe_de_la_campana.pdf

30. "Merkaturatzeko Bide Laburrak (MBL-CCC) ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzenagoa ahalbidetzen dutenak dira (denda txikiak, kontsumitzaile-taldeak, merkatuak, jatetxeak, ikastegiak...). Amaierako produktuen eta kontsumitzaileen artean eta ekoizlearen eta elaboratzailearen artean bitartekari bakarra duten ondasun ekonomikoen zirkulazio-bideak dira. Bitartekaririk ez badago, salmenta zuzena dela esaten dugu". Nekazaritzako elikagaien sistemari dagokionez, MBL-CCC izenekoen bidez bitartekariak murrizten ditugu; nekazariak euren produktuen truke bidezko prezioa jasotzea eta kontsumitzaileek produktu merkeagoak eta kalitate handiagokoak eskuratzeko lortzen dugu. Horrela, "definizio hauek jarraituz, MBLak salmenta zuzeneko bideak eta zeharkako bideetan, bitartekari bakarra dituztenak, onartuko litzuke. Baina, beharrezkoa da, "bitatekotza mailak kuantitatiboki soilik neurtzen dituzten kategorietatik harago joatea, eta kualitatiboki ekoizpenaren eta kontsumoaren artean ezartzen diren erlazioak kontuan hartzen hasi". CCCEi esker, nekazaritzako ekoizpenaren balio erantsia ustiategi txikietara eta landa-eremuko biztanleengana itzultzen da, eta horrek landa-eremuetako ekonomiak hobetzen ditu jasangarritasunari dagokionez. Gainera, elikagaiekiko konfiantzako harremana ahalbidetzen diete kontsumitzaileei; sasoiako produktuak eta pestizidarik gabeak izango direlako. Era berean, nekazaritza eta elikagaien kontsumoa ingurumenerako jarduera kaltegarriak ez izatea lortzen da; elikagaien garraioa laburtu egiten denez, erregai fosilen errekuntzaren ondoriozko emisioak saihesten direlako, eta ez dira ontzi asko erabili behar". *Ecologistas en Acción, La agroecología, hacia un nuevo modelo agrario eta Distribución agroalimentaria: Impactos de las grandes empresas de comercialización y construcción de circuitos cortos como redes alimentarias alternativas*, Pepe Ruiz Osoreoren lanetik ateratakoa.



3.4. Emakumeen burujabetza eta autonomia

Laugarren burujabetza eremu honetan gure lurraldeetan elikadura burujabetzako proposamenak eraikitzeko funtsezkoa den beste gai bat jorratuko dugu: patriarkatuarekiko borroka, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritzen den dominazio-sistema delako, botere-harreman horiek kolokan jartzea eta emakumeek euren bizitzen eta gorputzen gaineko burujabetza eta autonomia berreskuratzea ardatz izango duten alternatibak eta berdinkidetasunean, justizian eta erantzukizunkidetzan oinarrituriko harreman sozialak eraikitzea.

Burujabetza-eremu horri horrela ekitea eta izendatzea erabaki dugu sistema kapitalistaren ordezkotzat sistemak eraikuntzan, sistema kapitalistak funtzionatzeko **patriarkatua** behar duela ulertzeak gure ustez daukan garrantzia ikusarazteko. Horrela, "eguneroko bizimoduko *esku ikusezina* izango litzateke; izan ere, sistema kapitalistak abantaila du ekoizpen-kostuak etxeko eremura bideratzea; beraz, ugalketa-lana sistema ekonomikoak irauteko baldintza izango litzateke. Historian zehar, gizakion ugalketarako beharrezko jarduerak –bizitzaren jasagarritasuna edo mantentzea, elikadura barne-, bizirauteko ezinbestekoak izan arren, ez dute gizartearen onespenerik eta ez ditu ezein gizartek ekonomikoki balioetsi"³¹. Hau da, egungo eredu soziokulturala, espazioaren eta bizitzaren banaketa sexual-generikoaren bidez, hura zaintzeko eta sostengatzeko beharrezkoak diren lan guztiak ez aintzatestean oinarritzen da, eta gahenetan ere emakumeek, kolokako ego-

eran, egiten dituzte³². Beraz, bizitzako eremu askoren pribatizazioan, ondasun naturalen ustiaketan gizonak emakumeengan eragiten duten botere-harremanetan eta emakumeen lanaren ustiaketan oinarritzen den sistema da.

Abiapuntu horretatik, gure ustez ez da ordezkotzat proposamenik izango emakumeen eta gizonen arteko botere eta desber-

31. Pamela Caro, "Soberanía alimentaria: aproximaciones a un debate sobre alternativas de desarrollo y derechos de las mujeres", en el Libro abierto de la Vía Campesina, celebrando 20 años de luchas y esperanza, hemen eskuragarri: <http://viacampesina.org/downloads/pdf/openbooks/ES-05.pdf>

32. "Zaintza lanen barruan, bizitza eta osasuna kudeatzeko eta egunero mantentzeko eginkizunak daude, pertsonen gorputzen ongizate fisikoaren eta emozionalaren eguneroko berritzea alegia, bai norberaren gorputzarena, bai besteren gorputzarena (...). Zaintzetan ezaugarria da nola haragizko alderdi material bat (gorputzak zaintzea) hala afektuzko alderdi immaterial bat (emozioak zaintzea) izatea. Jarduera bat eratzen dute, eta jarduera horren emaitza kontsumitu egiten da, egiten den aldi berean; horretan, garrantzitsuena prozesua da, berez, eta baita sortzen den pertsonen arteko harremana ere. Zaintzetan elkarren mendekotasunezko errealitate dira, eta ezin dira ulertu norabide bakarraz egiten den jarduera bezala, hau da: ustez autonomoak diren pertsonengandik ustez mendekotasuna duten pertsonengana. Zaintzetan ikuspegi zabal batetik ulertu behar dira, eta ez dira mendekotasunera mugatu behar. Pertsona guztiek bizitzaren momentu guztietan behar dituzte zaintzetan, hainbat motatakoak eta intentsitate desberdinetakoak.", *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plana 2012-2020*, Gipuzkoako Foru Aldundia, hemen eskuragarri: <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/eu/berdintasunerako-ii-foru-plana>.

BURUJABETZEN ELKARGUNEA

dintasan harremana eraldatu gabe eraikitzen bada. Horren il-dotik³³, elikadura burujabetzaren oinarria da planeta eta inguru errespetatzen duen eredu batek bere baitan hartu behar duela zainketa, duina eta unibertsala, erdigunean jarriko duen eredu bat, eskubide gisa, eta horiek bermatzen gizarte osoak duen erantzunkidetasuna zehaztuta³⁴. Gainera, nekazaritzan oinarrituriko ekonomien garrantziaren eta zentralitatearen aintzatespenak, non emakumeek funtsezko zeregina izan dute eta dute, eta agroekologiarenak, osotasunean eta elikagaien ekoizpena gertatzen den gizarte-harreman horiek ere kontuan hartuta, indartu egiten du elikadura burujabetza izango bada, feminista izango dela, eta bestela ez dela izango.

Nekazaritzaren egungo mundu mailako egoera ikusita, esan dezakegu emakume nekazariak elkarri loturiko **bi be-reizkeria**, gutxienez, jasaten dituztela: emakume izateagatik, bizitzako hainbat eremutan gertatzen diren gizonetik botere eta desberdintasun-harremanen ondorioz, eta nekazari izateagatik, euren lana eta eginkizuna aintzatesten ez delako, eta gehienetan emakumeak direlako eredu agroindustrialari aurre egingo dion eredu mantentzearen eta defenditzearen arduradunak³⁵. Lehenengo alderdiari dagokionez, Etxaldeak identifikatu du “Euskal Herriko landa-eremuaren ezaugarria izan daitekeela biztanleen zahartzea eta maskulinizatzea”³⁶. Horrela, beste azterlan batzuek diote “Espainiako estatuan, nekazaritzako finken %9 baino gutxiago daudela emakumeen zuzendaritzapean, eta gizonen esku daudenak baino nabarmen txikiagoak direla. Gizonek zuzenduriko nekazaritzako finketan lan egiten duten emakumeen %82tik, %59k ez du Gizarte Segurantzaren kotizatzen bere jardueraren ekonomikoagatik. Emakumeek nekazaritzan egiten dituzten lanei –inolako diru-ordainik gabe, ez ikusgarritasun sozial, profesional ez politikorik gabe– etxeko lana eta zainketak gehitu behar zaizkie, gehienetan emakumeek egiten dituzte eta”³⁷.

Emakume nekazarien desberdintasun horrek adierazpen desberdinak ditu: lurrerako irispide desberdina, laneko eskubideak, laguntzak eta finantzaketa; inbisibilizazioa eta haien egoera espezifikoa, beharrezkoaren eta interesen berri ez jakitea, eta politikak eta proposamenak haietara egokituta ez egotea; lanaren eta esperientziaren aintzatespenik eza, ez eta ekarpen sozial, ekonomiko edo kulturalik ere; lan gainkarga, zainketa lanetan erantzukizunikidetzarik ez dagoelako; parte-hartze soziopolitiko txikiagoa eta erabakitze espazioetan presentzia gutxiago; bai eta erantzukizunikidetzara eta ahalduz erraz dezaketen gizarte-baliabide eta zerbitzurik eza ere (osasuna, zainketa, formazioa, aisialdia)³⁸.

Beste alde batetik, egungo nekazaritza industrialaren ere-

33. La Via Campesinak, bere printzipioetan, elikadura burujabetzak emakumeen eskubideen defentsa barne hartzen dituela argi azaltzen du, emakumeek elikagai-ekioizpenean duten funtsezko papera aldarrikatuz eta nekazaritza munduan emakumeen kontrako bortizkeria salatuz. La Vía Campesina, *Mujeres*: <http://viacampesina.org/es/index.php/temas-principales-mainmenu-27/mujeres-mainmenu-39>

34. “Zainketa duinak eskuratzea alderdi askoren baitan dago: horiez arduratzeko modu kolektiborik badagoen edo bakar-bakarrak familien erantzukizun bezala uzten diren (era horretan, gizarte-sareen eta erosteko ahalmen desberdinen baitan egongo da), balioesten diren edo ez, pertsona guztien beharrak zuzentzen onartzen diren edo ez, edo batzuen beharrak lehenetsun handiagoko bezala ikusten diren, etab. “Duintasuna” aipatzen dugunean, hau adierazi nahi dugu: eskainitako eta jasotako zainketak nahikoak izatea kopuruari dagokionez (dauden beharrei erantzuten dietenak), eta kalitatezkoak izatea, alegia: askatasunez aukeratuak izatea (bakoitzak erabakitze ahalmena izatea, bere burua nola zaindu nahi duen edo beste batzuek bera nola zaintzea nahi duen; edo nola, noraino eta nor zaindu nahi duen), eta betegarriak izatea (norberaren “transzendentzia-zentzuei” erantzutea). (...) Unibertsaltasunaren irizpideaz adierazi nahi dugu zainketa duinak pertsona guztientzat izan behar direla, inoiz ez bakar batzuentzat, eta ezin direla zainketa duinak eskuratu beste batzuentzako zainketa eskasen kontura, aitzitik, orokor izateko joera izan behar dute eta.” *Emakumeen eta Gizoneen arteko Berdintasunerako II Plana 2012-2020*, Gipuzkoako Foru Aldundia, hemen eskuragarri: <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/eu/berdintasunerako-ii-foru-plana>.

35. “Emakume baserritarren kasuan, begi bistakoa izan da nekazaritza ekonomiari egindako ekarpenaren inbisibilizazioa (León eta Senra, 2007). Historikoki egon dira elikaduraren aurkikuntzarekin, ikerketarekin eta sorrerarekin lotuta, nekazaritza asmatu zenetik. Esperimentatu egin dute, haziak hibridatu dituzte, jangarria dena eta ez dena bereizi dute, elikagaiak gorde dituzte, dietetika asmatu eta findu dute, sukaldaritza eta tresnak. Tradizio handia dute hazi bariatateak biltzen, aukeratzen eta hedatzen, elikagai eta sendagai gisa erabiltzeko. Munduko baliabide genetikoen eta bioaniztasunaren babesle primarioak dira. Finean, ekoizteko, prozesatzeko eta banatzeko mekanismoak garatu dituzte; zoritxarrez ordea, ordaindu gabeko lanaren desberdintasun harremanetan. Jarduera horiek duten garrantzi sozial eta ekonomiko oso handia izan arren, ez dira estatistika ofizialetan agertzen (Leon, 2008:8), eta sozialki devaluaturik egon dira genero-ikuspegitik. Emakumeen ekarpenaren ikusezintasun historikoarekin batera, begi bistakoa izan da landa-munduan eskubideak gauzatzean dagoen genero-desberdintasun handia; esaterako, krediturako, lurrerako eta osasun-urgazpenerako, ustiatuegi titultasunerako irisgarritasunean, soldata-arraila, diru-sarrera propiorik eza edo diru-sarreraren banaketa-aldea bikoteko bi kideek ustiatuegi diharduten kasuan, besteak beste (Leon eta Serna: 2007), badira legezko eragozpenak baina bai eta landa-eremuetako gizarteetan dauden eragozpen kulturalak ere”. Pamela Caro, “Soberanía alimentaria: aproximaciones a un debate sobre alternativas de desarrollo y derechos de las mujeres”, hemen: *Libro abierto de la Vía Campesina, celebrando 20 años de luchas y esperanza*, hemen eskuragarri: <http://viacampesina.org/downloads/pdf/openbooks/ES-05.pdf>.

duak gizonak eduki ditu protagonista, “merkatu, finantza eta moneta ekonomian oinarrituriko nekazaritza da, eremu publikoan gizonak garatzen dutena, hori izanik balioesten eta aintzatesten bakarra eta meta-ketaren logikak artezten duena (...). Gizonak izan ziren, hein handi batean, nekazaritzako jarduera dirua irabazteko jarduera izateko eraldatu zutenak”. Eredu horren aurrean, esan daiteke emakume nekazariak –esentzializatu gabe eta aniztasuna beti kontuan hartuta– “oro har, gizonak baino lotuago daude lurrarekin, eta nekazaritza ugari eta dibertsifikatuagoa praktikatzen dute, nekazaritza industrial eta intentsifikatuko prozesuetan gailentzen den uniformetasunaren eta homogeneotasunaren aurrean”³⁹. Beraz, badirudi emakumeen jarduera lotuago egon dela eta dagoela elikadura burujabetzaren gai nagusiekin, hala nola, bioaniztasuna, neurri txikiagoko finkak, ingurunea errespetatzen duen nekazaritza eta lotuago daude tokiko elikadura-sistemen dinamizazioarekin eta, beraz, zer ikasi eskaintzen digun eta defenditu behar dugun ereduarekin.

Hortaz, gure ustez beharrezkoa da **emakumeen burujabetza eta autonomia** sustatzeko estrategiak bultzatzea, proposamen alternatibo horien funtsa direlako. Errealitatearen bisibilizazio eta aintzatespenetik, emakume nekazari eta baserritarren egoera eta kokapenetik, haien aniztasunetik eta hura hobetzeko beharrezko neurriak ezartzetik hasi, elikadura burujabetza eraikitzeko dituzten ezagupen eta jakintzei eta bestelako nekazaritza jasangarriko eredu baterako funtsezko zereginari balioa ematea; emakume nekazarien jabeakuntza prozesuak bultzatzea, eta horren barruan, desberdintasun egoeran daudelako norberaren eta taldearen kontzientzia hartzea, desberdintasun hori eragiten duten arrazoiak eta horiek gainditzeko antolamenduarena⁴⁰; eta sareko eta emakumeen aliantzetako lana bultzatzeraino, beharrezkoa izanik “hiriko eta landa-eremuko emakumeak hurbiltzea helburu komunaren alde borrokatzeko”⁴¹.



36. Etxalderen aurkezpen dokumentua.

37. Mundubat, *Ecofeminismos rurales. Mujeres por la Soberanía alimentaria*, hemen eskuragarri:

https://redecofeminista.files.wordpress.com/2012/11/ecofem_rurales_web.pdf. Revista *Soberanía alimentaria, Biodiversidad y Culturas* (18. zk) aldizkarian, Espainiako estatuko datuen arabera, ustiatzearen % 30,5 baino ez daude emakumeen eskuetan, eta ehuneko hori txikitu egiten da apur bat azalera handitzen doan heinean: 5 ha baino gutxiagoagoko lursailetan % 33, eta 500 ha baino handiagoetan, % 22,4. Izan ere, 5 ha baino txikiagoak diren lursailei soilik begiratzen badiegu, lurren jabetza, % 60an, emakumeen esku dago”.

38. Etxalde dokumentutik eta Arriola, Iturbe eta Gómezen artikulatu batetik aterata, *Las mujeres alimentan el mundo. Soberanía alimentaria en defensa de la vida y el planeta*, hemen eskuragarri: <http://entrepueblos.org/index.php/publicaciones/1950-las-mujeres-alimentan-al-mundo-soberania-alimentaria-en-defensa-de-la-vida-y-el-planeta>

39. Arriola, Iturbe eta Gómez, 38. oin-oharrean aipatutako testuan.

40. Oro har, lortu beharreko lau autonomia-eremu aipa daitezke: fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta kulturala, eta bestelako gai batzuk, norberaren gorputzaren kontrola, sexualitatea, indarkeriarik gabeko bizimoduak, baliabide eta ondasunetarako irispidea eta kontrola, lan guztien aintzatespena eta baliotespena, oinarrizko eskubide politikoetara iristea eta gauzatzea, erabakitze eremu eta espazioetan parte hartzeko eskubidea, identitate kultural propioaren onarpenera, balioa eta autoestimua, informazio eta komunikaziorako irispidea... Gai horiek guztiak, mugimendu feministak garatutakoak funtsean, berdintasun politiketatik jorratu dira, zeharkakotasunetik eta emakumeekin egindako lan espezifikoetik.

41. *Las mujeres baserritarras. Análisis y perspectivas de futuro desde la Soberanía Alimentaria*, Isabel de Gonzalo y Leticia Urretabizkaia, hemen eskuragarri: http://www.ubu.es/sites/default/files/portal_page/files/mujeres_baserritarras.pdf

BURUJABETZEN ELKARGUNEA

3.5. Komuna denaren antolamenduaren eta ezagupen askearen gaineko burujabetza

Burujabetzaren azkeneko eremu honetan komuna edo kolektiboa denaren antolamenduarekin zerikusia duten alderdiak jaso nahi izan ditugu, nola koka daitezkeen bizitzak erdigunean, eta nola eraiki daitezkeen bestelako harremanak eta bestelako antolamendu sozial, politiko eta ekonomikoak. Egungo sistema kapitalista, testuaren beste atal batzuetan azaldu dugun bezala, pertsonen **ikuspegi indibidualistan** zentratzen da, norberaren asebetetzea bilatzen zentratuak eta merkatuan eta kontsumoan horretarako eremua aurkitzen dutenak. Beraz, indibidualtasuna erkidegoaren gainetik lehenesten da, eta **politika** erakundeetan gertatzen den zerbait bezala ikusten da, hauteskunde garaian erantzukizun guztia eta boterea eskuordetzen den lekua, eta pertsonak gero eta parte-hartze txikiagoa dute "kolektiboa den hori" eraikitzen eta antolatzen. Beste alde batetik, **informazioa, ezagupenak** eta jakintzak ere gutxien eskuetan pribatizatzen, teknifikatzen eta metatzen dira, eta ez da bermatzen haietara pertsona guztiak iristea eta haien gaineko boterea izatea. Aurrerakuntza eta garapena derrigor produktibismoa eta hazkunde ekonomikoa ardatz dituen eredu bati lotuta daudela helarazten digute, eta ekonomia ulertzeko bestelako modu alternatiboak ezkutatu edo gutxietsi egiten dituzte.

Nekazariak betidanik salatu izan dute eredu agroindustriala ez dituela inoiz aintzatetsi nekazarien jakintza eta praktika tradizionalak eta, ondorioz, baztertu egin dituela zer atzeratua balira bezala; praktiken teknifikazioa, ikerketa prozesuak lurretik eta hura ezagutzen duten pertsonengandik urrunduz; irizpideek aplikazioa, etekinen maximizazioa eta ekoizpenaren errendimendu gorena eta horri loturiko harreman sozial eta truke-harremanak eraikiz eta landa-eremuetako eta nekazarien biztanleguneetako ohiko ikasketa-formak ahultzea izan dituzte ardatz⁴².

Horren aurrean, **elikadura burujabetzaren** proposamenak eredu horri hegemonia kendu nahi izan dio, ikusmira zabaldu nahi izan du eta alde zurretik identifikaturiko gakoetan oinarrituta, alternatiben burujabetze eta eraikuntza defenditu eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomiak eta agroekologia erdigunean jarri; antolamendu sozial, politiko eta ekonomikorako ereduak eraikitzea premiazkoa dela azpimarratzen du, kapitalari eta pribatizazioari aurre egiteko, eta bizimodua antolatzeke eredu kritiko eta alternatiboak proposatzeko⁴³. Elikadura burujabetza proposamen irekia, integrala eta alternatiboa bezala definitzean esan dugun bezala, horiek ez daude alde zurretik eraikita, ez dago errezetarik. Baina ulertzen da ez dela



posible bizitza-proiektu alternatibo horiek eraikitzea pertsonen eta herrien **kontzientzia kritikoa piztu** gabe eta kolektiboa den horren antolakuntza berreskuratzea lehenetsi gabe.

Elikadura burujabetzaren proposamenetik beti galdetu izan da zer den ezagupena, edo zenbait egileren arabera, **ezagupenaren politika**; izan ere "boterea gauzatzen da egitateak modu jakin batean kokatzean, konponbidea behar duten arazoak definitzean edo ikuspegi bat beste baten gainetik jartzea sustatzen duten errealitatearen deskribapenen bidez. Ezagupenaren politikak ez du hartzen soilik jendeak nola kokatzen dituen arazoak edo nola eraikitzen duen errealitatea; horrez gain, jendeak nola aplikatzen dituen ebidentziak gizartearen eta ingurumenaren gobernu egituratzen duten erabaki politikoaren prozesuan". Beraz, ezagupena eta informaziorako irispidea funtsezkoak dira, errealitateari begiratzeko eta hura munduko kokapen jakin batetik aztertzeke elementuak ematen dizkigutelako, eta horren arabera, erabaki ahal izango dugulako agendak, lehentasunak eta nola eta nortzuen artean konpondu nahi ditugun horiek guztiak. Beraz, proposamen horrek eskatzen du ezagupena eta informazioa ez ulertzeko zer neutroa balira bezala, gutxi batzuen esku dagoena eta espezializatu eta teknifikatua gainera; eta tokiko elikadura-sistematan bezala, **birkokatzea eta nekazarien eremura itzularaztea** eskatu behar da, honetatik hurbil: "jakintza erai-



42. “Hala ere, duela ehun urte baino gutxiago esan ziguten — eta oraindik ere esaten zaigu— nekazari edo indigena izatea ezjakin izatea, superstizioa eta atzerapena dela. Ikerketa zentroetan, unibertsitateetan eta, bereziki, ikastegietan propaganda egiten da esanez dakiten bakarrak ikerlariak, agronomoak eta irakasleak direla. Milaka urtean arretaz behatzen, zaintza eta afektuzko harremanak, bilaketa kolektiboa eta elkarrekiko ikaskuntza ahaztu egin behar ziren esperimentazio-eremuetan kontrolpean ikasitakoari leku egiteko. “Estentsio” eta “transferentzia” kontzeptuak asmatu zituzten ezagupena leku jakin batzuetan —oso gutxitan— soilik gertatzen zela argi uzteko, eta planetaren gainekoak pasiboki jaso behar zuen hori”. Grain, *La agricultura: sus*

saberes y cuidados,

<http://www.grain.org/fr/article/entries/1201-la-agricultura-sus-saberes-y-cuidados>

43. Funtsezko espazioa da gainera elikadura iraunkor eta osasuntsua pertsona guztientzat bermatuko duen sistema bat kolektiboki pentsatzeko eta diseinatzeko, erosahalmena kontutan izan gabe.

44. 42. oin-oharrean aipatutako testuan.

kitzeko nekazarien sistemak, behatzeko, esperimentatzeko eta trukatzeko forma kolektibo eta pertsonalak uztartzen dituzten sistemak, jakintzari, errespetua, espiritualitatea eta tokian definituriko arau sozialen multzoa gehitzen diotenak”⁴⁴. Ezagupen dezentralizatua, askotarikoa, diziplina anitzekoa, eta antolamendu eredu alternatibo horiek eraikitzeko.

Horrela bada, ezagupenen eta informazioaren gaineko burujabetza defenditzeak duen garrantzia oinarri hartuta, gure ustez, funtsezkoa da erabakiak hartzeko prozesuak txertatu diren markoak zabaltzea eta birdefinitzea, aukeren gaineko eztabaida eta haien eraikuntza lehenetsita, eta elkartzunean eta elkartrukean oinarrituriko espazioak eta harremanak bultzatuta. Horrela ikusita, politika publikoetatik urrun dauden ideiak diruditen arren, gure ustez, elikadura burujabetzarekin konprometiturik dagoen administrazio batek **komuna dena antolatzeko beste modu batzuk**, proiektu kolektibo alternatibo horiek definitzeko espazioak, denborak eta baliabideak bermatu beharko lituzke.

GEHIAGO JAKITEKO

ONDASUN NATURALEN GAINEN BURUJABETZA

La tierra, un debate a retomar, Revista Soberanía alimentaria, Biodiversidad y Culturas, 4. zenbakia, 2011ko urtarrila, hemen eskuragarri: <http://www.soberaniaalimentaria.info/publicados/numero-04/39-portada-n04>

Concentración y acaparamiento de tierras, Revista Soberanía alimentaria, Biodiversidad y Culturas, 18. zenbakia, 2014ko urria, hemen eskuragarri: http://www.soberaniaalimentaria.info/imagenes/descargas/sabc_18.pdf

Hambrientos de tierra: los pueblos indígenas y campesinos alimentan al mundo con menos de un cuarto de la tierra agrícola mundial, GRAIN txostena, hemen eskuragarri: www.grain.org

El acaparamiento global de tierras, TNI y Fuhem Ecosocial, hemen eskuragarri: <http://www.tni.org/sites/www.tni.org/files/download/landgrabbingprimeres.pdf>

El carro delante del caballo. Semillas, suelos y campesinos ¿Quién controla los insumos agrícolas? 2013ko Txostena, ETC Group, hemen eskuragarri: <http://www.etcgroup.org/es>

Nuestras semillas, nuestro futuro, Cuadernos de La Vía Campesina 6. zk., 2013ko ekaina, hemen eskuragarri: <http://viacampesina.org/downloads/pdf/sp/ES-notebook6.pdf>

El agua, como la vida, no es una mercancía. Propuestas de implementación del derecho humano al agua y al saneamiento, y luchas contra la privatización. Ecologistas en Acción eta Ingeniería sin Fronteras, hemen eskuragarri: http://www.catalunya.isf.es/menu_publicaciones/El-agua-como-la-vida-no-es-una-mercancia.pdf

(Bideoa) *Defendiendo los bienes comunes; construyendo soberanía alimentaria*. EHNE Bizkaia eta Mugarik Gabe, hemen eskuragarri: <https://vimeo.com/112073003>

(Bideoa) *Haziak eta jakintza. Basortu Elkarte (Zeberio)*. Hemen eskuragarri: <https://vimeo.com/108093607>

ENERGIA BURUJABETZA

La Vía Campesina, Los pequeños productores y la agricultura sostenible están enfriando el planeta agrario: <http://viacampesina.org/es/index.php/temas-principales-mainmenu-27/biodiversidad-y-recursos-gencos-mainmenu-37/386-los-pequeproducers-y-la-agricultura-sostenible-estenfriando-el-planeta> <http://viacampesina.net/downloads/PAPER5/SP/paper5-SP.pdf>

Amigos de la Tierra, Alimentos kilométricos txostena. Las emisiones de CO2 por la importación de alimentos al Estado español, hemen eskuragarri: <http://www.alimentoskilometricos.org/>

Euskal Herriaren burujabetza energetikorantz joateko gida. Maila globalean defendatu beharreko 13 pauso. Maila lokalean egin beharreko 13 pauso, Xabier Zubialde Legarreta, hemen eskuragarri: <http://www4.gipuzkoa.net/MedioAmbiente/gipuzkoaingurumen/adj/documentacion/Euskal%20Herria%20burujabetza%20enerjetikorantz.pdf>

(Bideoa) *Hacia la soberanía energética de Navarra, una propuesta de debate*, hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=2XblwUBL1w>

TOKIKO ELIKADURA-SISTEMEN GAINEN BURUJABETZA

Ecologistas en Acción, La agroecología, hacia un nuevo modelo agrario. Hemen eskuragarri: http://www.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf_cuaderno_17_agroecologia.pdf

VSF, Cortocircuito. Por una alimentación sana, cercana y justa (tokiko administrazioetarako kanpaina, ikerketa eta gida praktikoa) hemen eskuragarri: <http://vsf.org.es/cortocircuito>

La soberanía alimentaria en las mesas del colegio, Carles Soler, Amigos de la Tierra, hemen eskuragarri: http://www.tierra.org/spip/IMG/pdf/soberania_alimentaria_cole.pdf

Distribución agroalimentaria: Impactos de las grandes empresas de comercialización y construcción de circuitos cortos como: redes alimentarias alternativas, Pepe Ruiz Osoro, Lan-Koadernoak, 61zkb, Hegoa, hemen eskuragarri: http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/305/Cuadernos_Hegoa_n%C2%BA61.pdf?1390298628

(Bideoa) *Bide Berriak. Elikadura Burujabetza Euskal Herrian*, Bizilur eta EHNE-Bizkaia, hemen eskuragarri: www.bideberriak.eus



EMAKUMEEN BURUJABETZA ETA AUTONOMIA

Entrepueblos, Las mujeres alimentan al mundo. Soberanía alimentaria en defensa de la vida y el planeta, hemen eskuragarri: <http://entrepueblos.org/index.php/publicaciones/1950-las-mujeres-alimentan-al-mundo-soberania-alimentaria-en-defensa-de-la-vida-y-el-planeta>

Las mujeres baserritarras. Análisis y perspectivas de futuro desde la Soberanía Alimentaria, Isabel de Gonzalo eta Leticia Urretabizkaia, hemen eskuragarri: http://www.ubu.es/sites/default/files/portal_page/files/mujeres_baserritarras.pdf

Mundubat, *Ecofeminismos rurales. Mujeres por la Soberanía alimentaria*, hemen eskuragarri: https://redecofeminista.files.wordpress.com/2012/11/ecofem_rurales_web.pdf

De vidas vivibles y producción imposible, Amaia Pérez Orozco, hemen eskuragarri: <http://www.decrecimiento.info/2012/02/de-vidas-vivibles-y-produccion.html>

(Bideoa) *La Vía Campesina, Mujeres Campesinas; Sembradoras de Luchas y Esperanzas! Mujeres por la Soberanía alimentaria*, hemen eskuragarri: <https://vimeo.com/67864437>

(Bideoa) *Propuestas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible*, Yayo Herrero: <https://www.youtube.com/watch?v=Eq-jyslgnls>

KOMUNA DENAREN ANTOLAMENDUAREN ETA EZAGUPEN ASKEAREN GAINEKO BURUJABETZA

Educación popular, Revista Alai, América Latina en movimiento, 2014ko urria, hemen eskuragarri: <http://alainet.org/es/revistas/165260>

La agricultura, sus saberes y cuidados, Grain, hemen eskuragarri: <http://www.grain.org/fr/article/entries/1201-la-agricultura-sus-saberes-y-cuidados>

Universidades de la tierra. Red de formación en agroecología y soberanía alimentaria, hemen eskuragarri: <http://universidadesdelatierra.org/>

(Bideoa) *IALA Sembrando Agroecología*, La Vía Campesina TV, hemen eskuragarri: <http://tv.viacampesina.org/IALA-Sembrando-Agroecologia?lang=en>

IV. LABORANTZA ESKULIBURUA

Hurrengo orrietan burujabetzaren bost eremu horiek landuko ditugu **Laborantza Eskuliburua** izeneko atalean. Laborantza Eskuliburua agiri honen alderik zehatz eta praktikoena izatea nahi dugu, eta bertan, elikadura burujabetzak eskaintzen dituen gakoetatik abiatuta, tokiko mailan, hautatutako bost eremuetan gara daitezkeen **lan-ildoetako** batzuk aurkeztuko ditugu.

Horrela, lehen aipatu dugun bezala, jarduera-ildoak zehazteko, ahalegindu gara, alde batetik, Euskal Herrian abian diren **esperientziak jasotzen**, eta bestetik, hori osatzeko, **beste-lako proposamen alternatiboak identifikatzen**, beste tesuinguru batzuetan edo beste ikuspegi batzuetatik garatzen ari direnak edo nekazarien mugimenduak berak proposatzen dituenak. Agiriaren atal honi Laborantza Eskuliburua deitu diogu, nekazaritza eremuarekin nolabaiteko sinbolismoa biltzen.


Eskuliburu honetako edukiak hiru ataletan antolatu ditugu.

3. Koadroan ikusi dezakegun bezala:

- **printzipioak** atalean, gure udalerrietan elikadura burujabetza erein baino lehen eta erein bitartean kontuan hartu beharreko ideiak jaso ditugu, politika berriak abian jartzen lagun diezaguket **gogoeta orokorrak**;
- **tresnak** atalean lanabesak sailkatzen eta ordenatzen ahalegindu gara, gero udalerriek erein ahal izateko; hau da, udalerrri batek tokiko proiektu bat garatzeko abian jar ditzakeen **ekintza moten** tipologia eta ezaugarriak.
- **laborantza-fitxak**, lehenetsiriko burujabetza bakoitzeko bana, eta informazio hau jasotzen dutenak: burujabetza-eremu bakoitzean lortu nahi ditugun helburuak; litezkeen jarduera-ildoak (haziak), helburu horiek lortzeko egin dezakeguna, lehen definitu ditugun tresnen arabera antolatuak; eta gure lurraldeko hainbat tokitan garatzen ari diren zenbait bizpahiru esperientziaren aurkezpena (ortu ereduak), beste batzuentzat erreferentzia edo inspirazio izan daitezkeenak.

Laborantza-fitxen atala lantzeko, sakontzeari baino gehiago, **hedadurari eta integralitateari eman diegu garrantzia**. Horrek esan nahi du, burujabetza bakoitzak eta, batzuetan, identifikaturiko ildo bakoitzak ere, gida bat edo batzuk beharko lituzkeela garatzeko edo azaltzeko. Beraz, informazioa nahiko modu eskematikoan azaldu dugu. Besteak beste, eremu bakoitzean litezkeen helburu batzuk lehenetsi ditugu, eta ez gara sartu identifikaturiko jarduera-ildo bakoitza garatzeko eman beharreko urratsak edo inplementaziorako behar diren alderdi teknikoagoak zehazten. Alderdi horietan guztien sakontzeak agiri honen aukera guztiak gainditzen ziotuen, baina gure ustez, lan interesgarri eta beharrezkoa izan daiteke etorkizuneko ikerketa eta sistematizazio prozesuetarako.

3. KOADROA



LABORANTZA ESKULIBURUA

4.1. Gure printzipioak

Elikadura-burujabetza gure marko teoriko zabala bada, hiru gakoak gure zeharkako ardatzak eta hautatutako bost burujabetzak haiek garatzeko eremuak badira, jarraian aurkeztuko ditugun **printzipioak** tokitik abiatutako bestelako politika publikoak abian jartzeko aztertu beharreko ikuspegiak dira. Beraz, printzipio horiek bilatzen dute, alde batetik, marko teorikoan eta aurreko ataletan aurkeztutako ideia batzuk **laburtzea**; eta bestetik, laborantza-fitxa horietan jasotako informazioaren irakurketa **orientatzea**. Hamar dira, gure ustez, gai nagusiak:

- (1) Lehenik eta behin, gure iritziz, funtsezkoa da udalerriek bameratzea elikadura burujabetzaren ikuspegia berebizikoa dela haien politikak eraikitze eta garatzeko. Horrek eskatzen du proposamen honekiko **konpromiso politiko argia**, diskurtsoetik harago doana. Oraindik zabalik eta eraikitze bidean dagoen ikuspegi integral eta alternatibo hori praktikara eramateko erronka jasotzea esan nahi du, hari datxezkion arriskuak eta potentzialitateak onartuta.
- (2) Ideia horri jarraituta, nolabaiteko **ziurgabetasuna onartu** behar da, eta errezeta itxirik ez bide eginik ez dagoela ulertu behar da, bai eta agiri honen asmoa ez dela erantzun guztiak ematea ere. Baina baditugu inspiratzeko balio dezaketen proposamenak eta esperientziak, gure testuinguru eta errealitatetara egokituriko alternatibak eraikitze.
- (3) Funtsezkoa da **sormena**; eskumenen, aurrekontuko muga, araudien, "egiteko ohiko moduen" marjina estuegiaren aurrean, proposamen horiek beste parametro eta begirada batzuetatik abiatuta eraiki behar ditugu; bestelako leihoak zabaldua, eta bidea, berez, ikasketa-prozesuaren parte bat dela eta bestelako lanketak behar dituzten bestelako erronken aurrean gaudela onartu behar dugu.
- (4) Beraz, **parte-hartze eta eraikuntza kolektiboa** guretzat zer den birplanteatu behar dugu goitik behera, egungo modu ordezkatu eta perfil baxukoak berrikusi eta bestelako metodologia, tresna eta espazio batzuetatik eraikitzaiko politiketarantz jo. Herritarren eta administrazio publikoen rola aldatu behar dira. Eta onartu egin behar dugu **emaitza** edo **lorpenak** ez ezik *-zer-* oso garrantzitsuak direla **prozesuak** ere *-nola* eta *noren artean*. Beraz,

beharrezkoa da prozesuak eraikitzea baina **ezagupena** adituztat jotzen diren pertsonen eskuetan egon gabe; aitzitik, taldean eta modu partekatuan eraikia behar du, eta horietan gehiengo zabal eta askotarikoaren **parte-hartzea** bermatu behar da, baserritarren presentzia aktiboa bermatuta beti.

- (5) Beste alde batetik, eta gaien sektorializazio eta zatiketaren aurrean, tokiko politiken eremuan (eta administrazio publikoko beste maila batzuetan ere) oso ohikoa dena, gure ustez, **ikuspegi holistikoa, integral eta zeharkakoa** garatu behar dugu tokiko planak eta proposamenak definitzerakoan. Gai hori funtsezkoa da guretzat, ikusten dugulako sarritan udalerrietako eremu askotan ekimen interesgarriak garatzen ari direla baina zuzenean inplikaturik egon litezkeen beste eremu batzuk ez dutela horren berri. Beste alde batetik, erronka handiak ditugu aurrean; beraz, beharrezkoa da elikadura burujabetza politika guztietan txertatzea eta ikuspegi nabarmen eta zeharkakoa izango dela bermatzea. Azkenik, diziplinartekotasunaren edo integralitatearen aldeko apustua egiteak politiken nolabaiteko koherentzia ekar lezake, bultzatu nahi dugun eredu alternatiboa lortzeko eragin kontraesankorrak eragiten ari diren ekimenak abian jartzea eragotziz. Gure ustez ezin zaie erronka konplexuei begirada xume edo partzialetatik aurre egin. Eta gai hori garrantzitsua da gure ustez proposamen horien garapena bultzatu behar duten talde edo erakundeak definitzerakoan.
- (6) Agiri honetan jarduera-eremu globala eskaini nahi dugu, udalerrri bakoitzean txertatu eta zehaztuko dena hango **errealitatearen eta tokian tokiko ezaugarrien arabera**. Eraiki beharreko proiektuak definitzeko hainbat alderdi hartu behar dira kontuan: udalerrri horien tamaina eta ezaugarri sozio-demografikoak; landa-eremuan dauden ala hiri-eremuan; nolako geografia edo paisaia duten eta lurrik edo ondasun naturalik baduten; edo bertako biztanleak nola antolatuta dauden, besteak beste. Eta baliteke proiektu horien oinarriak, lehenetsiriko jarduera-eremuak edo estrategiak elkarren desberdinak izan behar izatea. Baina hori hala izanda ere, garrantzitsua da gure ustez **komunak** izan behar duten **hiru ideia** azpimarratzea: ondo bizitzeko tokiko proiektu kolektibo hauek, gure herriak izatea nahi dugun hori eraikitze, politikoki orientatuko gaituzten **erreferentzia-markoak** eduki behar ditugu. Bigarrenik, eta aurretik esan dugun bezala, eremu horiek

4. KOADROA

10 PRINTZIOPIO

1. Konpromiso politiko argia
2. Ziurgabetasuna onartu
3. Sormena
4. Parte-hartze eta eraikuntza kolektiboa
5. Ikuspegi holistiko, integral eta zeharkakoa
6. Herri bakoitzaren errealitatera eta tokian tokiko ezaugarrietara egokituta
7. Administrazio publikoa erreferente bihurtu
8. Gizarte zibilak eta erakunde edo mugimenduek garatzen dituzten proiektuen garrantzia
9. Beste maila edo eremu batzuekin lotura
10. Epe luzerako prozesuak

gure errealitatearen ikuspegi **integral eta zabal** bati erantzun diezaieten ahalegindu behar gara; eta hirugarrenik, ez da ahaztu behar elikadura burujabetzaren proposamenen elikadurak, elikagaien ekoizpenak eta nekazaritzan oinarritutako ekonomiek funtsezko garrantzia dutela, eta hori bermatzeak proiektu horien ardatzetako bat izan behar duela. Hau da, proposamen honetarako funtsezkoa da **gure lurraldeetan elikagaien ekoizpena eta baserritarrak handitzea, bultzatzea eta babestea**, bere sarbidea herri guztiarentzat bermatuz; ez neurri bakar gisa, baina bai neurri nagusi gisa, elikadura eskubide izateko ideian aurrerapausoak eman nahi baditugu. Horretarako hainbat tresna tekniko eta politiko erabiliko ditugu, plangintzarako fase edo uneak zehaztuko ditugu eta beharrezkoak diren trukerako edo elkarlanerako espazioak sortuko ditugu. Eredu aldaketa, orain arte azaldu dugunaren arabera, hainbat eremutan gertatu behar da, baina funtsezkoa da horretarako baldintza materialak sortzen joatea.

- (7) Gure ustez, **administrazio publikoak**, kasu honetan udalek, arlo horretan **erreferente** bihurtu behar dute; beraz, kontua ez da soilik kanpora begirako ekintzak egitea, baizik eta administrazio barrura begira lan egitea, elikadura burujabetza zeharkako ikuspegi politiko izateko, horrekin

bat datozen udal eta administrazio publikoetatik hasi behar dela ulertuta. Horrela, udalen zeregina askotarikoa da: sustatzaile, eraldaketan ahalbidetzaile eta dinamizatzaile, eta horietan zuzenean inplikaturik dagoen eragile, ondasun eta zerbitzuak ekoizten eta kontsumitzen dituen subjektu den aldetik.

- (8) Agiri honetan, eta Euskal Herriko elikadura burujabetzaren errealitateari **begirada zabal**a eskaintzeko asmoari jarraituz, udalak aitzindari edo sustatzaile dituzten ekimenez gain, beste batzuk ere garrantzitsuak iruditzen zaizkigu. **Gizarte zibilak eta erakunde edo mugimenduek garatzen dituztenak** ere garrantzitsuak iruditzen zaizkigu; batzuetan administrazio publikoen nahietatik kanpo jardun dute, eta gure iritziz, zer ikasi eskaintzen duten proiektua dira, eta izaera eraldatzailea duen administrazio batek erraztu eta indartu egin ditzake.
- (9) Udaletako errealitatea ez da gauza bakana, **beste maila edo eremu** batzuekin lotuta dago. Gure lurraldearen errealitate, neurri eta administrazio-antolmendua kontuan hartuta, gure ustez garrantzitsua da eskualdeko ikuspegia ere gehitzea, zentzu zabalean (lurralde historiko bakoitzean horrek hartzen duen forma zeinahi dela). Udalerrien arteko aliantza, osagarritasuna eta elkarlana oso iguripen interesgarri eta beharrezkoa da, gure ustez, elikadura burujabetzaren paradigmak dakartzan eraldaketa sakonei ahalik eta modu egokienean ekiteko.
- (10) Azkenik, uste dugu beharrezkoa dela onartzea **epe luzerako prozesuen** aurrean gaudela, eta horiek garatzeko hainbat tresna behar ditugula, hala nola, analisia eta plangintza, eta lorpenen eta eragozpenen segimendu eta etengabeko balioespena. Eta epe luzerako identitate horrek talka egiten du, aurrez aurre, hauteskunderen erritmo eta dinamikekin. Proiektu horien eraikuntzan eta **parte hartzea** eta herritarrek eta baserritarren proiektu horiek **bereganatzea** *sine qua non* baldintza da garatu ahal izateko; baina haien jarraitutasunerako bermea ere badira, irmoago eta independenteago bihurtzen ditu, eta dituzten oinarri sendoei esker, bertan parte hartzen dutenentzat errazago da defendatzea.

LABORANTZA ESKULIBURUA

4.2. Gure tresnak

Atal honetan, ikuspegia, gakoak eta zer eremutan inplementatu (gure laborantza-arloak, bost burujabetzak) eta kontuan hartu beharreko printzipioak azaldutakoan, hori guztia garatzeko zer tresna ditugun identifikatuko dugu. Zer ekintza bultza dezakegu tokiko politika publiko horietatik? Zer jarduera mota egin dezakegu elikadura burujabetzan oinarrituriko ondo bultzeko eredu alternatibo hori abian jartzeko?

Gure iritziz, jarraian azalduko ditugun ideiak “tokiko garapenerako” plan bat abian jartzeko hainbat une zein elikadura burujabetzaren ikuspegia inplementatzeko ikuspuntu desberdinak izan daitezke. Laborantza-fitxetan, proposatutako lanildoak zer tresna diren arabera ordenatzen ahalegingundo gara.

0 tresna. Eraikuntza kolektiboa eta elikadura burujabetza prozesuen laguntza eta haien jasangarritasuna bermatzeko baliabideen definizioa.

Tresna honetan proposamenen parte-hartze bidezko eraikuntza bermatuko duten prozesuen definizioarekin zerikusia duen guztia aipatzen dugu (*nola* eta *nortzuk*): eragile garrantzitsuen identifikazioa; parte hartzeko espazioen sorrera; prozesuen definizioa eta zehaztapena; parte hartzeko formazio-tresnak zehaztea; informazioaren eta/edo komunikazioaren kudeaketa; eta herritarrek segimendua eta auditoria egiteko mekanismoak ezartzea. Horrez gain, garrantzitsua da prozesuen jasangarritasuna bermatzeko baliabideak –zentzu zabalean ulertuak– eskuratzea; aurrekontuak eta pertsona kopurua kontuan hartuta, jakina, baina bai eta eragileen arteko ezagupen-trukaketa eta/edo egiturak eta sareak sortzea ere, besteak beste. Elikadura burujabetza prozesuen kalitatea eta izaera eraldatzailea bermatzeko funtsezko tresna dela uste dugu, eta gainera, burujabetzen elkargunean aipatu ditugun eremu guztietarako komuna eta baliogarria; beraz, 0 tresna izendatu dugu, eta laborantza-fitxetatik kanpo atal berezia dauka.

1. tresna. Elikadura burujabetzaren betaurrekoak jantzi eta gure errealitatea ezagutzea eta aztertzea. Tresna horrek zerikusia dauka burujabetzaren bost eremuetan landu nahi diren alderdiei buruzko diagnostikoak, azterketak, analisiak egitearekin, eta haiei buruzko informazioa, datuak eta ezagupenak zabaltzearekin. Tresna hau berebizikoa da, begirada zabaltzea eta errealitatea aztertzea funtsezkoa delako hura eral-

datu nahi duten prozesuei ekiteko.

2. tresna. Gure proposamena eraikitzea eta hori garatzeko egin nahi ditugun urratsak zehaztea. Tresna honen barruan proiektuen plangintza eta lanketa-prozesuak egongo lirateke, izaera integralekoak eta sektorialagoak izanik. Jardueraren helburuak, ildo espezifikoak, kronogramak, espazioak eta inplementatzeko beharrezko baliabideak finkatzea litzateke.

3. tresna. Proposamen alternatibo horiek abian jartzea ahalbidetuko diguten araudi-marko berriak egitea. Tresna hau araudien, dekretuen, erakundeen deklarazioen, eta abarren garapenari dagokio, hemen proposatzen den elikadura burujabetza eta burujabetzen elkargunea garatzeko eta xertatzeko oinarriak finkatzeko eta espazio posibleak zabaltzeko.

4. tresna. Proiektu zehatzen garapenaren bidez, ideiak gauzatzen joatea. Laugarren tresna honetan ekimen horiek aipatzen ditugu, burujabetza-eremu bakoitzean definituriko helburuak lortzen lagunduko digutenak. Ekimen eragileak izango lirateke, eraldaketa orokorrako batzuk bideratzeko baliogarriak.

Beraz, tokiko administrazio publikoan erabilgarri ditugun lau tresna, elikadura burujabetzatik eta elikadura burujabetzarako politikak bultzatzeko eta ezagutzeko, planifikatzeko, arautzeko eta gauzatzeko aukera ematen digutenak; eta beste bat orokorragoa, hori guztia egiteko behar diren prozesuak, espazioak eta baliabideak definitzeko premia azpimarratzen duena. Tresna horiek ez dira bakanduta ikusi behar, elkarri lotuta eta elkarri atxikita daude eta. Jarraian, 0 tresna deitu duguna aurkeztuko dugu, laborantza-fitxak lantzen hasi baino lehen.

4.3. Prozesuen eta baliabideen garrantzia

Lehen esan dugun bezala, 0 tresnak, identifikaturiko burujabetza-eremu guztietarako komuna denak, prozesuen erai-kuntza kolektiboari laguntzari eta haren jasangarritasunerako beharrezkoak diren baliabideen definizioari egiten die aipamen. Gai bi horiek, gure ustez, oso garrantzitsuak dira, prozesuak elikadura-burujabetzaren ikuspegi politikotik bultzatzeko bi ideia nagusiri erantzutea benetan bermatu nahi badugu: **denon partaidetzaz egindako herri-erakuntza** alde batetik, eta horretarako administrazioak –tokikoak ere bai– jarduteko izan dituen oinarrietako batzuk birformulatu beharko lirateke, parte-hartze handiagoa, erabakiak hartzeko prozesuen demokratizazioa eta gobernu, esaterako; eta bestetik, elikadura-burujabetzaren aldeko apustua ez dadin geratu izaera politikoko adierazpen hutsetan, horren ordez, **baliabi-deak** erabil daitezela, zentzu zabalean, garatu ahal izateko.

Administrazio publikoan izan dira eta badira parte hartzeko mekanismo eta kanalak, baina sarritan, administrazioak berak alde zuzenetik definiturikoak izan dira, lekukotasun-izaera hutsa izan dute, eta kontsultarako izan dira soilik, azken erabakian eragin zuzenik gabe. Horregatik uste dugu beharrezkoa dela, lehenik eta behin, tokiko administrazioek apustu garbia egin dezaten politika publikoen definizioa eta lanketa jende eta talde guztiengana zabaltzeko, horretarako behar diren tresna, prozesu, espazio eta baliabide guztiak martxan jarriko direla bermatuta. Beraz, lehenengo urratsa izango litzateke parte-hartzea nahi izatea eta beharrezkoa dela ulertzea, administrazioak konpromiso gisa onartzea eta lurraldeetako pertsonak parte-hartzearen garrantziaz jabetzea. Bigarrenik, parte hartzen jakitea eta egin ahal izatea oso garrantzitsuak dira, eta, halakoetan, administrazioak funtsezko zeregina dauka informazioa, espazioa, tresnak eta horretarako baliabideak ahalbidetzeko.

Horrela, 0 tresna horretan, honako ideia hauek proposatzen ditugu, laborantza-fitxetan jarraian aurkezten ditugun jardueraildo guztietarako baliogarriak.

Prozesuei dagokienez

- Arreta berezia jartzea politika horien definizioan **nortzuk** parte hartu behar duten eta nortzuk parte hartuko duten identifikatzeko eta jakiteko. Tresna desberdinak erabiltzea, eragileen azterketa kasu, alternatibaren erakuntza zabal eta kolektiboa bermatzeko. Baserritarren, bereziki emakumeen, elikadura burujabetza lantzen duten nekazarien elkarteak eta tradizionalki espazio publikoan presentzia txikiagoa izan duten taldeen (gazteen, pertsona migrat-

zaileen...) presentzia bermatu behar da.

- Politika horien **erakuntza-prozesua** definitzea: nola egingo dugun, nortzuen artean, eta parte-hartzea berdinkidetasunez eta pertsonen aniztasuna kontuan izanda egingo dela bermatzeko zer mekanismo erabiliko ditugun. Sarritan ia emaitzei soilik egiten zaie kasu, baina proposamen honetarako, funtsezkoa da ulertzea **nola guztiak** oso garrantzitsuak direla; prozesuak ikasteko uneak eta prozesu horietaz jabetzeko eta indartzeko uneak dira. Puntu honetan, beharrezkoa da administrazioaren hainbat mailatan abian jarri diren parte-hartze prozesuetatik ikastea (aurrekontuak, tokiko agenda 21, kontsultak...), eta horietatik elementu baliogarriak ateratzea.
- Parte-hartze horretarako **espazioak** zehaztea. Gure ustez garrantzitsua izan daiteke elikadura-burujabetzaren politikak parte-hartzearen bidez eraikitzea udalerrira baterako funtsezkoa dela onartzea, hura definitzeko, hari **laguntzeko eta ebaluatzeko organo bat izendatuta**. Aukeratako bat izan daiteke Elikadura Burujabetzarako Kontseiluak edo Elikadura Kontseiluak (Ingalaterrako hiri batzuetan egin den bezala⁴⁵) edo elikadura-burujabetzaren aldeko mugimenduari atxikiriko erakundeek parte har dezaten espazioak eratzea (Foroak edo Guneak⁴⁶, kasu). Aukera zeinahi dela, eta prozesu guztiak testuinguru eta egoera desberdinetara egokituta egon beharko dutenez, espazio berberak beharko dituztela ulertuta, bai da garrantzitsua taldean eraturako espazioak izatea, baliabi-deak edukitzea eta gai horretako udal-politiketan benetako eragina eta erabakitzeko gaitasuna edukitzea. Eta nola ez, bertan baserritarrek parte hartuko dutela bermatzea.
- **Esperientzien, ezagupenen, informazioaren eta abarren trukea** prozesu hauetako ardatz izatea beharrezkoa da. Administrazioak bermatu egin behar du politika horien definizioan parte hartuko duten pertsonak eta taldeek beharrezkoa duten informazio eta ezagupen guztiak dituz-

⁴⁵. Esaterako *Cardiff Food Council* esperientzia, <http://sustainablefoodcities.org/findacity/cityinformation/userid/42>

⁴⁶. Interesgarria Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko Zuzendaritzaren esperientzia Gunea eratzea bultzatuz, Gipuzkoako Berdintasuneko Foru Kontseilua, <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/helburuak-eta-zereginak>

LABORANTZA ESKULIBURUA

tela; informazio eta komunikazio bideak ezarri behar dira; eta batez ere, onartzea egiteko moduei eta erabaki posible eta egokiei buruzko ezagupena eta esperientzia ez dela gai tekniko hutsa, eta ez dagoela administrazio lan-gileen esku, partekatu behar den zerbait dela baizik. Eta horrek indar handiagoa hartzen du elikagaien ekoizpenari eta nekazaritzako ezagupenak eduki beharri buruz ari bagara.

- Azkenik, prozesu horien **segimendua, kontrola** eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ezarri behar dira. Auditorien moduko tresnek politika horiek nola gauzatzen ari diren jakiteko balio dezakete, erantzukizuna eskatzeko, baina bai eta aurrerapausoak eta erronkak ulertzeko eta, batzuetan, horiek guztiak testuinguru konplexu eta aldakorretara moldatu beharra ulertzeko ere.

Baliabideei dagokienez

Politika publiko eraldatzaile horiek eraikitzeke baliabideez hornitu behar hori honako honetan gauzatzen da, gure iritziz:

- Politika horiek eraikitzeke eta inplementatzeko **aurrekontu** espezifikoak zehaztea.
- Politika horiek bilakaera dinamiza eta lagun dezaketen **personak** edukitzea. Puntu horretan, berdintasun-politikak edo lehenengo sektorea sustatzeko proiektuak garatzen denbora daramaten udalerrietako esperientziek argi erakusten dute prozesu horiek dinamizatzeko langile espezifikoak behar direla. Beraz, gure lurraldeetan elikadura-burujabetzarako politikak Dinamizatzeko Zerbitzuak sortzea interesgarria dela uste dugu: politiko eta teknikoki formatua dagoen jendearekin⁴⁷.
- Administrazio publikoen barruan **diziplina askotako lan-taldeak** eraiki behar dira, elikadura-burujabetzarako politikak abian jartzeko eta proposaturiko burujabetzen elkarguneari ekiteko hainbat alderdi bete behar dira: udal-lan hainbat sailen parte-hartzea eta sailen arteko lan koordinatu eta egituratua, teknikari eta politikarien parte-hartzea eta konpromisoa alde batetik eta, bestetik, talde horietan elikadura-burujabetzan esperientzia duten pertsonak edo taldeak (ez da derrigor teknikari izan behar) txertatzea.
- Azkenik, **egituraketa gauzatzeko sare eta espazioen eraikuntza**. Alde batetik, elkartrukerako eta ikasketarako



⁴⁷. Hemen Urduñako Ekoizpen Zerbitzua, edo halako politikak garatzeko langile bereziak dituzten beste udal-erri batzuk nabarmendu nahi ditugu, Aramaio adibidez. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko Zuzendaritzaren esperientzia, Berdinbideak eta Berdinbidean Txikiak programekin; Gipuzkoako udal-erri txikiak berdintasuneko politikak garatzeko duten baliabide eta aukera gabeziari erantzuteko programa, <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/142044/BERDINBIDEAN+que+es+abril+2014+eu/41b3d524-32bf-465b-b7b4-c67832cc1e93><http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/142044/BERDINBIDEAN+TXIKIAK+que+es+abril+2014+eu+web/de553bcb-869f-4d61-b87e-76774b0714f0>

⁴⁸. Honetan ere berdintasun politiken eremuan metatutako esperientzia ere azpimarratu behar dugu, esaterako Eudelen Berdinsarea, <http://www.eudel.eus/destacados/berdinsarea/?lang=eu>, edo Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Sarea, <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/142305/RED+de+t%C3%A9cnicas+aytos+eu/7c0e4991-4edd-44bf-80a1-1a1de4bcd69a>



multzo:

- a) **Ekoizpenaren helburuak:** atal honetan eta burujabetza-
ren eremu bakoitzean, honako galdera honi erantzuten
ahaleginduko gara: norantz jo nahiko genuke epe ertain-
luzean? Asmoa ez da eremu bakoitzeko helburu posible
guztiak jasotzea, gure marko teorikoan azaldutako ideie-
kin nolabaiteko lotura dutenak aipatzea baizik, eta zehaz-
kiago, burujabetzen elkargunea puntuan aurkeztutako
alderdiak.
- b) **Hazien kutxa:** atal honetan lan-ildoak jaso nahi izan di-
tugu, definituriko helburuak lortzeko bidean aurrera egi-
teko zenbait ideia. Aurreko puntuan deskribatu ditugun
tresnen arabera aurkezten eta antolatzen ahalegindu
gara.
- c) **Ortu ereduak:** ezagupenen eraikuntza kolektiboaren eta
nekazaritzako metodologiaren ideari jarraituz, atal hone-
tan beste esperientzia batzuetatik ikasi nahi dugu. Hori
dela eta, lehendik aipaturiko zenbait ekimen eta lan-ildori
lotuta egonik, inspirazio-iturri iruditu zaizkigun zenbait eki-
men azpimarratu ditugu.

Informazioa labur azalduko dugu, taula batean, eta
identifikaturiko esperientzien kasuan, erreferentziaren bat
ere atxiki dugu haiei buruzko informazioa zabaltzeko.

espazioak eraikitze potentzialtasuna balioestea, maila
askotakoa eta udalerrien presentziarekin; baina bai eta
udalaz gaindiko organoen presentziarekin ere: mankomu-
nitateak, tokiko eta landa-garapenerako agentziak edo ad-
ministrazioaren bestelako mailetakoak ere, aldundiak,
kasu. Interesgarria iruditzen zaigu euren politiketan elika-
dura-burujabetza bultzatzen ari diren Udalerrien Sareren
bat sortzea, haien jardunak ezagutzeko, sendotzeko eta
trukatzeko espazio gisa⁴⁸.

4.4. Laborantza fitxak

Laborantza Eskuliburuaren printzipioak eta tresnak aur-
keztu ondoren, Laborantza Fitxak deitu ditugunak aurkez-
tuko dizkizuegu. Burujabetza-eremu bakoitzeko bana
aurkituko dugu, eta horietako bakoitzean hiru eduki-

ONDASUN NATURALEN GAINEKO BURUJABETZA

Ekoizpenaren helburuak

Burujabetza-eremu honen aurkezpenean esaten genuen bezala, gure ustez natura ondasun bat da, eta ez baliabide hutsa. Lurra, basoak, ura, haziak... ezinbestekoak dira elikadura burujabetzarako. Horien egungo pribatizazioaren eta espekulazioaren aurrean, elikadura burujabetzak defenditzen du aniztasun eta jasangarritasun iturri direla eta, beraz, zaindu eta babestu egin behar ditugula. Horretarako, gure lurraldeei bota beharreko begirada, ekoizpenaren eta ekonomiaren ikuspegitik ez ezik, ikuspegi ekologiko, kultural eta politikotik ere izan behar da, eta abiapuntu horretan oinarrituta antolatu behar ditugu. Nekazaritzan oinarrituriko ekonomiak eta agroekologia funtsezkoak dira antolamendu hori jasangarritasunean ardatzuta egiteko.

Horrela, bada, burujabetzaren eremu horretan, honako helburu hauek finka ditzakegu:

- 1.1. Ondasun horien izaera komunala edo publikoa defenditzea eta espekulazio, pribatizazio eta uzte prozesuen aurrean babestea.
- 1.2. Ondasun naturalen kontrola, erabilera eta kudeaketa jasangarritasun ekologikoan, ekonomikoan eta politikoa oinarrituta eta parte-hartze prozesuen bidez antolatzea.
- 1.3. Lurraren kasuan, lurra berreskuratu, defenditu, birbanatu eta sustatzea elikadura burujabetzan oinarrituta ekoizteko.
- 1.4. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren aniztasuna sustatzea eta bertako barietate eta arrazak, modifikatu gabeak, defenditzea.

Hazien kutxa

1. Ezagutzea (E)

- E. 1.1.1. Ondasun naturalen erabilera aztertzea, berezi arreta eginez erabilera tradizionalak eta komunalak ezagutzeari.
- E. 1.1.2. Udalerrietan utzita dauden espazio publikoen errolda egitea, eta horiek ikuspegi agroekologikotik erabiltzeko potentzialitatea balioestea.
- E. 1.2.1. Basoei eta haiek jasangarritasunean duten garrantziari buruzko azterlanak egitea.
- E. 1.2.2. Ura eskubide gisari buruzko eztabaidaren egoera zein den jakitea, uraren kudeaketaren eta erabileraren eta arro hidrografikoen egoera zein den, jasangarritasuna, justizia eta izaera publikoa sustatzeko ikuspegitik.

- E. 1.2.3. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietan ura nola erabiltzen den jakitea eta kontsumoaren murrizpena eta haren erabilera jasangarria sustatzea.
- E. 1.3.1. Udalerrietan dauden lurren inbentarioak edo mapak egitea: sailkapena, jabetza, erabilgarritasuna, erabilera...
- E. 1.3.2. Lurren erabilgarritasunaren eta haien eskaeraren azterketa gurutzatutako egitea, arreta berezia eginez lurrak uzteko eta/edo ez erabiltzeko arrazoiak aztertzeari.
- E. 1.3.3. Udalerrietako eta eskualdeetako elikagaien ekoizpen-potentzialari buruzko azterketak egitea: ekoizpenerako zer lur eta zer motatakoak dauden, zer eta zenbat ekoitzi ahal izango litzatekeen...
- E. 1.4.1. Gune bakoitzeko hazien eta arrazen barietatei buruzko inbentarioak egitea, bai eta haien erabilerari eta maneuari loturiko praktikei eta ezagupenei buruzkoak ere.

2. Planifikatzea (P)

- P. 1.1.1. Ondasun naturalak, lurra bereziki, erabiltzeko modu alternatibo eta kolektiboetan aurrerapausoak ematea ahalbidetuko duten planak egitea, jabetza pribatuari ematen zaion lehentasunari aurre egiteko.
- P. 1.2.1. Lurraldean eta udalerrien antolamendurako planak definitzea, aurkeztu ditugun elikadura burujabetzarako ikuspegi gaikoetan oinarrituta: erabakitzeko autonomia, parte-hartzea eta herri-eraikuntza eta agroekologiaren eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomien nagusitasuna, jasangarritasunaren berme.
- P. 1.2.2. Udaren erabilera jasangarritako planak egitea.
- P. 1.2.3. Basoei buruzko plangintzak egitea, jasangarritasuna, aniztasuna, kudeaketa, erabaki kolektiboak kudeatzea eta hartzea, babesa eta kontserbazioa ardatz hartuta.
- P. 1.2.4. Hirien hazkundea eta hirigintza areagotzea modu jasangarrian mugatuko duten planak zehaztea, haietan, uztai edo gune berdeak eta parkeak finkatuz eta haiek babestuz.
- P. 1.3.1. Lurra nekazaritzarako berreskuratzea birsailkapenaren eta dibertsifikazioaren bidez. Elikagaiak ekoizteko lurrak gordetzeko neurriak hartzea.
- P. 1.3.2. Ikuspegi agroekologikotik, elikagaiak ekoizteko erabilgarri dauden lurrak areagotzeko helburuari lotzen zaizkion jardueraildoak eta neurriak jasotzeko planak taxutzea.
- P. 1.4.1. Tokian tokiko hazi ekologikoen eta bertako arrazen hedadura eta erabilera areagotzeko neurriak ezartzea.

1. LABORANTZA FITXAK

3. Arautzea (A)

- A. 1.1.1. Ordenantzen moduko tresnak erabiliz, ondasun naturalen erabilera erkidea edo publikoa ezartzea eta babestea.
- A. 1.2.1. Jasangaritasuna ardatz, lurraldeen eta herrien ikuspegia babestu eta hedatuko duten adierazpenak egitea eta konpromisoak hartzea.
- A. 1.2.2. Landa-eremuen ondare-balioa, balio historiko eta paisajistikoa onartzea eta babestea.
- A. 1.2.3. Lurraldeak edo udalerriak proiektu desarrollista handien edo azpiegitura handien aurrean babesteko araudiak edo adierazpenak zehaztea, kontsultak edo parte hartzeko prozesuak bultzatuz.
- A. 1.3.1. Lurren erabilera produktiboa bultzatzeko (agroekologia eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomiak ardatz hartuta) eta bertan behera uztea edo ez erabiltzea saihesteko mekanismoak (laguntzen edo salbuespenen bidez, esaterako) abian jartzea.
- A. 1.4.1. Udalerriak, edo zenbait eremu transgenikorik gabeko edo bioaniztasunaren defendatzaile izendatzea bultzatzea.
- A. 1.4.2. Ondasun naturalen, esaterako, uraren, izaera publikoa defendatzeko adierazpenak edo ordenantzak bultzatzea.

4. Proiektu zehatzen garapena (G)

- G. 1.1.1. Jabetza publikoko lurren edo espazioen erabilera kolektiboa bultzatzea.
- G. 1.2.1. Hiri-ortu agroekologikoak sustatzea.
- G. 1.2.2. Nekazaritza- edo elikagai-guneen/parkeen moduko figurak aztertzea, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko lotura gisa; eta hainbat jarduera abian jarrita, tokiko elikagai agroekologikoen ekoizpena eta kontsumoa bultzatzeko eta sendotzeko aukera ematen duten espazioak.
- G. 1.2.3. Ondasun naturalen erabilera jasangarriaren eta bioaniztasunari eutsi beharrez garrantziak jabetzeko heziketa edo sensibilizazio-kanpainak abian jartzea.
- G.1.2.4. Pinuko eta eukaliptoko monolaborantzarako ordezkoko ekoizpenak bultzatzea.
- G. 1.3.1. Lurren bankuen bidez (aldundien esku edo udalerriaren berrantzeko bankuak abian jarrita) ekoizpenerako lurretara iristea erraztea; lurra alokatzeko programak, erosketa publikorako prozesuak, etab. gauzatzea.
- G. 1.3.2. Gazteei edo langabe daudenei lurrak eskuratzeko erraztasunak ematea.
- G. 1.3.3. Belaunaldi-aldaketa bultzatzeko programak abiaraztea, erretiratzeko adina duten pertsona ekoizleak eta nekazaritzan jardun nahi duten gazteak harremanetan jarrita.

- G. 1.3.4. Udalerrietako programen bidez kudeatutako lurren erabilera agroekologikoa bermatuko duten neurriak ezartzea.
- G. 1.3.5. Jabetza indibidualaren aurrean, lurraren jabetza partekatua edo kolektiboko prozesuak bultzatzea.
- G. 1.4.1. Udalaren hazi-haztegiak bultzatzea.
- G. 1.4.2. Ereku bakoitzeko hazien barietateari buruzko informazioa ematea eta trukerako espazioak eta uneak ahalbidetzea.
- G. 1.4.3. Hazi agroekologikoak eta tokian tokiko barietateak erabiltzea bultzatzea, bai elikagaien ekoizpenerako lurretan, bai udalaren berdeguneetan...)

Ortu ereduak

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien Lurren Bankua (nekazaritzarako lurren funtsa)

Bi lurraldeek Lur-Banku programa bat dute. **Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan Nekazaritza Sailak** sustatu eta Nekazaritza Lurretarako Bitartekaritza Bulegoak eta Basalan sozietate publikoak kudeatutako programa da, eta horren arabera, lurra eman ahal izango zaie lurra oinarri hartuta nekazaritza ustiatzeetan jardun nahi dutenei, egon dauden ustiatzeetan edo sortu berrietan, eta lehentasuna emango zaie gazteei eta emakumei. Jarduera Prezioen eta Balorazioen Batzorde Teknikoak zehaztutako errentaren truke egingo da; Aldundiak berak, prezioen espekulazioa saihesteko hartutako neurria. Bost urteko ibilbideak, Nekazaritzarako Lurren Funtsak izaera horretako 98,5 hektarea lur mobilizatu ditu guztira, Bizkaia osoan.

Gipuzkoako kasuan, Berrikuntzako, Landa Garapenerako eta Turismo Departamentuak sortutako tresna bat da, eta Landa Garapenerako Behemendi Elkarteak kudeatzen du; horri esker, nekazaritzarako lurren erabilera eta ustiaketa arautu nahi da, bertan behera utziak izan daitezkeen saihesteko eta nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza erabilerarako, naturaren edo ondasunaren kontserbazio jardueretarako edo interes sozialeko beste erabilera batzuetarako lurra behar dituzten pertsonen eskaini ahal izateko. Zeregin nagusia dinamizatzea eta lurren jabeen eta lurra behar dituztenen artean bitartekari jardutea da; bai eta finkei erabilerarako eta kudeaketarako bermeak, konfiantza eta segurtasuna ematea ere. Bi emate gauzatu dira, Lezoko Urreleku baserrian, Aldundiarenak eta Nekazaritzarako Lurren Funtsako parte direnak.

Informazio gehiago:

http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6639&idioma=EU&dpto_biz=2&codpath_biz=2|208|6639
<https://www.youtube.com/watch?v=cP7PGJ5obMw>

<http://www.nekagip.net/FondoSueloAgrario.html>
<http://www.eitb.eus/es/videos/detalle/2212008/video-banco-tierras-gipuzkoa/>

Euskal Herriko Hazien Sarea – Red de Semilla de Euskadi eta Haziera – Cristina Enea Fundazioa

Haziak lantzen dituzten bi proiektu aurkezten ditugu. **Euskal Herriko Hazien Sarea**, hazien barietateak berreskuratzeko lanean diharduen elkarte da; Euskal Herriko nekazaritza aberastasun genetikoa bilatzea eta ondare hori eta berari atxikiriko kultura bermatzea ditu xede. Hainbat lan-ildo dituzte, Hazien Zaindariak, kasu; haziak trukatzeke jarduerak antolatzen ditu, barietate-bankua dute lortutako haziak gordetzeko, eta hainbat lan-esperientzia izan dituzte, esaterako, Aramaioko Udalarekin sagarren barietate bat berreskuratzeko proiektuan.

Cristina Enea Fundazioa Donostiako Udalak sortu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, hiriaren ingurumen-sentsibilizatorako politikak koordinatzeko eta dinamizatzeko. Horretarako duen tresnetako bat Ingurumen Baliabideen Etxea da: Haziera programa kokatzen den espazioa. Haziak eta beren inguruko jakintza zabaltzeko eta partekatzeke lekua da, eskala txikiko nekazaritza mantendu, eta landutako bioaniztasunaz kezkatzen diren pertsona eta erakundeentzako topagunea. Hazien artxiboak hazien ugaltzarekin loturiko formazio-jarduerak eta landa-inguruari, nekazaritzari eta elikadurari buruzko gogoeta egiteko jarduerak bateratzen ditu.

Informazio gehiago:

<http://www.haziensarea.org/eu/nor-gara.html>
<https://revistasoberaniaalimentaria.files.wordpress.com/2010/08/sabc5parainternet.pdf>
<http://www.cristinaenea.org/haziera/pagina.php?queidioma=2&pg=112>
<http://www.cristinaenea.org/inicio.php?queidioma=2>

Lurzaindia, lurra erosketak kolektiboak

Lur elikagarria eta laneko tresna zaindu eta ondasun kolektibo bilakarazi, merkatu espekulatibotik ateratuz da bere leloa eta Arrapitz, Euskal Herriko Laborarien Batasuna, Euskal Herriko Laborantza Ganbara e Inter-Amapeko partaideak dute SCA Lurzaindia sortu. Bere helburuak horiek dira: laborantza lurra eta bastimenduak kolektiboki erostea; lurra laborari anitzen esku uztea epe luzerako alokairuen bitartez; eta laborantza lurren atxikitzearen garrantzia erakustea.

Informazio gehiago:

www.lurzaindia.eu

Arantzadi Bizirik/Salvemos las huertas, Desazkundea Baratza Taldea eta Gasteizko Hiri Ekologikoen Sarea

Lurrarekin lotura duten hiru esperientzia aurkezten ditugu. **Arantzadi Bizirik/Salvemos la huertas** izaera eta jatorri askotariko pertsona eta kolektiboek osatutako talde irekia da. Iruñako Arantzadiko meandroaren fisionomia eta ezaugarriak ahal den heinean mantentzeko ardurak lotzen ditu, historikoki baratzeetako eta aisialdirako izandako zonalde honek, orain udalak planteantzen duen urbanizazio-proiektu batengatik arriskuan dagoena.

Desazkundea Baratza Taldea Bilbon lurra ekologikoki lantzen duen talde irekia da. Udaletxera joan ziren beraien proiektua azaltzera, eta erantzunik jaso ez zutenean, erabiltzen ez zen berdegune batean hasi ziren lanean. Talde honentzat funtsezkoa da partekatzea, elkarlanean aritzea, naturarekiko kontzientzia hartzea eta pertsona bezala haztea.

Eta azkenik, **Hiri ekologikoen sarea** martxan jarri zen 2010ean Permacultura Kiribilore elkartearen eskutik, gizarte etxeetan herri-tarrok parte hartzeko eta nekazaritza ezagutarazteko. Hiri ekologikoen sareak bere programazioa izateaz gain, gizarte etxeetako beste zerbitzu batzuentzako baliabidea da: sukaldaritza, ludoklubak, ludotekak, elkartzetako aretoak, Kultur ikastaroetan...

Informazio gehiago:

<http://salvemosarantzadi.blogspot.com.es/p/quienes-somos.html>
<http://auzo-baratza.weebly.com/>
http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&nueva-Pag=&uid=u7aa80ad4_14868c61a75__7f95&aplicacion=wb021&id=&tabla=contenido

ENERGIA BURUJABETZA

Ekoizpenaren helburuak

Energiari dagokionez, esan daiteke gaur eguneko ereduaren ezaugarria direla mendekotasun handia (bai iturri fosilekiko bai kanpoarekiko), energia berriztagarrien bilakaera txikia eta kontsumo-eredu hazkorra. Industria-nekazaritza energia-kontsumitzaile handia da bera ere. Horren aurrean, elikadura burujabetza, garrantzia nekazaritzan oinarrituriko ekonomiei eta eredu agroekologikoari emanez, eredu horren ordeztu erantzuna izan daiteke. Elikagaien ekoizpena eta kontsumoa birkokatzeak eta ekoizpen agroekologikoak energia-kontsumoa murrizten lagun dezakete. Energia-kontsumoa murriztera jotzea, energia berrantolatzea eraginkortasun-irizpideen arabera, energia berriztagarriak sustatzea, hondakinak murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea... ezinbesteko ekintzak dira egungo eredu eraldatzea baldin badugu helburu. Beraz, esan dezakegu ezinbestekoa dela energiaren gaineko burujabetza berreskuratzea, eta gaiari parte-hartzearen bidez eta kolektiboki ekinez, gutxienez, honako helburu hauek lortzea bilatu behar dugu:

- 2.1. Egungo energia-kontsumismoko eredu eraldatzea eta murriztea.
- 2.2. Udalerrien eta eskualdeen energia-autonomia sustatzea.
- 2.3. Ordezko energiak erabiltzea bultzatzea.
- 2.4. Energia-eredu publikorantz jotzea: ekoizpena, kudeaketa eta banaketa.
- 2.5. Hondakinak murriztea eta horiek modu jasangarrian kudeatzea.

Hazien kutxa

1. Ezagutzea (E)

- E. 2.1.1. Udalaren eraikinetako energia-kontsumoa aztertzea.
- E. 2.1.2. Udalerri edo eskualde bakoitzean dagoen energia-pobrezia (edo behin-behinekotasun) maila zein den jakiteko azterketak egitea.
- E. 2.1.3. Udalerrien energia-kontsumoa, arrasto ekologikoa eta klima aldaketan duen eragina zein den jakiteko maparitzeak edo antzeko tresnak erabiltzea.
- E. 2.1.4. Udal-eraikinetan, hoteletan, ostalaritzan, saltegietan,

ikastetxeetan... energia-auditoriak egin daitezkeen bultzatzea.

- E. 2.1.5. Mugikortasunari buruzko diagnostiko bereziak egitea, bai eta landa-eremuetan ere: erabiltzen diren garraiobideak, ibilgailua norberaren erabilerarako den ala nekazaritza edo abeltzaintzako jarduerari lotua, maiztasuna, etab.
- E.2.1.6. Balantze energetikoko konparaziozko ikerketak egitea, ekoizpen-modelo desberdinen artean.
- E. 2.2.1. Udalerri edo eskualde bakoitzak zer nolako energia-beharrizanak dituen eta horiek betetzeko zer aukera dau den aztertzea.
- E. 2.3.1. Energia berriztagarrien azterketa espezifikoa.
- E. 2.4.1. Energiaren ekoizpenari, banaketari eta kudeaketa publikoari buruz Euskal Herriko, estatuko edo Europako esperientzien berri jasotzea.
- E. 2.5.1. Elikagaien ekoizpeneko finketan eta abeltzaintzakoetan eragiten diren hondakinak aztertzea.
- E. 2.5.2. Elikagaien merkaturatzean erabiltzen diren bilgarriak, plastikoak, poltsak... aztertzea.

2. Planifikatzea (P)

- P. 2.1.1. Energia-eredu berrietarako trantsizio-planak egitea, kolektiboki, jasangarritasuna, dibertsifikazioa, dezentralizazioa ardatz hartuta eta hainbat neurri bateratuz: kontsumoaren murrizketa, energia berriztagarriak, autonomia, kolektibizazioa...
- P. 2.1.2. Egindako diagnostikoetatik abiatuta, energia-pobrezia aurre egiteko neurriak planifikatzea, herritar guztientzara iritsiko dela bermatuta.
- P. 2.1.3. Udalaren eraikinetan eta eraikin publikoetan eraginkortasun energetikoa bultzatzea eta planifikatzea.
- P. 2.1.4. Udalerrietako industria-sektorearekin, energia-kontsumoa murrizteko eta trantsizio-neurriak aplikatzeko planak egitea.
- P. 2.1.5. Nekazaritzako eta abeltzaintzako finketan eta haiei atxikiriko etxebizitzetan, trantsizio energetikoa errazteko ekintzak planifikatzea.
- P. 2.1.6. Mugikortasun-planak lantzea, kolektibizazioaren aldeko apustua eginez, bai eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueran ere.
- P. 2.2.1. Autonomia energetikoari eta beharrezko eraldaketa

eta trantsizio energetikoa egiteko azterketa udal-plangintza guztietan txertatzea.

- P. 2.3.1. Energia-jasangarritasuna ardatz hartuta, ordezko energiak bultzatzea eta planifikatzea.
- P. 2.3.2. Egindako azterketetan oinarrituta eta energia-autonomia eta jasangarritasuna ardatz, hondakinen, biomasaren, eta abarren bidezko ordezko energien garapena planifikatzea.
- P. 2.5.1. Hondakinen eta zaramaren gaikako bilketa eta kudeaketarako proiektuetan aurrera egitea, haien kudeaketa publiko eta tokikoaren aldeko urratsak eginez, bereizketa, berrerabilpena, birziklapena, konposta, etab. areagotuz, eta ziklo itxiak sustatzeko helburuarekin, bai landa-eremuan bai hiri-eremuan.
- P. 2.5.2. Elikagaien merkaturatzean plastikoen eta ontzien erabilera murrizteko neurriak hartzea.
- P. 2.5.3. Berrerabilpena, birziklapena eta errehabilitazioa hondakinak sortzeko neurritzat bultzatzea.

3. Arautzea (A)

- A. 2.1.1. Tasa, zerga edo bestelako neurrien bidez, energia kontsumitzeko eredu berriak bultzatzea (zarrastelkerian oinarriturikoak sustatzeari utzita).
- A. 2.1.2. Etxeetan, nekazaritzako ustiategietan, eraikin eta instalazio publikoetan, eta abarren, energia-eraginkortasuna eta kontsumo txikia bultzatzeko laguntzak abian jartzea.
- A. 2.2.1. Araudi eta ordenantzen bidez, kooperatibak edo energia-autonomiarantz aurrerapausoak ematea ahalbidetzen duten bestelako forma batzuk eratzen laguntzea.
- A. 2.2.2. Haustura hidraulikoaren (frackingaren) edo antzeko beste ekimen batzuen mehatxuaren aurrean lurraldeak babesteko adierazpenak edo ordenantzak taxutzea.

4. Proiektu zehatzen garapena (G)

- G. 2.1.1. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak eredu agroekologikoranzko trantsizioa egitea bultzatzea eta hainbat programaren bidez (formazioa, laguntzak...) gai kimi-koen eta pestiziden erabilera murrizteko neurriak ezartzea.
- G. 2.1.2. Ureztatze sistemetan eta abeltzaintzako ustiategietan uraren kontsumoa murriztera bideraturiko proiektuak abian jartzea.
- G. 2.1.3. Nekazaritzan eta abeltzaintzan zer makina mota eta nola erabiltzen diren aztertzea, eta murrizpena, eraginkortasuna, erabilera kolektiboa, etab. lortzeko neurri espezifi-

koak ezartzea.

- G. 2.1.4. Hiri-eremuetan, norbanakoen ibilgailuen erabilera mugatzera bideraturiko neurriak sustatzea, bestelako neurrien alde eginez: garraio publikoa, bizikletak, kotxea partekatzea, oinezkoentzako irispideak, etab.
- G. 2.1.5. Gogoetarako eta eztabaidarako prozesuak bultzatzea herritarren artean, energiaren premiak eta horren kontsumoa gaitzat hartuta eta honakoen moduko tresnak erabilia: arrasto ekologikoa, muga energetikoak, zor ekologikoa, eta abar.
- G. 2.2.1. Udalerri mailan energiaren bestelako erabilpenen alde dauden eta kudeaketa-eredu kolektiboak erabiltzen dituzten hainbat energia-banatzaileri atxikitzea (kooperatibak, eta bestelakoak).
- G. 2.2.2. Egungo energia-ereduaren eraginei, klima-krisialdiari eta dauden aukerei buruzko formazio-sentsibilizazio jarduerak egitea.
- G. 2.2.3. Udal-ekimenak eta erabilera kolektibokoak garatzea energia-jasangarrien erabileratik abiatuta, hala nola, baso-biomasa...
- G. 2.3.1. Landa-eremuan eta elikagaien ekoizpenean, energia berriztagarri edo ordezkoren inguruan izandako esperientziak biltzea, udalerrietan eredu horiek errepikatze-ko aukerak aztertze-ko.
- G. 2.5.1. Abeltzaintzako hondakinak biltzeko eta kudeatzeko proiektuak abian jartzea.
- G.2.5.2. Birziklapena eta berrerabilpena bultzatzeko kanpainak egitea.
- G.2.5.3. Konposta sortzeko eta erabiltzeko proiektuak abian jartzea.
- G. 2.5.4. "Publizitaterik gabeko udalerrriak" bultzatzeko kanpainak abian jartzea, eta ingurumenarekiko errespetuz jokatzeko duten informazio-bideak lantzea (panel informatiboak, etab.)

Ortu ereduak

Pobrezia Energetikoari buruzko azterlana, Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa-Departamentuak Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte-bazterkeriari buruzko Inkestaren (GPGBI- 2012) emaitzak oinarri hartuta eta SIIS-Doku-

2. LABORANTZA FITXAK

mentazio eta lkerketa Zentroaren lankidetzarekin, Gipuzkoako pobrezia energetikoari buruzko azterlana egin du, lurraldean duen eragina zein den jakiteko. Gure inguruko herrialdeetan pobrezia energetikoa prebenitzeko eta zuzentzeko politika eta neurri garrantzitsuenen nazioarteko egoera ere aztertu da.

Informazio gehiago:

<http://www.sis.net/es/documentacion/catalogo/Record/194596>

GoiEner eta Energia Gara-Som Energia, energia-kooperatibak

Bai kontratazio indibidualerako bai administrazio publikoetan kontratatzeko bi energia-kooperatiba eredu aurkezten ditugu.

GoiEner-en xedea hiritarrek energiaren kontrola berreskuratzea da, honen garrantziaz jabetzea, energiaren kontsumo arduratsu eta iraunkorra bultzatuz. GoiEner-ek subiranotasun energetikoa berreskuratu nahi du egun sektore elektrikoan liberalizatuta dauden esparruetan sartuz: merkaturatzea (energia erosketa) eta sorkuntza. Mozkin asmorik gabeko kooperatiba izanik, elektrizitate berdea merkaturatuz lorturiko etekinak kooperatibara itzuliko dira berriz, eta bazkideek erabakiko dute batzarretan zertara bideratu diru horiek. Orain arte laguntzaileak diren udalerrien zerrenda hurrengoak osatzen dute: Usurbil, Bera, Araia-Asparrena, Orendain, Alegia, Ea, Tolosa, Busturia, Leitza eta Hernani.

Energia Gara-Som Energia irabazi-asmorik gabeko energia berdearen kontsumo-kooperatiba da. Bere funtsezko jarduerak jatorri berriztagarriko energiaren ekoizpena eta komertzializazioa dira. Oraingo eredu energetikoaren aldaketaren alde daude, eredu guztiz berriztagarria lortzeko. Som Energian %100ean iturri berriztagarrietatik datorren energia ekoizten eta komertzializatzen dute. 20.000 bazkide inguru ditu.

Informazio gehiago:

<http://www.goiener.com/>

<https://www.somenergia.coop/es/>

Larrabetzu, konpostajea

Konpostajeari buruzko esperientzia interesgarriak Euskal Herriko hainbat udalerritan aurki daitezke, baina guk Larrabetzuko aurkeztuko dugu, udalerrri hori elikadura burujabetza bultzatzeko prozesu sakonago batean murgilduta dagoelako, eta lurrarekiko harremanean, konposta egiteko materia organikoa erabiltzeko sentiberatasun berezia erakutsi duen udalerrria delako. Harrera ona izan dute administrazio publikoetako

hainbat eremutatik bultzatutako etxeko konpostajearen aldeko zenbait kanpainak, eta datuen arabera, inplikatu diren etxeen kopurua haziz doa, bai 90 etxe baino gehiagotan banaturiko konpostagailuetan bai konpostaje erkideko hiru auzo-ekimeneetan.

Informazio gehiago:

<http://larrabetzu0zabor.org/index.php/es/materia-organica>

Bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=JMTBDdEp5nM>

Ekologistak-Martxan *Zero Zabor* Bideoa (Bizkaiko esperientzia batzuk aurkezten, horien artean Larrabetzuko):

<https://www.youtube.com/watch?t=87&v=7YQBTKeCnTE>

Energia-iturri buruzko diagnostikoa, plangintza eta ordezkoko aukeren garapena.

Euskal Herriko hainbat udalerritan badira esperientziak energia-burujabetzaren aldeko urratsak egiten hasteko. Horietako bi aipatzearen, alde batetik, Aramaioko basoko biomasazko zentral termikoa, ur bero eta berokuntzarako. Horren lehenengo fasean, Ibarra auzoa berogailu eta ur berokuntzarako. Bigarrena, Arabako Okina herriko berokuntza-instalazioa, zeinak, inguruan sorturiko biomasa erabiliz, berokuntza hornitzen dien herriko etxebizitzetara eta eraikin publikoetara.

Informazio gehiago:

<http://www.noticiasdealava.com/2014/10/26/araba/motores-verdes-para-alava>

<http://www.feriazaragoza.es/Archivos/Descargas/Si%20bioenerg%C3%ADa/jornadas/Reducci%C3%B3n%20de%20costes%20e%20independencia%20energ%C3%A9tica%20-%20RAM%20-%20Ajuria%20-%20Alcalde%20de%20Aramai%20%281%29.pdf>

TOKIKO ELIKADURA-SISTEMEN GAINEKO BURUJABETZA

Ekoizpenaren helburuak

Burujabetzaren eremu honetan, elikagaien ekoizpenarekin, eraldaketarekin, banaketarekin, trukearekin, merkaturatzearekin eta kontsumoarekin zerikusia daukana aipatzen dugu. Aipatu dugun bezala, enpresa gutxi batzuen eskura dagoen elikagaiak ekoizteko eredu agroindustrial oso mendekoa da, eta ekoizpen eta kontsumo eredu intentsiboa, teknifikatua, espezializatua, kimikoa, kilometrikoa, zentralizatua, homogeneizatze kulturalera jotzen duena da; hau da, eredu horretan, ez ekoizleek ez kontsumitzaileek ez dituzte kontrolatzen elikagaien faseak. Horren aurrean, funtsezko bi kontzeptutan oinarritzen diren tokiko elikadura-sistemak eraikitzea proposatzen dugu: nekazaritzara itzultzea eta birkokapena, edo gure marko teoriokoari jarraikiz, agroekologiaren eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomien aldeko apustua, ordeztu sistema horien funtsezko pilare gisa, eta burujabetza lortu zer, non eta nola ekoizten, eraldatzen eta merkaturatzen ditugun gure elikagaiak erabakitzeko, taldean definituz eta pertsona eta talde desberdinen artean erantzukizuna banatuz (ekoizleak, kontsumitzaileak, kolektibo eta erakunde sozialak, administrazio publikoa), kontsumo eraldaketarako tresna gisa ulertuta. Burujabetza horretan aurrera egiteko, honako helburu hauek proposatzen ditugu:

- 3.1. Udalerri eta eskualdeetan, elikagaien ekoizpen dibertsifikatua, dezentralizatua eta agroekologikorantz jotzea.
- 3.2. Elikagai horien eraldaketarako tokiko edo eskualdeko eredu bultzatzea.
- 3.3. Kolektiboki eraikitzea elikagaiak merkaturatzeko zirkuitu laburrak, oinarri izango dituen bertako erosketa, hurbilekoa, agroekologikoa eta sasoikoa, bai norbanakoak bai administrazio publikoa (sustatzaile eta kontsumitzaile den aldetik) inplikaturiko dituen.

Hazien kutxa

1. Ezagutzea (E)

E.3.1.1. Nekazaritzako ekoizpenak jasangarritasunean oinarrituta aztertzea eta ebaluatzea, esaterako, Laborantza Gan-

barak proposaturiko Lorea bezalako metodologiak, zeinaren arabera, naturarekiko lana, inguruarekiko harremana, bideragarritasun ekonomikoa, kalitatea, autonomia, ekoizpenaren transmisibilitatea bezalako irizpideak berrikustea proposatzen den, edo udalerrri edo eskualdeetako ustiaketak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten bestelako tresna metodologikoak erabilia.

- E.3.1.2. Udalerrien eta eskualdeen elikagaiak ekoizteko gaitasuna, herritarren kontsumo-ohiturak eta horiek aldatzeko potentzialtasuna elkarlotuko dituen azterketa bat egitea.
- E.3.1.3. Lehen sektorearen potentzialtasuna enplegu duin eta iraunkorreko sorkuntzarako analizatzea
- E.3.2.1. Elikagaien eraldaketa-fasearen inguruan dauden beharrezkoen eta eskaeren azterketa egitea, zailtasunak eta erronkak aztertuta, eta hori kolektibizatzeke esperientziak ikertzea.
- E.3.2.2. Higiene eta osasunari buruzko araudiei taldean ekitea, eta gai horri ekoizpen agroekologikokoaren ikuspegitik ekin dioten esperientziak aztertzea.
- E.3.3.1. Udalerrietako kontsumo-ohiturei buruzko azterketak edo mapak egitea.
- E.3.3.2. Udalerrietako merkataritza txikiaren errealitatea aztertzea, elikadura burujabetzaren proposamenarekiko hurbiltasuna bultzatzeko.
- E.3.3.3. Hainbat egituratan antolatutako (talde, kooperatiba, etab.) ekoizle eta kontsumitzaileen proposamenak, beharrezkoak eta eskaerak ezagutzea merkaturatzeko eta kontsumorako zirkuitu laburrak eraikitzeke.

2. Planifikatzea (P)

- P.3.1.1. Udalerriko edo eskualdeko elikaduren ekoizpenari buruzko errealitatearen diagnostikoa eginda, estrategiak diseinatzea eta planifikatzea, tokiko elikadura-sistema autonomoak eraikitzeke urratsak ematen direla bermatuta eta ekoizpen-eremuen eta hiri-guneen arteko loturak ezarrita.
- P.3.1.2. Enplegu-arloekin batera plangintzak egitea lehenengo sektorea enplegu duin eta iraunkorrak sortzeko gune gisa sustatzeko.
- P.3.1.3. Gazteak, bereziki emakumeak, elikagaien ekoizpenean

3. LABORANTZA FITXAK

txertatzeko lan-ildoak bultzatzea (lurra eta etxebizitza eskuratzeko erraztasunak nahiz formazio-prozesuak eskaintzen dituzten programa integralak).

P.3.1.4. Ekoizpen industrialetik ekoizpen agroekologikora aldatzeko planak diseinatzea.

P.3.2.1. Udalerrian edo eskualdean tokiko eraldaketa prozesuak bermatzeko plangintzak egitea, diagnostiko fasean identifikaturiko beharrezaneri erantzuteko.

P.3.3.1. Elikadura-guneak/parkeak edo parke industrialetan eremu espezifikoa abian jartzeko plangintza egitea, bertan, eraldaketa, formazioa, trukeak, salmenta zuzena, etab. egiteko.

P.3.3.2. Udalerrietan merkaturatzeko planak egitea, non argi eta garbi definituko diren gai horri dagozkion helburuak, zirkuitu laburrak eta merkataritza txikiaren eta tokiko ekoizleen arteko aliantzak eta estrategiak bultzatuta.

P.3.3.3. Zirkuitu laburretako elikagaien erosketa publikoari dagokionez, helburuak, erantzukizunak eta denbora definituko duten plan lotesleak egitea.

P.3.3.4. Udalerrietako politikari eta teknikarientzako formazio-jarduerak programatzea, elikadura burujabetzaren ikuspuntutik, eta hari dagozkion proposamen eta tresnei buruz.

3. Arautzea (A)

A.3.1.1. Hainbat tresna erabiltzea (adierazpenak, manifestuak eta ordenantzak) udalerriek eta eskualdeek elikadura burujabetzarekin duten konpromisoa azaltzeko eta defenditzeko.

A.3.1.2. Zergak eta tasak salbuetsiz edo murriztuz, lizentziak eta baimenak erraztuz, nekazaritza eta abeltzaintza bultzatzea.

A.3.1.3. Laguntzak ezarri, ekoizpen agroekologikoa eta tokikoa sustatzea eta laguntzea.

A.3.2.1. Zigilu edo marka propioak, izendapen propioak, artisau erako ekoizpena eta abar jasotzeko, araudietan beharrezko aldaketak egitea.

A.3.3.1. Tokiko merkaturari buruzko, zirkuitu laburrak sustatzeko lehenetsitako espazioak diren aldetik, araudiak berrikustea eta, kasu bada, egokitzea.

A.3.3.2. Neurri zenbagarrien bidez, administrazio publikoak zirkuitu laburreko elikagai agroekologikoen erosketarekin duen konpromisoa zehaztea (esaterako, 5 urteko epean

erosten dituen elikagaien % 30 zirkuito laburrekoa izatea lortzea).

A.3.3.3. Elikagaien Banku Publikoari buruzko araudiak berrikustea eta elikagai horiek zirkuitu laburrean erosteko konpromiso esplizitu, gehikor eta neurgarriak ezartzea.

A.3.3.4. Kontratazio, diru-laguntza, hitzarmen eta abarren baldintzetan beharrezkoak diren aldaketak egitea, tokiko elikadura-sistemen aldeko apustua egiten duten erakundeak lehenetsiko irizpideak txertatuta (ekonomia sozial edo solidarioan oinarrituriko baldintza sozialen edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideen adibideari jarraituz).

A.3.3.5. Udalaren zentro publikoari elikagaiak hornitzen dizkieten enpresak kontratatzeke baldintzetan aldaketa-prozesuari ekitea, tokiko erosketa, ekologikoa eta hurbilekoa lehenetsita.

4. Proiektu zehatzen garapena (G)

G.3.1.1. Hainbat neurriren bidez (laguntza ekonomikoa edo bestelako baliabideak, ikusgarritasuna, etab.) nekazaritza ekologikoa bultzatzea.

G.3.1.2. Ekoizpen agroekologikoari buruz, jardunbide onak eta ikaskuntzak trukatzeko espazioak sortzea, belaunaldien arteko trukea bermatuta.

G.3.1.3. Hiri inguruetatik berdeguneetan maneiu agroekologikoa sustatzea.

G.3.1.4. Ekoizleei laguntza juridikoa, eta bestelako laguntza eskaintzea.

G.3.1.5. Nekazarien eta euren antolakuntzaren garrantzia ikusarazteko jarduerak antolatzea (Nekazarien Borrokaren eguna, adibidez).

G.3.2.1. Izaera kolektiboko eta hurbileko eraldaketa-azpiegiturak abian jartzen laguntzea (forma juridikoari buruzko gogoetarako, tramiteetarako erraztasunak ematek hasi eta baliabide ekonomikoetara).

G.3.2.2. Zigilu agroekologikoen gaiari modu kritikoan ekitea, lortu nahi dutenei erraztasunak ematea eta bermeen parte-hartzeko sistemen potentzialtasunari buruzko eztabaidak piztea.

G.3.2.3. Tokiko produktuen banaketan laguntzea, haren kudeaketa kolektiboan aurrera egiteko.

G.3.3.1. Tokiko merkatuak eta salmenta zuzena berpiztea, la-

guntzea eta dinamizatzea.

- G.3.3.2. Tokiko produktu agroekologikoak ikusarazteko estrategiak erabiltzea, eta merkataritza txikian lan-estrategia komunak erabiltzea.
- G.3.3.3. Kontsumo-taldeak, kontsumitzaileen kooperatibak edo antzeko egiturak bultzatzea, haien jarduerarako erraztasunak emanez; esaterako, hedadura emanez, haiei buruzko informazioa zabalduz edo udalaren lokalak lagaz.
- G.3.3.4. Ekonomatoak edo merkaturatzeko bestelako espazioak abian jartzea laguntzea, ekoizleak eta kontsumitzaileak lotzeko eta elkartzeko.
- G.3.3.5. Ekoizleei laguntzea euren komunikazio eta salmenta-estrategietan, produktuak zabaltzen, kudeaketan, hori guztia erraz dezaketen teknologia berrietara iristen, etab.
- G.3.3.6. Nekazaritzako bizimodu eta kulturaren aberastasuna bultzatzeko kanpainak egitea, ekoizleak balioetsiz eta tokikoa, agroekologikoa eta sasoikoa kontsumitzeak duen balioaz jabetzeko erraztasunak emanez hainbat eremutatik: ekologia, ekonomia, politika, kultura, osasuna...
- G.3.3.7. Ostalaritzaren sektorean (ostatuak, tabernak, jatetxeak...) lan espezifikoak egitea zirkuitu laburretan erostea bultzatzeko.
- G.3.3.8. Tokiko Administrazioak elikagaiak zirkuituetan erostea duen garrantziari buruzko gogoeta egiteko prozesuak antolatzea, sentsibilizazio eta formazio-jarduerak eginez hainbat alorretan (udaletako edo beste eremu publiko batzuetako langileak: ospitaleak, eguneko zentroak, egoitzak, elikagaien banku publikoak, etab.)
- G.3.3.9. Ekoizleak eta kontsumitzaileak lotzeko jardueren antolakuntza laguntzea (hitzaldiak, trukeak, errezetak edo bestelako ezagupenak trukatzeko espazioak, etab.)

Ortu ereduak

Eskualdeetako eraldaketa-zentroak, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu bati ekin dio Eraldaketa Zentroen Sare bat sortzeko; sare horrek lurralde osoa hartuko du, eta lehenengo sektoreko ekoizleei aukera emango die elikagaiak eraldatzeko eta kontserbatzeko lege eta osasun arloko berme guztiekin. Jarritako helburua eskualde bakoitzean eral-

daketa-zentro bat jartzea da, dagokion NEBrekin (Nekazaritzako Eskualdeko Bulegoa) koordinaturik jardungo duena. Lehenengo bi zentroak Zaldibian eta Mutrikun egongo dira.

Informazio gehiago:

http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/es/1971/gipuzkoako-foru-aldundiak-eraldatze-guneen-sarea-jarri-du-abian&anti_cache=1433954314454

Eskola-jantokiei buruzko hainbat esperientzia

Arlo honetan ibilbide luzea duten bi esperientzia aurkeztuko ditugu. Hala ere, gero eta gehiago dira ikastetxeetako egungo elikadura-eredua beste eredu jasangarri, hurbil eta osasungarriagoarekin ordeztzea proposatzen duten erakunde, ikastetxe eta gurasoen elkarteak. **Ekolapiko:** Gipuzkoan eta inguruetan ekoizten diren elikagai ekologikoak eskola-jantokietan menu orekatuen bidez txertatzea helburu duen ekimena da. Era berean, haurrak, familiak eta irakasleak kontzientziatzea eta kontsumo mota hori bultzatzea ere ekimen horren helburuak dira. Horretarako, baserrietarako bisitak eta hainbat tailer eta hitzaldi antolatzen dituzte.

Larrabetzuko eskolako jantokia: irizpide agroekologikoetan oinarrituriko ereduaren erreferentziako esperientzia da. Eskolako jantokia Gurasoen Elkarteak kudeatzen du. Elkarteak zehazten ditu menuak eta erosketak eta bera arduratzen da langileak kontratatzeaz. Hartara, harreman estua dute inguruko ekoizleekin.

Informazio gehiago:

<http://www.ekolapiko.net/index.php/es/>

<http://www.larrabetzukoeskola.org/jantokia/>

Nekasarea eta Basherrri Sarea, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko sareak eraikitzeke eta salerosketarako esperientzia.

Nekasarea 2005. urtean EHNE-Bizkaia sindikatutik sortutako kontsumo-taldearen sare da. Sare horrek elikagaien ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena bultzatzen du, kontsumo talde autonomoen bidez eta bitartekaririk gabe. Hortaz, sare horretako kideen inplikazioa du xede, bai ekoizpenean bai kontsumoan elkarrekiko konpromisoaren bidez. Talde horietako kideek sasoiko elikagaiak eskaintzen/jasotzen dituzte, agroekologian oinarrituta eta tokian-tokian ekoiztiak, eta horrela, elkar ezagutzeko erraztasunak emateaz gain, baserri-

3. LABORANTZA FITXAK

rrren lana aintzatesten da.

Basherri Sarea Gipuzkoako kontsumo-taldeen sarea da; eta oinarrizko helburu du zer jaten den eta elikagai horiek nork, non eta nola ekoizten diren erabaki ahal izatea. Hau da, elikadura burujabetza, sasiko elikagaiak, zentzuzko kontsumoa bultzatzea, eta beti taldeko dinamikak eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzenak bultzatuz. Bertako blogean, berri eta informazio interesgarriaz gain, sarea osatzen duten taldeen kokapena eta haien datu nagusiak azaltzeko mapa-sistema bat dute.

Informazio gehiago:

<http://ehnebizkaia.eus/index.php/es/nekasarea>

<https://basherri.wordpress.com/nor-gara/>

Esnearen sektorea, Bizkaia Esnea eta Esnetik

Esnekien sektorean, merkaturatzeko bi esperientzia jaso ditugu. Lehenengoa, **Bizkaia Esnea**; Karrantzako 56 baserrik osatzen duten kooperatiba bat da, euren esneki fresko, natural eta hurbilekoak merkaturatzeko. Haien hitzetan, esne-banatazaileek ordaintzen zituzten prezio baxuek bultzatu zituzten euren produktuak zuzenean, bitartekaririk gabe, kontsumitzailearengana eramatera eta bide hori berebizikotzat jotzera baserriek iraun dezaten.

Esnetik esnekien kooperatiba mistoa da, irabazi asmorik gabekoa, ekoizleek eta kontsumitzaileek osatua. Esnetik-ek duen helburua elikadura burujabetzaren balioak gauzatzea da. Elikagaien ekoizpen eta merkaturatze jasangarria, gardena, hurbilekoa eta zuzena sustatzea dute xede, bitartekaririk eta transgenikorik gabea, nekazariaren lanari duintasuna emango diona eta erabakietan pertsonen parte-hartze aktiboa bultzatuko duena.

Informazio gehiago:

<http://www.bizkaiaesnea.com/quienes.html>

www.esnetik.com

Tokiko azokaren dinamizazioa, Tolosa

Euskal Herrian hainbat dira azokak berreskuratzeko eta sustatzeko esperientziak, ulertzen delako zuzeneko salmenta berebiziko eremua dela baserriarrentzat eta tokiko ekonomiak sustatzeko. Tolosako Udalak eta Tolomendi Landa Garapenerako Elkarteak sustatutako azokaren dinamizazio-zerbitzua az-

pimarratu nahi dugu, zeinak pertsona bat duen horretarako kontratatuta. Proposaturiko helburuen artean daude ahalik eta jende gehienak –gazteek batik bat– azokan eros dezan lortzea eta baserriarren artean taldeko dinamikak indartzea. Horretarako, jarduerak, tailerrak, produktuak ikusarazteko estrategiak, ekitaldi gastronomikoak, etab. antolatzen dituzte.

Informazio gehiago:

http://www.tolosakoazoka.com/home.php?center=includes/azoka.php&menu=includes/menu_azoka.php&submenu=includes/submenu_azoka.php&right=includes/right2.php&idioma=es

EMAKUMEEN BURUJABETZA ETA AUTONOMIA

Ekoizpenaren helburuak

Burujabetzen elkargunearen atalean aipatzen genuen bezala, emakumeen burujabetza eta autonomiaren eremu espezifiko bat definitzea erabaki dugu, uste dugulako patriarkatuaren aurkako borroka ezinbestekoa dela elikadura burujabetzarako eta egungoaren aurrean proposamen sozial, ekonomiko eta politiko alternatiboak eraikitzeko, eta emakumeen desberdintasun-egoera, gaur egun oraindik, onartu, salatu eta hari aurka egin behar zaiola. Erabaki horrek ez du baztertzeko genero-ikuspegia eta azterketa feminista gainerako burujabetza-eremuetan ere txertatzea. Egungo eredu kapitalista eta patriarkalak ez ditu onartzen bizitzari eusteko beharrezkoak diren jarduerak, horietako asko emakumeek eginak izanik. Elikadura burujabetza bizitza erdiguneko kokatzeko proposamena da, haren desmerkantilizatortik bertatik hasita, baina erantzukizunkidetzak sustatuz eta "generogabetuz"; hau da, emakumeek zaintza-zeregin gehienak egiteko "derrigortasun" tradizionala gaudituz. Burujabetza-eremu honetarako funtsezkoa da mugimendu feministatik egiten diren proposamenekiko lotura eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politika publiko horietako batzuk zehaztea. Horrela, burujabetzaren eremu honetan, landa-eremuetako eta elikagai-ekoizle diren emakumeen desberdintasun-egoerari ekin nahi diogu, ikuspegi zabal batetik eta honako helburu hauek lortzeko:

- 4.1. Ikusaraztea eta haien egoera eta posizioa onartzea, aniztasunetik eta hainbat eremutatik, hala nola baliabide eta ondasunetarako irispidea eta haien kontrola, parte-hartze soziopolitikoak, indarkeriarik gabeko bizitzak, zainketak eskubide, etab. eta hori hobetzeko beharrezko neurrietan aurrera egitea.
- 4.2. Euren ezagupenak eta ekarpenak onartzea eta balioestea, elikagaien ekoizpen-eredu jasangarriak eraikitzeko funtsezkoak direlako.
- 4.3. Emakume baserriarren jabekuntza eta antolamendu prozesuak bultzatzea.
- 4.4. Hirietako eta landa-eremuetako emakumeen sareak eta aliantzak sortzen aurrera egitea.

Hazien kutxa1. Ezagutzea (E)

- E.4.1.1. Diagnostiko eta ikerketa prozesu integralak egitea landa-eremuetako emakumeen egoera eta posizioa zein den jakiteko; arreta berezi jarrita emakume baserriarrei eta, elikagaien ekoizle diren aldetik haien errealitate espezifikoari.
- E.4.1.2. Sexua, adina, jatorria (etab.) aldagaiak txertatzea lehenengo sektoreari buruzko estatistika eta informazio-iturri guztietan, daudenetan edo sortuko direnetan.
- E.4.1.3. Elikagaien ekoizpenean emakumeek egiten duten lanari eta ematen duten denborari buruzko azterketa eta analisi espezifikoak egitea, lanaren ikuspegi zabaletik eta nekazaritzako jarduera ez ezik, normalean aintzatesten ez diren etxeko lantzat edo zainketa-lantzat jotzen diren jarduerak ere kontuan hartuta.
- E.4.1.4. Emakumeek ekoizpenerako laguntzetara iristeko dituzten eragozpenak aztertzea, eztabaida pizteko eta bestelako irizpideak sortzeko, udalerrietako eta eskualdeetako laguntza-programetarako behinik behin.
- E.4.1.5. Landa-eremuko udalerrietan dauden zerbitzu publikoak eta horiek asetzen dituzten beharrezkoak asebetezte maila maparatzea.
- E.4.1.6. Landa-eremuetan indarkeria matxistak duen eragina sakon aztertzea.
- E.4.2.1. Emakumeek finketan zer jarduera eta nola egiten duten aztertzea.
- E.4.2.2. Emakume baserriar adinekoen ezagupena eta jakintza berreskuratzea, esaterako, hazien kontserbazioa, bioaniztasuna bultzatzea, sendabelarrak, jarduera agroekologikoak...
- E.4.3.1. Emakume baserriarren parte-hartze soziopolitikoari buruzko gogoeta bultzatzea, hainbat eremutan (udal-politikak, sindikatuak, erakunde feministak edo emakumeen erakundeak, bestelako erakundeak...)
- E.4.3.2. Udalerrian edo eskualdean emakumeen ahalduntzea bultzatzeko dauden baliabideak eta tresnak maparatu (Etxeak, jabekuntza-eskolak, programak edo ekimen bereziak...)
- E.4.4.1. Tokiko eta eskualdeko mugimendu feminista eta elkar-

4. LABORANTZA FITXAK

teena ezagutzea, eta agenda feministak eta elikadura burujabetza txertatzea.

2. Planifikatzea (P)

- P.4.1.1. Ikuspegi feminista eta emakumeena lurraldearen hiri-edo landa-antolamendurako planetan txertatuko dela bermatzea.
- P.4.1.2. Emakume baserriarren eta landa-eremukoen egoera espezifiko udalerriko edo eskualdeko Berdintasun Planetan aintzatestea.
- P.4.1.3. Patriarkatuaren eta kapitalismoaren arteko erlazioa ulertzen lagunduko duten eta desberdintasun elkargunetik abiatuta, bizitzaren sostengagarritasuna erdigunean kokatzeko helburuan aurrera egingo duten berdintasun-planak egitea bultzatzea.
- P.4.1.4. Indarkeria matxistari dagokionez, landa-eremuetan eta udalerriri txikietan arreta, zerbitzu eta baliabideetarako kalitateko irispidea bermatzea ahalbidetuko duten planak egitea.
- P.4.2.1. Lehenengo sektoreko emakumeen desberdintasunari aurre egiteko neurriak jasoko dituzten plangintza espezifikoak egitea.
- P.4.3.1. Emakume baserriarrek udaleko planifikatzeko eta erabakitzeko prozesu guztietan parte hartuko dutela bermatuko duten neurri espezifikoak zehaztea.

3. Arautzea (A)

- A.4.1.1. "Emakume nekazariaren estatutua"ren azterketa kritikoa bultzatzea, udalerriri edo eskualde bakoitzeko errealitatean txertatzea eta, beharrezkoa bada, hobetzeko elementuak garatzea tokian tokiko araudiak eginez.
- A.4.1.2. Indarkeria matxistako kasuen prebentzio eta arreterako protokoloak inplementatzea, egitea edo egokitzea.
- A.4.1.3. Emakumeek abian jarritako ekimen sozio-ekonomiko-etarako laguntza espezifikoak definitzea, egungo adierazleetatik kanpo emateko irizpideak ezarriz, hala nola, UTA izenekoak (urteko lan-unitateak).
- A.4.3.1. Udalerriri guztietan Berdintasun Arloak bultzatzea, haien neurria zeinahi dela, eta udalerriri txikiagoen kasuan, eskualdeko edo mankomunitateko bideak jorratzea.
- A.4.3.2. Udalerririk patriarkatuaren aurka borrokatzeko konpromisoa bermatzeko tresnak eta araudiak lantzea (arauak, adierazpenak, aurrekontu espezifikoak...)

4. Proiektu zehatzen garapena (G)

- G.4.1.1. Lehenengo sektoreko emakumeen desberdintasun egoerari buruz kontzientziatzeko ekintzak egitea eta errealitate hori aldatzeko jarduerak definitzea.
- G.4.1.2. Zainketak eskubide gaiari buruz udalerrietan eztabaida eta eraikuntza kolektiboko prozesuak bultzatzea gai zehatzen inguruko erantzunak emanez: zainketa zer den eta nortzuen artean eta nola bermatu nahi ditugun; eremu horretan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna kritikoki jorratuta.
- G.4.1.3. Landa-eremuko emakumeen beharriaz ematen eta eskaerei erantzuteko zerbitzu publiko eta kalitatekoak bermatuko dituzten proiektu espezifikoak abian jartzea; arreta berezia eginez norberaren denbora eta aisialdirako eta kulturarako iragarritasuna bermatzea helburu dutenei.
- G.4.1.4. Nekazaritzako ustiatzearen titulartasun partekatuen inguruko eztabaida piztea egungo egoeraren azterketatik abiatuta; errebindikazio eta eskaera konkretuen agenda eraikitzea, udalerririk zeregin garrantzitsua izan dezaketen horiek ezartzea, eta jabetzaren, errentaren, eta abarren ordezkari proposamen kolektiboetan aurrera egitea.
- G.4.2.1. Emakumeek elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren eraikuntzan egindako ekarpenak eta dituzten eza-gupenak ikusarazteko topaketak edo bestelako jarduerak sustatzea.
- G.4.2.2. Lehenengo sektorean emakumeek garatutako esperientzietarako lan-ildoak edo laguntza espezifikoak zehaztea.
- G.4.2.3. Lehenengo sektoreari laguntzeko urgazpen edo zerbitzu teknikoek genero-ikuspegiaren eza-gupenak badiuztela eta elikagaien ekoizpenean emakumeen presentzia berdinkidetasunez bultzatuko dutela bermatzea.
- G.4.3.1. Emakume baserriarrek sektoreko erakunde edo sindikatuetan, edo izaera orokorrekoetan, parte hartzea bultzatuko duten neurriak hartzea eta horiek buruz eztabaidatzea bultzatzea.
- G.4.3.2. Emakume baserriarren parte-hartze sozio-politikoak eta elkartegintza bultzatzeko ekimenak abian jartzea.
- G.4.3.3. Emakume baserriarren memoria eta ezagutza jasotzea, honen sozializazioa erraztuko dituzten tresnak erabilirik (adibidez, ikus-entzunezko materiala).
- G.4.4.1. Emakume baserriarren eta hiriko emakumeen arteko sareak eta aliantzak eraikitzearen alde egitea hainbat jarduerara, truke, foro eta abarren bidez.

G.4.4.2 Nekazaritzako erakundeen eta erakunde feministen arteko lanerako espazioak, topaketak eta aliantzak bultzatzea.

Ortu ereduak

Udal mailako berdintasun politika publikoak definitzeko laguntza, Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko zuzendaritzak Berdinbidean eta Berdinbidean txikiak egitasmoak ditu, hurrenez hurren, 10.000 biztanle eta 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten Gipuzkoako udalerrietan berdintasun politikak bultzatzeko. Udalerrri horiek halako politikak bultzatzeko dituzten eragozpenak identifikatu dira, bai baliabideei bai langileei dagoenikenez, eta horregatik jarri dira abian hainbat alderdi hartzen dituzten egitasmo horiek: diru-laguntzak, formazioa, edo lanerako sareak zehaztea, esaterako.

Informazio gehiago:

(Bideoa *Berdinbidean*):

<https://www.youtube.com/watch?v=K5wb3bHeEUE>

<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/142044/BERDINBIDEAN+TXIKIAK+que+es+abril+2014+es+web/f43a913b-a9a1-4c4c-a1ba-7a735ea82f0f>

Landa-eremuan genero-indarkeriari buruzko diagnostikoak egitea, Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Argituz Elkartek Bizkaiko Landa-ingurunean genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek laguntza, arreta eta justizia zerbitzu zein prestazioetarako benetako sarbidea izateko dituzten beharriak eta oztopoak identifikatzeko txostena aurkeztu zuten duela hilabete gutxi. Halako ikerlanak egitea berebizikoa da oraindik orain, sarri askotan isilarazita dagoen errealitate baten berri jasotzeko eta hari izena emateko.

Informazio gehiago:

http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/documentuak/Mujeres_rurales_VG_c.pdf

Jabekuntza-eskolak eta Emakumeen Etxeak

Euskal Herrian arlo honetan dagoen aniztasun eta esperientzia luzearen barruan, jabekuntza-eskolak emakumeen norbanako

eta taldeko ahalduntzea sustatzeko espazioak dira; halaber, haien parte-hartze soziala, politikoa, kulturala eta ekonomikoa indartzeko eta desberdintasunak ahalbidetzen eta eragiten dituzten egiturak eraldatzeko ere. Bizkaian, Basauri, Ermua, Getxo eta Ondarroako udalak sarean ari dira lanean. Gipuzkoako jabekuntza-eskolen sarea Arrasate, Azpeitia, Eibar eta Hernaniko udalerriek osatzen dute. Horiez gain, badira eskolak beste udal eta eskualde batzuetan ere, hala nola, Tolosan, Urola Garaian, Gasteizen, Abadiñon, eta abarren.

Donostiako Emakumeen Etxea eta Basauriko Marienea bi udalerriri horietako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarrekin errebundikazio historikoak izan dira. Biak ala biak emakume guztientzako espazio gisa definitzen dira, topagune eta gogoetarako espazio gisa, bereizkeriarik gabeko gizarte askea eraikitzeko guneak.

Informazio gehiago:

<http://www.donostiakoemakumeenetxea.com/casa-de-las-mujeres-donostia.php>

<http://berdintasuna.basauri.net/index.php/es/>

Emakumeen arteko sareak eta aliantzak, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa.

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa, emakumeen eta feministen kolektiboen arteko nazioarteko topagune eta egituratarako espazioa da. Euskal Herrian duen zeregina lau jardueraren eremutan zehazten da: indarkeria transistemikoak; bizitzaren jasangarritasuna; gorputzak eta sexualitateak, eta sareko lana eta sexualitatearen kudeaketa. 2015eko nazioarteko ekintzak haziak ditu ikur, elikadura burujabetzaren aldeko borrokari estu lotuta. Ekintza sinbolikoa proposatzen dute: Euskal Herriko emakumeen erakundeek, feministek eta emakume norbanakoek euren errebundikazio eta borroka feministak hainbat lekutan ereitea (etxean, balkoian, baserrietan, landa-eremuetako nahiz hirietako baratzetan, parkean, lokalean, zelaian, hirian, basoan, etab.).

Informazio gehiago:

<http://emakumeenmundumartxa.eus/>

KOMUNA DENAREN ANTOLAMENDUAREN ETA EZAGUPEN ASKEAREN GAINEKO BURUJABETZA

Ekoizpenaren ereduak

Burujabetzaren azkeneko eremu honetan komuna denaren antolamendurekin, aukerak eraikitzearekin eta horretan gutxian ezagupenak eta informazioak duten lekuarekin loturiko alderdiak aipatuko ditugu. Horrela bada, ezagupenen eta informazioaren gaineko burujabetza defenditzeak duen garrantzia oinarri hartuta, gure ustez, funtsezkoa da erabakiak hartzeko prozesuak txertatu diren markoak zabaltzea eta birdefinitzea, aukeren gaineko eztabaida eta haien eraikuntza lehenetsita, eta elkartasunean eta elkartrukean oinarrituriko espazioak eta harremanak bultzatuta. Esaten genuen bezala, politika publikoetatik urrun dauden ideiak diruditen arren, gure ustez, elikadura burujabetzarekin konprometiturik dagoen administrazio batek komuna dena antolatzeko beste modu batzuk, proiektu kolektibo alternatibo horiek zehaztea ahalbidetzeko espazioak, denborak eta baliabideak bermatu beharko lituzke.

Horrela, hiru helburu nagusi defini ditzakegu:

- 5.1. Ezagupenak eta informazioa ondasun erkidea direla ulertaraztea.
- 5.2. Ordezko aukera horiek eztabaidatzeko, horiei buruz gogoeta egiteko eta eraikuntza kolektiborako espazioak sustatzea.
- 5.3. Udalerrietan kooperazio, lankidetzeta eta elkartasuneko harremanak eraikitzea ahalbidetzeko.

Hazien kutxa

1. Ezagutzea (E)

E.5.1.1. Informazioaren eta teknologien erabilerari eta irisgarritasunari buruzko azterketak egitea, arreta berezia eginez landa-eremuari.

E.5.2.1 Azterketak, ikerketak eta diagnostikoak egitea egungo eredu politiko, sozial eta ekonomikoak eragindako birsortze sozialeko krisialdiari buruz, zeinak bazterkeria-egoeren eta gizarte-desberdintasunen areagotzea aipatzen duen.

E.5.2.2. Definituriko burujabetzaren eremuetan, edo azterketa

honen marko teorikoan aipatzen diren ordezko proposamenetan aurrerapausoak ematen ari diren udal-alternatibak ezagutzea.

E.5.2.3. Herritarren parte-hartzerako egungo espazioei buruzko azterketa kritikoa egitea (Kontseiluen Sistema), potentzialtasunak eta ahultasunak aztertuta, eta haien ordezko esperientziak ezagutzea.

E.5.3.1. Jada garatzen ari diren ekintzak ezagutzea (talde desberdinengatik, autokudeatutak...), hauek bultzatzeko eta integratzeko.

2. Planifikatzea (P)

P.5.1.1. Politika publikoetarako planifikazio-prozesuak eta aurreratu parte-hartzaileak definitzea, non eragin behar den aipatzen duten kapituluak zabaltzeko aukerarekin, eta parte-hartze hori kalitate eta berdintasunarekin egingo direla bermatzeko mekanismoak jarrita, beharrezko formazioa barne.

P.5.1.2. Lurraldeetako mugimendu eta erakunde sozialekin batera, bizitzaren edo ondo bizitzearen sostengagarritasuna kolektiboki nola defini dezakegun gogoeta egitea eta eraikitzea: zer parametro hartu behar diren kontuan, zein diren beharrezkoak eta nahiak, zer adierazle hartuko ditugun erreferentzia gisa, zer zeregin duen administrazio publikoak honetan.. eta horretan aurrerapausoak ematen lagun diezaguketen prozesuetan pentsatzea.

P.5.2.1. Udaletako politikari eta teknikarientzako etengabeko formaziorako planak zehaztea, prozesuen eraikuntza kolektiboaz eta parte-hartzearen premiaz eta dauden bizitzarako sostengagarritasunean oinarrituriko ordezko proposamenez jabetuko direla bermatuta.

P.5.2.2. Eredu hegemonikoaren ordezko eta bizitzaren sostengagarritasunaren aldeko apustua egiten duten aukerei (ekonomia feminista, ekologia politikoa, desazkundera, ekonomia sozial eta solidarioa...) buruzko kontzientziatze, gogoeta eta formazio jarduerak (foroak, mintegiak, trukeak...) planifikatzea.

3. Arautzea (A)

A.5.2.1. Software eta ezagupen eta informazio askerako iris-

garritasunaren eta patenteen aurreko erresistentziaren aldeko apustua egitea.

A.5.2.2. Parte hartzeko eta politika publikoen eraikuntza kolektiborako espazioak arautzen dituzten araudiak ezartzea.

4. Proiektu zehatzen garapena (G)

G.5.1.1. Agroekologiako formazio teoriko eta praktikorako proiektuak abian jartzea.

G.5.1.2. Nekazaritzako ezagupen eta jakintzen truke eta baliopenerako espazioak definitzea (foroak, ustiategiatarako bisitak...).

G.5.1.3. Egungo ereduaren eraginen eta, bereziki, haren ordezkoi aukeren kontzientzia hartzeko programak garatzea haurren eta helduen arauzko hezkuntzako espazioetan, interes berezia jarrita elikadura burujabetzaren gaineko ezagupenak sakontzean.

G.5.1.4. Elikadura burujabetzaren proposamenei eta ordezkoi aukeren eraikuntza-prozesuei buruz informatzeko espazioak sortzea.

G.5.1.5. Egungo kontsumo-ereduari buruz eztabaidatzeko espazioak sustatzea, eraldatzeko tresna gisa, non, zer eta zenbat erosten dugun eta haren ordezkoi aukerei buruz hitz egiteko.

G.5.2.1. Ekonomia sozial eta solidarioari eta kooperatibismoari loturiko ekimen ekonomikoak laguntzeko programak definitzea, bereziki elikagaien ekoizpenaren eremuan.

G.5.2.2. Ekonomia sozial eta solidarioaren proposamenei, tokiko elikadura-sistemak eraikitzeke faseetarako aliantzak eta elkarlana bultzatzea.

G.5.2.3. Finantza etikoei eta ordezkoi txanponei buruzko eztabaida bultzatzea.

G.5.2.4. Administrazioa banka etikoaren bezero izango dela bermatzea.

G.5.3.1. Ezagupena trukatzeko, coworkingerako espazioak ahalbidetzea.

G.5.3.2. Sareen sorrera eta lan komunitarioa laguntzea.

G.5.3.4. Elkartasun internazionalistaren alde egitea, tokikoa/globala lotura hori bultzatzeko, elikadura burujabetzaren, nazioarteko nekazarien mugimendua eta aukera horiek lantzen ari diren bestelako erakunde eta mugimenduak laguntzeko eta ezagutarazteko tresnak erabiltzea.

G.5.3.5. Denboraren Bankua proiektuak abiaraztea, ezagupenak eta zerbitzuak trukatzeko aukera gisa.

Ortu ereduak

EHNE-Bizkaia-k bultzatutako formakuntza prozesuak

EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) - Bizkaia sindikatuak elikadura burujabetza eta agroekologia Euskal Herrian bultzatzea du helburu eta horretarako, urte hauetan zehar, apostu argia egin du formazio eta ikasketa plana bultzatzeko, hainbat gai, kurtso, praktikaz osatutako plana. Kurtso hauek, ortu agroekologiko bat martxan jartzen edo nekazaritza-produktuak artisau eran eraldatzen irakazteaz gain, beste helburu ere badituzte, adibidez, talde sozial edo kultural anitzak dinamizatzea, baserri-emakumeen taldeak bultzatzea...beti parte hartzen duten pertsonen artean, elkartzeko, konpartitzeko, eta ezaguerak transmititzeko momentuak sortzeko ideiarekin.

Informazio gehiago:

<http://ehnebizkaia.eus/index.php/es/formacion>

Elkarlan proiektuak, Hirikilabs

Hirikilabs Tabakalerako Laborategien eta DSS2016-ren arteko proiektua da. Teknologia sozial eta kolaboratiboak lantzen dituzte, mundu digitalarekin eta arlo sozialekin loturan. Hacker, maker eta "zuk zeuk egin" ikuspuntutik lan egiten dute eta "artisau digitalen" ideia errebindikatzen dute. Nekaz-Hal informazioaren teknologiak natura edo/eta landa inguruetara progresiboki erantzen joateko epe luzeko proiektu bat da.

Informazio gehiago:

<http://hirikilabs.tabakalera.eu/>

Kontsumo alternatiborako proposamenak ezagutzeko eta hausnartzeko guneak sustatu: Merkatu Soziala.

Kasu honetan, eredu hegemonikoaren aurrean dauden alternatiben gainean ezaguerarako eta gogoetarako guneak sortzeari buruz ari gara, adibidez, software askeko, banku etikoko edo txanpon sozialen esperientziak. Merkatu Sozialaren esperientzia, eta aldi berean REAS Euskadirena (Red de Economía Alternativa y Solidaria) honen sustatzaile bezala, azpimarratu nahi dugu. Horrela ekonomia solidarioaren azokak antolatu dira, gaurko krisiaren aurrean dauden erantzun errealak erakusteko. Proposamen hauek hainbat sektoretik datozte, produktiboa, zerbitzuak, merkaturatzea, kontsumoa edo finantza, eta bere bideragarritasuna integrala, ekonomikoa, soziala eta ingurenearekin lotura duen errealitatean oinarritzen dute.

5. LABORANTZA FITXAK



Gune hauek herritarrei proposamen alternatiboak urbiltzeko balio dute, eta orain arte Euskal Herriko udal batzuen babesba jaso dute, Bilbo, Donostia, Tolosa eta Gasteiz, esate baterako. Informazio gehiago:

<http://mercadosocial.konsumoresponsable.coop/>

<http://www.economiasolidaria.org/reaseuskadi>

Autogestio esperientziak: Igitie – Arratiko baserriar agroekologikoen elkarte eta Uribe Kostako agroasanblada.

Igitie Elkarte - Arratiko baserriar agroekologikoen elkarte, elkarri laguntzeko asmoarekin sortu zen. Arlo ezberdinetan kolaboratzea dute helburu nagusi: izan erosketa komunak egiteko, izan jakintzak partekatu eta arazo teknikoei irtenbideak emateko, merkaturatzean elkarri laguntzeko edota lan astunak egiteko auzolanak antolatzen.

Uribe Kostako agroasanblada nekazariok, kontsumo ardu-

ratsua egin nahi duten kontsumitzaileok, ama-lurraren alde egiteko prest dauden eta auzolanaren filosofia berreskuratzean sinisten duten emakume eta gizek osatzen dute eta elkarlaguntza oinarri hartuta, elikadura burujabetzaren bidean proiektu komun bat abian jartzeko helburuarekin sortu zen.

Informazio gehiago:

<http://igitie.org/nortzuk-gara/>

<https://ukagroasanblada.wordpress.com/>

V. UDALERRIZ UDALERRI: ELIKADURA BURUJABETZARAKO BIDEAK LANTZEN. EUSKAL HERRIAN ERREFERENTE DIREN SEI ESPERIENTZIA

Agiria amaitzeko, Euskal Herriko sei udalerritako esperientzia aurkeztu nahi dugu; elikadura burujabetzaren inguruko politiken bilakaera mailagatik eta horiei ematen ahalegintzen ari diren integralitateagatik, lurralde-ikuspegia duten ordezko aukera horiek gauzatzeko eragile edo erreferentetzat har ditzakegulako. Honako hauek, hain zuzen: Aramaio, Urduña, Zeberio eta Zerain, eta bi eskualde, Sakana eta Urola Garaia. Elkarrizketa baten bidez esperientziaren elementu nagusien berri jaso nahi izan genuen; batez ere, elikadura burujabetzaren **ikuspegi orokor** horretan aurrera egiten lagun zezaketen alderdi horiek identifikatu nahi genituen, eta ikasbide batzuk atera, bide horri ekin nahi dioten beste udalerrri edo lurralde batzuentzat baliogarriak izateko. Hemen aurkeztuko dizuegun informazioa hurbilpena baino ez da. Gure ustez, benetan dira ezagutzea merezi duen esperientziak, bakoitza bere testuinguruan eta bere lehentasunekin. Eskerrak denoi, zuen denbora eta prestutasunagatik.

5.1. ARAMAIO. *Aramaixo Baserri Berri*, burujabetza elkarri loturiko hiru eremutan lantzen: elikadura, energia eta aisialdia eta turismoa

Aramaioko esperientzia duela 10 urte inguru hasi zen, **sagarren** inguruan. Inguru hartan ugaria zen produktu hori, baina ez zitzaion behar besteko etekina ateratzen. Inguruko beste toki batzuetako esperientziak aztertu zituzten, eta ikusi zuten sagar-zukua produktu interesgarria zela; hortaz, hainbat dinamikari ekin zieten, eta ASE - Aramaixo Sagardogileen Elkartearen sortu zuten, eta haren jarduna zabaltzen hasi zen, ekoizpenean ez ezik formazioan, sentsibilizazioan eta kanpainekin ere. Herrian prozesu honetarako erreferente ziren bi talde zeuden: Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldea, *auzolanaren* bidez Aramaioko ondasun kultural eta historikoak berreskuratzeko ekintzak egiten zituena; eta Arbel, inguruko 90 bat baserriarrek osaturiko kooperatiba, besteak beste, pentsu “pertsonalizatua” lantzen zutenak.

Hiru talde horien izatea eta jardutea berebizikoa da “Aramaixo Baserri Berri” proiektuaren sorrera ulertzeko; talde bakoitzak, bere ikuspuntutik, herri osoa hartzen zuen landa-garapenaren aldeko proiektu batean ziharduera ikusi baitzen. Udalarekin batera proposamena landuz joan ziren, eta dinamizatzaile bat kontratatu zuten (gaur egun Zuiako Koadrilako Tokiko Agenda 21eko teknikoak ere prozesuan parte hartzen du). Aramaioko esperientziak jarduera ugari eta askotarikoak ditu, baina **hiru ardatzen inguruan egituratzen da**: elikadura burujabetza, energia-burujabetza eta aisialdiaren eta turismoaren gaineko burujabetza. Hiru ardatzok burujabetzari lotuta daude, herritar kontzientziadunek eremu horietan antolakuntza eredu alternatiboak hautatzeko eskubideari.

Elikadura burujabetzaren ardatzaren kasuan, funtsezkoak izaten ari dira kontsumo-taldea eta Ekonomatoaren esperientzia. Kontsumo-taldea, hasieran 12 familiak osatua, udaletxeko

arkupetan elkartzen hasi zen, eta produktuak trukatzeko eta kontsumitzaileen eta ekoizleen aliantzarako gune bihurtu zen. Taldeak lokal bat eskatu zuen, eta Udalak utzi egin zion. Hortxe joan zen eratzen gaur eguneko Ekonomatoa. Ekonomatoa as- tean birritan zabalitzen dute, eta bertako produktuez gain, arroza, pasta, irina, lekaleak, eta abar ere saltzen dituzte. Gaur egun 100 bat bazkide dira, eta produktuen trukea egiteaz gain, harremanak sendotzeko, esperientziak partekatzeko gunea ere bada, eta kontsumitzaileek zuzen zuzenean ezagutu dezakete ekoizleen errealitatea zein den.

Energia-burujabetzaren ardatzean, helburu handinahiak jarri dituzte, eta euren energiaren parte bat ekoiztea baino gehiago da; horretarako faseak (materia lortzea, erregai bihurtzea, banatzea eta fakturaztea) jasangarritasunean oinarrituriko eredu erabiliz antolatzea, eta ekonomia-harreman duin eta jasangarriak eragitea ere bai. Aramaion dauden baliabideen azterketa egin ondoren, biomasa hautatu zen, eta geroago ezpalean zentratu ziren erregai gisa, ura eta berokuntza eragingo zuen galdara komunitarioko proiektua diseinatzeko, hasierako fasean Ibarra auzorako. Ardatz horretarako funtsezkoa da Aramaio Argindar Banatzailea, banaketa-faserako batik bat.

Azkenik, aisialdiaren eta turismoaren gaineko burujabetzaren ardatzaren oinarria Aramaio duen ondarea aintzatestea eta balioestea da, bai herritarren aurrean bai bisitarien aurrean. Hortaz, talde bat sortu zen, Amillena turismo taldea, eta ingurumena errespetatuko zuen turismo-eredua sustatzeko asmoan oinarrituta, borondatezko bisita gidatuak jarri zituen martxan. Horrez gain, beste ekintza batzuek ere abiarazi zituen kultur egitasmo interesgarria proposatzeko eta udalerriko ondasun historikoak berreskuratzeko eta balioesteko.

Partekatzeko zenbait ikaskuntza...

- Prozesu horiek **epe luzerako** dira, abian jartzen diren jarduerak eta ekimenak elikadura burujabetzazantzko bidean egingako urratsak dira.
- Proiektu guztiak, lehentasunezko hiru ardatzetan, honako **hiru ideia** hauetan oinarrituta pentsatu eta gauzatu behar dira: berdintasuna, jasangarritasuna eta erkidego osoarentzat onuragarriak izatea.
- Ulertu behar da bide horretan prozesuek gorabeherak izaten dituztela, ez dagoela errezeta magikorik, eta **parte-hartzea** bide hori eraikitzen joateko oinarria dela: denbora eta baliabideak ipintzea, administrazio publikoa herritarren erabakiak kudeatzeko espazioa gisa ulertu behar dela, eta herritarrek erabakitze espazio horiek berreskuratu edota sortu edo eskatu egin behar dituela, eta prozesuak bere-



ganatu.

- Ez da beharrezkoa aurrekontu handiak eta oso proiektu lan- duak edukitzea: funtsezkoa helburuak edukitzea eta moti- batuta dagoen jendearekin hastea da; hastea, hortik aurrera jende gehiago, ideiak eta ekimenak atxikiko diren oinarria sortuko baita.
- Eta etorkizunerako **erronka** gisa, ekimenen batean hurrengo urratsak identifikatu dira, finantzaketa gehixeago behar du- telako –galdara, esaterako– eta egituratzeko eta elkarlane- rako espazioak sendotzea, administrazioaren eta herritarren artean eta proiektuan inplikaturik dauden taldeen artean.

Gehiago jakiteko...

<https://vimeo.com/112175247>

<http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20120212/321636/eu/Aramaio-Baserri-Barri-nekazaritza-eta-kultura-uztartu-Herria-biziberrit- zeko-ekimena>

BIDEAK LANTZEN

5.2. URDUÑA. Garapen-proiektu baten hamar urte, agroekologia eta elikadura-burujabetza ardatz

Urduña eta bertako garapen agroekologikoa erreferentzia dira Euskal Herriko udalerrri askorentzat. Belarraren Taldea, Urduñako Zaporeak edo Ekoizpen dinamizazio zerbitzuak, besteak beste, 10 urtean egindako lana nekez isla daiteke lerro batzuetan, are gehiago, gaur egun oraindik proiektu bizia dela kontuan hartuta. Sorburu izan zuen ideietako bat oraindik bizi-bizi dagoela esan daiteke: **agroekologia eta elikadura burujabetza marko gisa hartzea**, ikuspegi teoriko eta praktikoa hori guztia Urduñako errealitatean ezartzen eta aplikatzen ahaleginduta.

Lehenengo aldian, 2003. urtearen inguruan, lehenengo sektorearen alde egin zuen udalerrriak, eta horretarako, **sektorearen diagnostikoa eta dinamizazio-plana** taxutu zituzten. Diagnostikoaren ondorioak beste gune batzuetakoen antzekoak izan ziren: sektore zaharkitua, ustiategi kopuruaren murrizpena, produktuaren eraldaketa gutxi, azken kontsumitzailearengana merkaturatzeko kate laburren bidez iristeko aukera gutxi edo bat ere ez. Baina elementu positiboak ere baziren, Urduñako abeltzainen elkarte eta Ruzabaleko Batzordea (BEDARBIDE) kasu, herri-larreak kudeatzeko sortua, eta horrek **sektore antolatua** edukitzea adierazten zuen, administrazioarentzat lehenentzat solaskide.

Geroago, 2006an, **Ekoizpen Urduña aholkularitza zerbitzua** sortu zen, eta planaren ildoetako bat garatu zen, udalerrriaren eta eskualdearen trantsizio agroekologikorako prozesuetan laguntzeko tresna bat; eta zeregina betetzeko, dinamizatzaile bat kontratatu zen. Urte horietan sortu zen **agroekologiaren foroa** ere, elikadurarekin, ekoizpen jasangarriarekin eta merkaturatzeko kate laburrekin zerikusia duten gaietan formazioa eta sentsibilizazio-lana egiteko tresna. Gaur egunera arte, udalerriko herritarren hileroko topagune bihurtu da foro hori. Bi lan-ildoak, hots, dinamizazio-zerbitzua abian jartzea eta etengabeko formazio-prozesua, **berebizikoak** dira Urduñako garapen-prozesua ulertzeko.

Bigarren fase honetan azpimarratzekoak dira beste jarduerak batzuk ere: **merkaturatzearen** ingurukoak, kontsumo-taldeekin, hileko azoka berreskuratzea eta prozesurako funtsezkoak izan diren bi eragile finkatzea: **Belarraren Taldea eta Urduñako Zaporeak**. Lehenengoa abeltzain talde bat da; unibertsitatearekiko IAP prozesu baten ondorioz sortu zen, nortasuna irabazten joan zen eta eutsi egin dio, hasieran kostua murrizteko helburua zuen, baina agenda merkaturatzerantz zabalduz joan da. Eta Urduñako Zaporeak udalerriko bertako nekazaritzako, abeltzaintzako produktuak eta artisau-produktuak sustatzeko elkar-



tea da. Bi talde horiek oso modu naturalean joan dira bat egiten merkaturatzeari begira.

2009an, Ekoizpen zerbitzuaren lehenengo emaitzak lortuta eta Urduñako lehenengo sektorearen aldetik jasotako erantzuna ikusita, beste erronka bati egin zitzaion aurre, eta proiektua sakontzea erabaki zen **tokiko elikadura-sistema bat garatzeko** urratsak egiteko. Hortaz, **udal-sukaldea** proiektua nagusi bihurtzen da, aurkeztu berri ditugun gainerako ildoak baztertu gabe, jakina. Egin beharreko azterketa guztiak egin eta aukera guztiak aztertu zituzten, eta proiektua **Udaleko Adinekoen Egoitzan** hastea erabaki zen, 50 bat lagunekin. Horretarako, bereizi egin zituzten sukaldearen kudeaketa -gaur egun oraindik catering-enpresa batek hornitzen duena- eta produktuen erosketa. **Produktuen lizitaziorako baldintza-agiria** landu zen, lote batzuk eskaini ziren eta erosketa publiko berdearen irizpideekin



harra, batez ere barazkiak ekoizteko, eskualdean ez baitago ohitura handiegirik. Ordenantzetan aldaketak egin dira lursail publikoak arautzeko, eta horri esker, gazte bat instalatu da, eta dagoeneko hasita dago lurra lantzen.

Partekatzeko zenbait ikaskuntza...

- **Formazioak, sentsibilizazioak eta dinamizazioak** garrantzi berezia dute. Begien bistan proiektu jakinik ez dagoenean ere, etengabe lan egin behar da. Dinamizazioa hori ere bada, pertsonen beharrianak zein diren jakiteko espazioak eta tresnak bultzatzea ("lan-bulegoetatik irtetea") eta taldeko lana eta ikaskuntzak indartzea, inplikaturik dauden pertsonen ilusioari eutsiz eta jende gehiago erakarriz.
- Garrantzitsua da egiten ari dena **sozializatzea**; alde batetik, prozesu luze eta konplexuak direla ulertzeko, eta bestetik, egiten diren urratsak balioesteko eta ulertzeko.
- Beldurrak eta erresistentziak eragin ditzaketen prozesuak dira. Diskurtso horiek dituzten pertsonak edo eragileak identifikatu behar dira, duten eragin negatiboa neutralizatzeko.
- Udalerri edo lurralde bakoitza bestearen desberdina da, aldaketa horiek lantzen eta barneratzen goazen heinean sortuko dira proiektu edo ekimenak ere. **Oinarri sendoak** behar dira, eta ez inbertsio eta proiektuei dagokienez, baizik eta pertsonekin landuak; baliteke horrela prozesu guztien berrezko erritmo aldaketak ez saihestea, baina oso zaila izango da, ezinezkoa ez bada, atzera egitea.

Gehiago jakiteko...

<https://www.youtube.com/watch?v=0XHDFNUL-yc>

atera ziren, beste irizpide batzuk sartuta: freskotasuna, ekologikoa, hurbiltasuna, gai sozialak eta generoarekin loturikoak, etab. 2015eko martxoan hasi dira Egoitzan lanean. Esleitutako loteetatik lau saltegi txikiatarako izan dira, hiru ekoizle ekologikoentzat eta bat banatzaileak ekartzen du. Urteko lizitazioa egitea da asmoa. Momentuz, zenbakiak ez dira erabat errealak, elkarrizketa egin genuenean proiektua hasi berria zelako, baina dagoeneko ikus daiteke desbideratzea oso txikia dela eta kalitatea nabarmen hobetu dela. Langileak, sukaldariak, zaintzaileak, ekoizleak... denak kontuan hartuko dituen proiektu kolektibo bat sortzea da asmoa. Urratsak egin behar dira. Ez dira ezer berria asmatzen ari, lehen ere baziren eta udalerrientzat interesgarriak diren dinamikak berreskuratzen baizik.

Azkenik, sukaldearen gaiak erronka berriak ekarri ditu, besteak beste **lurraren** ekoizle gehiagorentzat aukerak sustatu be-

BIDEAK LANTZEN

5.3. ZEBERIO. Nekazalgunea, bizimodu jasangarria, elikadura osasungarria eta inguru bizia sustatzeko nekazal garapenerako proiektu integrala

Zeberio udalerria, Arratia-Nerbioi ibarrean dago, 1.000 biztanle inguru ditu 67 auzotan banatuta. Duela urte batzuk lehenengo sektorearen dinamizazio-proiektu bati ekin zion, bizimodu jasangarria, elikadura osasungarria eta inguru bizi eta dinamikoa sustatzea xedez. Azpimarratu behar da hasierako motibazioa ez zela soilik eremu sozioekonomikoari eta elikagaien ekoizpenari ekitea, aitzitik, funtsezkoa ikusten zen udalerriaren memoria zein zen, nola utzi ziren baserriak eta ekoizpena, eta nola bameratu zen gure pentsamenduetan garapenaren ikuspegi jakin bat ulertzeko, eta prozesu hori gaindituta, Zeberioko balioak, ondasunak eta nortasuna berreskuratzeko eta indartzeko epe luzerako helburua ezarri behar zela.

Horrela hasi zen gogoeta-lana, eta hor hasi ziren puzzlea eraikitzen nora iritsi nahi zen eta zer baliabide zeuden kontuan hartuta. Horretarako, pertsona eta eragile oso garrantzitsuak izan ziren inguruan, urte hauetan egindako bidea ulertzeko berebizikoak izan direnak. Horrela, proposamena osatzen duten **best pieza** identifikatu ziren: funtzio askotarako eraikina; lurrak; lehenengo sektorearen dinamizazioa; kontsumo eta ekoizpen arduratsuak; eta gazteentzako aukerak. Nekazalgunea proiektua sortu zen.

Zeberioko proiektu honen historia kontatzean, ustekabearen garrantzia, edo proiektua osoa inguruabar berezietan lotuta egon izana aipatzen da. Horietako lehena, Ermitabarri auzoan eraikin bat zegoen, hasieran turismorako pentsatua zegoena, baina erabiltzen ez zena; lehenengo solairuan apartamentuak zituen eta beheko solairuan espazio komun bat, txoko erakoa, oso zabala. Bigarren inguruabarrak lurrarekin du zerikusia, Patronatuaren existentziarekin, eta horren historia eta izaera juridikoa labur azaltzea zaila izanik ere, aipatu behar da ondarea daukela eta kudeatzen duela, eta horren barruan, hain zuzen lehen aipatu dugun eraikin horren inguruko edo hurbileko lursailak daude.

Hortaz, pentsatzen hasi ziren **lehenengo sektorea dinamizatzen espazio** bat eraikitzen aprobeztatu behar zirela baliabide horiek, eta proiektuaren hiru ardatz nagusiak definitu ziren: **lurra, etxebizitza eta eraldaketarako eta trukerako espazioa**. Lurrari dagokionez, eta udalak ekoizpenerako lur egokirik ez zuela ikusita, Patronatuarekin negoziatu zen bere lursailletako batzuk lagatzeko, mandatu-kontratu baten arabera. Hau da, lursailen kudeaketa udalaren esku geratzen da 10 urtean, eta haien erabilera egokiaz arduratzen da. Gaur egun ekoizpenerako lau hektarea daude, erdia Patronatuarena, eta beste erdia, partikularrena. Denak daude okupatuta, eta urtean bi deialdi egin dira. Erreferentzia gisa Bizkaiko Foru Aldundiaren lurren funtsak zehaztutako alokairuaren prezioa finkatu zen, eta prezioa merkatuzko, zenbait elementu erabili ziren, kokapena edo irispidea, esaterako.

Ermitabarri eraikina nekazaritzako jarduerari honi zuzenean lotuta

planteatu zen. Apartamentuen kasuan, prezio merkea jartzea proposatu zen, ekoizpen-jarduerari ekiteko ziotenek eurek hartzerik izan zezaten. Hori izan da eskaera gutxien eduki duen atala. Beheko solairuan, erabilerako kolektiborako espazio bat atondu zen, trukea egiteko, eta gaur egun ikuspegi agroekologiko eta kolektibo batekin elikagaiak eraldatzeko proiektua dago martxan, Maskilu Kontserbak.

Hau guztia proiektuaren oinarria dela esan daiteke, horren inguruan beste dinamika interesgarri batzuk piztu baitira: jardunaldien bidezko formazio eta truke prozesuak, haziak kontserbatzearen inguruan memoriaren berreskurapena (beran aipatutako dokumentala), sareen sorkuntza eta elkarlana, edo lehenengo sektorearen eta turismoaren arteko loturak bilatzea, hala nola Etnogune proposamena, elikadura burujabetzaren proposamena ere kontuan hartzen duena).

Partekatzen zenbait ikaskuntza...

- Duen gaztetasun eta dimentsiotik, elikadura burujabetza ardatz duen garapen prozesu-integrala sustatu nahi duen proposamena dela ulertzen da. Ez da asko teorizatu ez idatzi, eta **praktikatik** hasi da, "egitetik", alegia.
- Identifikatu diren **erronketako** bat da, alde batetik, pertsona gazte gehiago atxikitzea, eta bestetik, proposamenarekin bat datozen pertsonen oinarria zabaltzen jarraitzea.
- Proiektuak errealitateki abiatuta definitu behar dira, marko orokorrak egon daitezke, baina udalari bakoitzak tokian tokiko analitiko abiatu behar du, bertako potentzialtasun eta baliabideak kontuan hartu, eta orduan hasi.
- Azkenik, helburua beti adostasuna da, eta ahalik eta pertsona gehien erakartzea, baina onartuta halako proiektuek pentsatzeko moduaren aldaketa sakona dakartela funtsean, eta ez dela hain erraza izango, erresistentziak ager daitezkeela. Beraz, argi badago eta konpromiso politikoa badago, apustua izango litzateke **daudenekin hastea** prozesua, ahalik eta hoberen komunikatzea eta gainerakoek erkidego osoarentzat onuragarriak direla ulertu ahala proiektuari atxikitzen joatea.

Gehiago jakiteko...

http://www.zeberio.net/es-ES/Nekazalgunea/20140107_nekazalgune.pdf

<https://vimeo.com/108093607>

5.4. ZERAIN. Paisaia naturala eta kulturala

Zerain proiektua duela 40 urte hasi zen, herriaren gainbeherari aurre egin nahian. Hasieratik, **auzolana** (zeraindar bakoitzak lan erkideari egiten dion ekarpena) izan zen ardatza, eta horrek argi erakusten zuen herriaren etorkizuna Zeraingo herritarren esku zegoela.

Zerain Gipuzkoan dago, Aizkorri mendiaren itzalpean; 257 biztanle eta 10 km karratuko herri txikia da. Hala ere, txikitasun hori ez da eragozpena izan, elikadura burujabetzaren inguruan, Euskal Herriko tokiko garapenerako proiektu aipatuenetariko bat abian jartzeko. Proiektu hori azaltzeko **Paisaia Kulturala** hartu behar da eremu. Edozein ekosistemak ematen duena, bitarteko bakoitza zerbitzua da, kulturala da eta nork kudeatuko duen zain dago. Kulturak izan behar du nekazaritzaren, paisaiaren, erkidegoaren eta pertsonen oinarria. Paisaia kulturalaren ideari esker dibertsifikazio sozioekonomikoa itzultzen da, landa-lurren konplexutasunera itzultzea ahalbidetzen du, eta aberastasun handiagoa ekartzen du, aberastasuna duintasun eta zorientasun gisa hartuta.

Egindako bidea luzea da, eta ezinezkoa da orri hauetan laburtzea. 90eko hamarkadan gogoeta estrategikoa egin zen, eta ikusi zuten herriaren etorkizun ekonomikoa bertako bi jarduerari lotuta egongo zela: **lurra lantzea eta zerbitzuen sektorea**. Orduan sortu zen Zerain Dezagun Fundazioa, erkidegoaren etorkizun ekonomikoa lehentasunezko bi lerro horietan oinarrituta egituratzeko. Horrela, nekazaritza eta abeltzaintza lantzen dira eta ekoizpen tradizionalak hobetu dituzte, produktu gehiago ekoitziz eta hori guztia kalitateko produktuek ematen duten **balio erantsi guztia** atxiki eta bereganatzeko, eraldaketa eta ekoizpena prozesuaren parte direlako. Egindako jardueren arteko bat Zerain.com marka erregistratzea izan zen.

Zerbitzuen sektorea, **turismoa** bereziki, paisaia zozatzeko aukera-eskaintza bat da, eta baserritarrek mantentzen dute, bisitarien haien produktuak balioetsi eta bidezko balioaren truke erosten dituztelako. Beraz, bisitarien mesedetan egiten den guztiak herritarrengan eragin behar du. Horren guztiaren muina Turismo Bulegoa da, eta bertan, besteak beste, nekazaritzako produktuak eros daitezke eta hurbileko denda bat dago Zeraingo herritarrentzat.

Hortaz, esan daiteke Zeraingo herritarrek euren etorkizuna **filosofia** batean oinarritzen dutela: zeraindar guztiak erabaki eta jarduteko eremu guztietan parte hartzea, alegia. Zeraingo jarduera guztien oinarrian **hiru erakunde** daude: Udala bera, bizi-kalitatearen arduraduna; Kultur Elkartea, dinamika sozialaren arduraduna eta Zerain Dezagun fundazioa, etorkizun ekonomikoa ardaztua. Hiru ardatzek helburu, plangintza,

bitartekoak, baliabideak, prozedurak, kudeaketa, gobernu eta errendimenduak partekatzen dituzte.

Gaur egun ere proiektuaren **jarduera-ildo batzuk** sakontzen eta zabaltzen jarraitzen dute, hala nola: ondare kultural eta naturalaren azterketa, kontserbazioa eta zaintza; produktu turistiko eta artisauro- produktu berriak; energia berriztagarrien eremuan, eta kanpoko energia murrizteko xedez, eraikinetako kontsumoaren azterketa, biomasazko berokuntza, egur banaketa, eguzki-panelak; lursail pribatuak erostea publiko bihurtzeko; bioaniztasuna zaintzeko, baso-kudeaketa jasangarria sustatzeko eta instalazioa errazteko lursailak zaintzeko akordioak sinatzea; eta lurren bankua sortzea.

Partekatzeko zenbait ikaskuntza...

- Denborak eta prozesuak pertsonak inplikatzeko **ikuspegi** integral hori sakondu dute.
- Ez dago errezetarik, baina bide horri ekin nahi dioten beste herri batzuekin zerbait partekatzekotan filosofia izango litzateke. **Lurra** ondare garrantzitsuena dela ulertzea, herri bakoitzak berea duela eta balioetsi egin behar dela.
- Eta filosofiarekin jarraituz, dena elkarri lotuta dagoela ulertu behar da, lurra etorkizunerako aukera gisa ikusi behar da, eta ez da begirada horren erdigunea galdu behar; hori gaitzat hartuta, gainerakoa eraikitzen joan gaitzke, lanpostuak, proiektu sozioekonomikoak...
- **Erronkei** dagokienez, halako proiektu handietan beti sortzen dira, baina batez ere araudiaren, plangintzaren eta administrazioaren eremuan batez ere. Herrien ikuspegi homogeneizatzailarekin eta hiriko pentsamoldearekin egiten dira oraindik plangintzak. Azkenik, ulertzen duen eta dinamizatzen duen jendea behar da, baina agroekologiaren ikuspegitik.

Informazio gehiago:

<http://www.zerain.com/>

<http://www.revistaambienta.es/WebAmbienta/marm/Dinamicas/secciones/articulos/Zerain.htm>

http://www.premioconama.org/premios12/premios/proyectos_poup.php?id=134

BIDEAK LANTZEN

5.5. UROLA GARAIA. Bertatik Bertara. Merkaturatzetik ikuspegi estrategikoa duen planaren definizio kolektibora

Bertatik Bertara honako hauek bultzaturiko proiektua da: Urola Garaia eskualdea osatzen duten lau udalerriek -**Ezki-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga**-; Goierriko bik -**Gabiria** eta **Ormaiztegi**- eta bi agentziak, **Uggasa**, Urola Garaiko eskualde-garapenerako agentziak, eta Goimen, Goierriko landa-garapenerako agentziak. 2011n, Urretxuko Udalak hainbat parte-hartze prozesuri ekin zien, horietako bat lehenengo sektoreari lotua. Baserrietan egiten den lana ikusarazteko eta aintzat hartzeko beharrezana sortu zen prozesu horretatik. Ideia horretatik abiatuta, **Bertatik Bertara Kanpainari** ekin zioten, eskualdeko baserrietako produktuak identifikatzea zuen ardatz, eta ez soilik Urretxuk bultzatuta, baizik eta lehen aipatutako eragile guztien parte-hartzearekin, ekimen horri eragin handiago emateko.

Urtebeteko kanpaina izan zen, eta horren baitan, inguruko 45 bat baserrietako informazioa jasotzen hasi ziren: zer produktu zituzten eta non saltzen zituzten, zuzeneko salmenta edo denden bidez. Beste alde batetik, informazio hori eskualdeko denda txikien bi elkarterekin osatu zen informazio hori. Eta hortik aurrera, komunikazio-euskarriak, bideoa, triptikoa, eta produktu horiek identifikatzeko eta sustatzeko hainbat material sortu zen. Prozesu horrek iraun zuen bitartean, Laborantza Ganbararen aholkularitza jaso zuten, eta kanpaina amaitzeko, bi jarduera egin zituzten, bertako produktuak eta gastronomia lotuta.

Balorazioa oso positiboa izan zen eta argi ikusi zuten parte-hartzaile guztiek urrats bat gehiago egiteko eta denon artean lehenengo sektoreko plan estrategikoa baten eraikuntzari buruzko gogoeta egiteko unea zela. Asmoa ez zen tokiko produktuak kontsumitzea soilik, baizik eta eskualdetik bertatik, eskualdearen beraren premiak betetzeko ekoizpenerantz aurrera egitea. Hiru lantalde sortu ziren, lehenengoa baserriarrena, bigarrena kontsumitzaileena (kontsumo-taldeak, jantokiak, ostalaritza, denda txikiak eta turismoa); eta hirugarrena, politikari eta teknikariena, gogoeta eta plangintza egiteko.

Prozesu horretatik, **Ekintza-plana 2014-2016** sortu zen; lau ardatz, 13 helburu estrategikoa eta 10 proiektuekin, eta bertan, ekintzak, arduradunak eta kronograma zehaztu ziren. Tresna honen definizio-prozesuaren beraren interesa azpimarratzeko da; izan ere, egiaztatu ahal izan zen lehentasun zehatzagoak baziren arren, parte hartzen zuten eragile guztien ikuspegia bertsua zela, denbora horretan, prozesuarekiko oi-

narri kritiko eta konprometitua sortu zela.

Adierazten duten bezala, elikadura burujabetzaren ikuspegi holistikoa batetik egituratu den plan horretako proiektu guztiak ezin dira zehatz-mehatz azaldu. Hori dela eta, horietako lau azalduko ditugu labur: lehenengoa, eskualdean dagoen **produktuen eskaeraren** azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa egitea, azterketa horretan sartuta ikastegiaren eta espazio publikoaren eskaera, gerora, datuok dagoen eskaintzarekin alderatzeko. Lortu nahi dena da eskualdean, eskaeraren araberrako ekoizpen orekatua edukitzeko helburua lortzeko beharrezko informazioa ateratzea.

Bigarrena, azpimarratu nahi dugu **produktuak** -barazkiak, eztia, esnekiak eta marmeladak- **eraldatzeko zentro txiki** baten instalazioa Zaldibian (Goimen agentziari atxikia), eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketa duena. Espazio hori funtsezkoa da osasun-erregistroen izapidea errazteko, bereziki konplexua baita ekoizleentzat bakoitzak bere kabuz lortu behar badu.

Hirugarrena, planean ere jasota dago **Lurren funtsa** sortzea. Sektorea sakon aztertu nahi da: adina, lurren erabilgarritasuna, ordezkioak badiren ala ez... eta hortik aurrera, lurren funts hori sortu programaren babesean, **persona gazteak instala** daitezten erabiltzeko, eta elikagaien ekoizpena bizi-modu duin eta posibleko erreferente izan dadin. Gaur egun badute lurra proiektuari ekiteko.

Laugarrena eta azkena, **formazio** programa estrategikoa gisa; eta horren barruan baserriarekin landutako formazio espezifikoak, haien gaitasunak indartzeko, eta ikastegiarekiko eta herritarrekiko formazioa sartuta.

Partekatze zentzuzko ikaskuntza...

- Esperientzia horretarako, funtsezkoa izan da **bi agentziaren** parte-hartzea eta elkarlana: eskualdeko garapen-agentzia bat, eta landa-garapenerako agentzia, bestea. Batez ere euren lana eremu itxi gisa ulertu izana haustea lortu delako; haien artean sareak eta zubiak eraiki ahal izan direlako eta lehenengo sektoreari turismoaren begiradatik ez ezik, garapen-plan orokorrarekiko ardatz estrategikoa gisa begiratzeko, eskualde eta udalerrietarako ezinbesteko eragile gisa, alegia.
- Horren ildotik, inplikaturiko administrazioetako teknikari eta politikarien konpromisoa eta parte-hartzeaz gain, positibotasun bat jo da eskualdeko agentziako **enplegu-planetan** Bertatik Bertara jasotako ekintzen kontratazioak txertatzea, kontsumo eta komunikazioaren azterketa zabala, kasu.

- Baserritarren **parte-hartzea**, ezinbesteko **baldintza** -hori bete ezean ezin izango bailirateke proiektu hauek aurrera atera- eta etengabeko **erronka** da aldi berean. Beharrezkoa da proiektuaz jabetzen eta barneratzen jarraitzea, eta erraztasunak eman behar zaizkie indartzeko, motibatzen eta mesfidantzak gainditzeko.
- **Ekoizpen-eredu agroekologikoranzko** trantsizioa elementu garrantzitsua da, baina sentsibilizazioaren, formazioaren, jardun konkretuen ikusarazpenaren eta konpromiso arrerakorrak ezartzearen bidez landu behar da.
- Azkenik, Plana **epe luzearako ikuspegia** proposatzen duen tresna da, eskualdeko eragile guztien artean, modu partekatuan eraiki nahi izan dena. Prozesu amaiezina da, etengabe eraikitzen ari dena. Prozesu horiek ikuskera zabalagoan txertatzeko eta baldintza horiek nola sor litezkeen baloratzeko premia ikusten da, elikadura burujabetzaren proposamena Gipuzkoa osorako errealitate izan dadin.

Gehiago jakiteko...

<http://bertatikbertara.info/es/>

<https://www.youtube.com/watch?v=SfhPos4oeW4>

5.6. SAKANA. Tokiko garapen kolektiboko proiekturako oinarriak eraikitzen

Sakana eskualdea Nafarroaren ipar-mendebaldean dago, Araba eta Gipuzkoarekin mugan, Aralar eta Urbasa-Andia mendien artean. Tradizioz hiru guneez osatuta dago: Arakil, Aranaz eta Burunda, eta 15 udalerriz daude, handienak Altsasu, Etxarri-Aranatz eta Iruztzun. Sakana da Nafarroako ingururik industrializatuena, eta **krisialdiak** sakon jo arte, langabezia tasa "teknikoa" zeukan; gero, hainbat enpresa handik itxi ondoren, %25ekoa izatera igo zen. Egoera horretan, nabarmena da alternatibak pentsatu behar direla eta, horrela, krisi-mahaia deitu zuten; bertan, hainbat eragilek, sindikatuk eta alderdi politikok hartu zuten parte. Espazio horretan bide-orria sortu zen eskualderako, sei punturekin: hiru Nafarroako erakundeei zegozkien, beste hiru eskualdeko eragileei; hain zuzen, plan estrategikoa definitzea, garapenerako eskualdeko erakunde bat eta ekintzaitzarako espazioak eta plataformak sustatzea.

Horrela, 2012an, Sakanako Garapen Agentzia sortu zuten, eskualdeko garapen-agentzia; eta 2013an, Sakanako Behatoki Sozioekonomikoa, eskualdeko eragile sozial, politiko, instituzional, sindikal eta enpresakoen gogoetarako zentro gisa. Eta parte-hartze prozesuaren emaitza Sakana 2020 Plan Estrategikoa izan zen.

Dokumentu horren xedea, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik **jasangarriak izango diren lanpostuak** sortzeko baldintzak eragitea eta erraztea da. Beraz, testuan azaltzen den bezala, ekoizpen-ehuna sustatzeko eta dibertsifikatzeko eta enplegua sortzeko helburua dauka; egungo egoeraren ondorioz, lehenetsi egiten da garapenaren oinarri materiala, baina beste alderdiak baztertu gabe. Planak zazpi atal ditu: 0 ardatza, eta eskualdeko garapenerako estrategia ezartzeko beharrezkoa den antolakuntza-egitura txartzeko jarduerak eta ekintzak jasotzen dituenak. **Lau jardueraren sektoreak**, dagozkien ardatz estrategiko, ildo eta ekintzekin: **agroelkadura, industria eta enpresetarako zerbitzuak, energia eta turismoa**. Azkenik, zeharkako bi ildo: merkataritza eta hezkuntza.

Agroelkaduraren sektoreari begiratzen badiogu, honako lehentasun hauek definitu direla ikusiko dugu: abeltzaintzako ustategiak ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik jasangarriak diren eredu baterantz bideratzea; baliabide publikoen kudeaketa (lurzoru komunala, eraldatzeko eta salmentarako azpiegiturak eta belaunaldi-ordezpena); tokiko elikadura-sistemak sustatzea (tokiko kontsumoa, merkaturatzea, marketina, jarduerak turistikoarekiko lotura); eta etenga-



beko formazioaren edo formazio-jarduera zehatzen garapena.

Plan hori gogoeta eta azterketa-prozesu baten, hots, hasi berria den lan baten lehenengo urratsa da. Interesgarria da elikatu eta osatu behar den zirriborro amaitu gabe bat balitz bezala begiratzea. Planaren xedea izan da eskualderako marko erkide hori eraikitzea, eta ezinbestean, txertatu eta sakondu egin behar da, inplikaturik dauden eragile guztien lan eta konpromisoarekin. Horrela, proposamenaren integralitatean ere aurrerapausoak emango dira.

Denbora horretan **proiektu espezifikokoak** garatu dira, eta hiru azpimarratu nahi ditugu. Lehenengoa, Belardi-Ehne Nafarroarekin lankidetzan, Irurtzungo **azoka** berreskuratu zen ekoizleek zuzeneko salmenta egin zezaten. Oso ekintza garrantzitsua da, azokak edo merkatuak berebizikoak direlako baserriarrentzat. Bigarrena, eta Nafarroako errealtatea kontuan hartuta, **komunalen kudeaketari** buruzko azterketa/gogoeta egiten ari dira egungo errealtateari neurri hartzeko eta, apurka-apurka, eztabaidarako gaiak mahaigaineratzea: biztanleen zahartze eta gutxitzeari aurre egiteko horiek duten potentzialtasuna eta belaunaldien ordezpena eta instalazio berriak sustatzeko premia balioestea. Eta hirugarrena, energiaren sektoreari dagokiona, Sakana eskualdean apustu handia egin da auzokako **konpostajearen** alde, baina hurrengo fasea falta da, zuzenean eskualdean eragingo duen materia organikoa kudeatzeko proiekturen bat definitzea.

Partekatzeko zenbait ikaskuntza...

- Uste da **marko zabalagoa** edukitzea, hau da, legegintzaldiaren lau urteak gainditzen dituen plana edukitzea, po-

tentzialtasuna dela epe luzera begirako prozesuak direla ulertzeko; izan ere, nekez lor daitezke berehala emaitza neurgarriak, eta halako proiektuetan ezin da presarekin hasi. Gainera, denbora luzeagorako diren tresna horiek jasangarritasuna eta jarraitutasuna bermatzeko balio dezakete, beti ere jarraitutasun hori bermatzen duten pertsonak baldin badaude.

- Funtsezkoa izan da **antolaturiko solaskideak edukitzea**, gogoeta eta proposamen asko landuta baitzituzten. Hemendik aurrera, espazio horiek kolektibo eta pertsona gehiagori zabaltzea ere lortu nahi da.
- Prozesu honen funtsezko aldeetako bat **sare eta harremanen sorkuntza** izaten ari da, eta sarritan, pertsonalak dira. Ez da ikuspegi pertsonalista, baina garrantzitsua dirudi halako prozesuetarako zenbait pertsona motibatu eta proposamenak edukitzeak zenbaterainoko garrantzia duen azpimarratzea. Dinamizaziorako kontraturiko pertsonen zereginak bide horretatik jo behar du: sareen sorkuntzarako erraztasunak ematea, bultzatzea eta laguntzea.
- Azkenik, **formazioa** beti agertzen den gauza da, bai beste esperientzia batzuetatik ikasitakoagatik, Urduña, Zerain, etab., bai lehenetsi diren sektoreei buruzko ezagupenak zabaltzen joateko premiagatik.

Gehiago jakiteko...

<http://www.sakanagaratzen.com/es/inicio>